


Euskarazko **LITERATURA**
ETA LETREN sorkuntzako
emakumeen eta
gizonen **EGOERA**

TERE IRASTORTZA GARMENDIA



KULTURA AUZOLANEAN

S

Argitaraldia: 1.a, 2020ko ekaina

Ale-kopurua: 70

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea:

Tere Irastortza Garmendia

Koordinatzaileak:

Kualitate Lantaldea, Kultura Sustatzeko Zuzendaritza-Kulturaren Euskal Behatokia

Diseinua eta konposizioa: Mooneki

Inprimategia: Eusko Jaurlaritzaren Erreprografia Zerbitzua

ISBN: 978-84-457-3551-0

Lege-gordailua: LG G 00388-2020

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke:
<http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Euskarazko **LITERATURA**
ETA LETREN sorkuntzako
emakumeen eta
gizonen **EGOERA**

TERE IRASTORTZA GARMENDIA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2020

I. ATALA - EMAKUMEZKOAK ETA LITERATURA SORTZAILEAK

EGOERAREN IRAKURKETA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

1. Lanaren abiapuntua	6
2. Marko teorikoaren lehen oinarri batzuk	8
3. Emakumezko izateaz	10
3.1. Subjektu eta objektu. Intersubjektibotasunaz	11
3.2. Nondik hasi emakumezkoen lanak arakatzen	13
3.2.1. Idazteko motibazioa eta paratestuak	13
3.2.2. Aipatuak edo irakurriak izan ohi ez diren emakumezkoen bila	14
3.2.3. Letrak eta emozioak	14
3.3. Salbuespenaren teoretatik salbuespenezko egoeretara: emakumezkoen erretratuak geuk aukeratu gabeko ispiluetan	16
3.4. Nartzisismoaz eta kultura modernoaz	17
3.5. Bizi ahala zimurtzen: gorputza eta gogoia	18
3.5.1. Amatasunaz eta emetasunaz	18
3.5.2. Lan harremanak, sexu bereizketa eta harremanen birtualizazioa	21
3.5.3. Gorputz eta gogo: gogoetak	23
3.5.4. Jaiotzaz eta berriz hasteaz	24
3.6. Hizkuntza eta gorputza: munduaren topografia	26
4. Euskara, hizkuntzak egiten gaituen heinean	28
4.1. Euskara eta euskal emakumezko idazleak	29
4.1.1. Emakumezko idazleak: Bizenta Mogel Elgezabal, idazle laikoen sigi-sagan	30
4.1.2. Ubi sunt? Idatzi eta irakurri zuten arren, argitaratu ez zuten emakumezkoak eta inkisizioaz	31
4.1.3. Tabua eta autozentsura	32
4.1.4. Gerora bidean: gordea	33
4.2. Emakumezkoak irakaskuntzan eta euskalgintzan	38
4.2.1. Euskaraz idazteko motibazioa partekatzea eta elkar-lana	40
4.2.2. Emakumezko idazleak, gizarte eragile	42
4.3. Hizkuntza eta emakumezkoak	43

5. Euskal letrak	45
5.1. Euskal letren sistema	46
5.2. Idazteaz: sortzailearen baldintzak eta testuingurua	47
5.2.1. Saiakeraren ausazko eraginaz	47
5.3. Sortzaileak: euskal letren sistema bera lehen bitartekari	49
5.3.1. Idazleak: sortzaile eta eragile	50
5.4. Obraren harrera eta irakurkera	50
5.4.1. <i>Egan</i> aldizkaria eta emakumezkoen presentzia (1992-2017)	50
5.4.2. Emakumezkoen Presentzia 2016-18ko liburugintzan, ELAren arabera	51
5.5. Sorkuntza-lana birsortzeko bideak	53
6. Euskal emakumezko idazleak XXI. mendean. Nor gara?	54
6.1. Zenbat euskal emakumezko idazle XXI. mendean?	55
6.2. Emakumezko idazleen bizimodua eta idazketa	57
6.3. Idazle profesionalak	57
6.4. Emakumezkoen presentzia antologia, liburu kolektiboetan eta sarean	58
6.4.1. Behingo hartan: emakumezkoak antologia eta liburu kolektiboetan	58
6.4.2. Emakumezkoen presentzia sare birtualetan	63
6.4.3. Emakumezko idazleen ibilbidea	63
6.5. Ondorio bila, bide bila	65
6.5.1. Emakumezkoen sorkuntza-lanak literatura-generoen arabera	65
7. Kanona helmuga eta oztopo	70
7.1. Emakumezkoen bai kanonean?	71
7.2. Arretaz idaztea eta irakurtzea: denbora sorgailuak	73
BIBLIOGRAFIA	106

II. ATALA - EUSKAL EMAKUME IDAZLEEN SUSTAPENA EUSKAL LETREN SISTEMAN

IRAKURRIZ SUSTATU, EZAGUTUZ BIRGAITU

1. Sarrera: nondik abiatu eta nora jo	78
1.1. Emakumezko idazleak euskal letren sistemaren alor guztietan sortzaile	80
2. Euskal emakumezko idazleen sustapena: plangintza eta kronograma baten beharra	82
3. Emakumezkook idatzi duguna ezagutarazten: Aurrez aurre	84
3.1. Emakumezko idazleak sortzen	85
3.1.1. Formakuntza eta dibulgazioa	85
3.1.1.1. Idazleak irakurleekin: Irakurketa klubetarako irakurketa- gidak	86
3.1.1.2. Zuzenketa eta tutoretza	87
3.2. Norbere gelak eta egonaldiak	87
3.2.1. Autobus ibiltari morea	88
3.3. Euskal emakumezko idazleen liburutegi eta gordailua	88
3.3.1. Euskal emakumezko idazleen izkribu-gordailua	88
3.3.2. Sortzaile ala sorgin: euskal emakumezkoen basoa: irakurketarako espazioak eta natura	89
3.4. Laburtuz: ikusgarritasun fisiko eta soziala	89

4.- Emakumezkook idatzi duguna ezagutarazten: Sare sozialak	90
4.1. Norbere gelatik webgune propiora: emakumezkoak idazten	91
4.2. Webgune-eredu baten ezaugarriak eta egitekoak	92
4.2.1. Webgunearen atalak	93
4.2.1.1. Idazleak	93
4.2.1.2. Soslaiak	93
4.2.1.3. Testuak eta irudiak	95
4.2.1.4. Literatura-generoak	96
4.2.2. Norbanakoaren irakurketatik idatzitakoa gizarteratzera	97
4.2.2.1. Irakurketak	97
4.2.2.2. Bloga eta estekak	97
4.2.2.3. Multimedia atalak eta formakuntza	97
5. Euskal emakumezko idazleak: zenbat gara	98
6. Euskal emakumezko idazleak euskal letren sistemaren eragile: Euskal emakumezko idazleen I. Kongresurantz	102
7. Sustapen planaren eztabaida: hasiera bat	104
BIBLIOGRAFIA	106

I. Atala

EMAKUMEZKOAK
ETA LITERATURA
SORTZAILEAK

**Egoeraren irakurketa
eta hobekuntza
proposamenak**



**I. kapituluu
LANAREN
ABIAPUNTUA**

2018ko abenduaren hasieran Eusko Jaurlaritzako Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren eskaerak eman dio bidea ikerketa honi. Beste kultura esparru batzuetan burututako lanetan bezala (zinema, musika...), euskal literaturan emakumezkoaren ikusgarritasuna eta promozioa planteatzeko industriaren ikuspegia eta sortzaileen ikuspegia ahalbidetu ditu.

Sortzailearen ikuspegitik, emakumezkoek idatzitakoaren sustapenari heltzeko orduan ere, emakumezkoen presentziari eta absentiari begiratzeko moduari erreparatuko zaio. Izan ere, emakumezkoen ikusgarritasuna bera ere lotua egoten da aurreiritzi kultural, sozial eta politikoetara. Horren harira, lanaren lehen zati bat indarrean egon daitezkeen hainbat aurreiritziz aritzeko erabili da, horretarako, euskal emakume idazlearen definizioa osatzeko erabiltzen diren hiru kontzeptuei erreparatuz (euskal, emakume, idazle).

Lehen galdera bat da euskal emakumezko idazlerik ez ote den existitu Bizenta Mogelek bere lehen liburua argitaratu aurretik. Eta existitu direla arrazoitu ondoren, zergatik ez ote diren antzemanak izan oraintsu arte. Bigarrena da euskal emakumezko idazleek argitaratu arren, zergatik ez ote diren, gehiegitan, iritsi edo iristen aintzakotzat hartuak izatera, alegia, birsorkuntza fasera.

Azkenik, ondoriozta daiteke euskal emakumezko idazleak euskal letren historian zehar idazle eta gizarte eragile izan direla, gaur egun ezezagun izan arren. Eta hipotesia da ezezagutza hori lotua dagoela euskal literaturaren historian emakumezko gabeziari erreparatu ez izanarekin, sistema baten gabeziez ez jabetzeak sistemari buruko begirada partziala eskaintzen duelako, ezinbestean.

Ezin da eragin, azkenik, euskal letren sisteman, emakumezko idazleen corpusa definitu gabe; euskal emakumezko idazle zein izan den eta den, eta zer, noiz eta nola idatzi eta argitaratu duen jakin gabe.

Euskal letren historiako emakumezkoak identifikatzea ez da, alderdi horretatik, lanik hutsalena. Gutxienez, idazle zein diren eta euskal idazle zein diren arakatzeko, hainbat zerrendatze-lani ekin zaio azterketa honetan. Hurrenez hurren: a) euskal literatura-historietatik ateratako zerrendak, b) idazle kontsideratu izan ez diren emakumezko informatzaileak (ahozko errefrau, hiztegi, kantu eta ipuinen bildumetan ageri direnak), d) itzultzaileak, e) kazetariak, f) aldizkarietan, hainbat antologia eta webguneetan argitaratzen hasi eta idazten ari

diren euskal emakumezkoak, g) hainbat sariketa irabazitako emakumezkoak eta argitaratutako haien lanak, h) gaur egun euskaraz ikertzen ari diren emakumezkoak.

Hain denbora gutxian osatutako zerrenda guztiak ezin dira exhaustiboak izan, baina euskal liburu eta letren sistema zehazteko ezinbestekoak izan dira. Ehunka emakumezko idazle albora utzita ere, zerrenda bakarrera bildu ahal izan da literatura, dibulgazioa eta ikerketa idatzi duten zazpiehun emakumezkoen taldea. Eta egun bizi diren artean jo dezakegu, **seiehunen batek osatzen dutela XXI. mendean euskaraz idazten duten emakumezkoen saila, itzultzaileak eta kazetariak albora utzita.**

Seiehun emakumezko horiek bistaratu orduko, euskal emakumezko idazleen gaiak bizi propioa hartzen du, gorpuztu egiten da; erreal eta anitz egiten da, eta errealitatetzat hartu denaz galdera asko eragiten ditu: Zerrenda horretako zenbat emakume da idazle profesional? Profesional ez direnak non kokatzen dira euskal letren sisteman? Orduan, euskal letren sisteman zenbat jende ari da idazten...?

Baina esan daiteke gutxieneko kopuru horrek berak ere justifikatu egiten duela sortzailearen ikuspegia. Eta inguruko kulturetako liburu-industrien aldean txikia omen den liburuaren industriarentzat ere eronka berriak eta eragin-eremuak planteatzeko bideak iradoki ditzake. Justifikatzeaz gain frogatu ere egiten du, inola ere, zenbaki hutsez, euskal emakumezko idazleak edozein azterketa eta sistemaren objektu ez ezik subjektu direla (garela).

Beraz, ez luke behar arazorik, zenbakietatik emakumezkoen izenetara eta idazleen izenetatik testuetara bitarteko iraganbidean, euskal emakumezkoen sorkuntza-lanak irakurritz sustatu behar direla ondorioztatzeko arazorik.

Lanaren amaieran proposatuko dira, euskal emakumezkoen sorkuntza-lanak sustatzeko —berdefinitua geratzen den euskal letra sistema osatuago batean— epe labur eta luzerako har daitezkeen neurriak.

Horretarako, emakumezkoak euskal literaturan idazle eta eragile gisara kokatzeko ikerketa-lan honen abiapuntua, marko teoriko bat definitzea izango da, zeinetan euskal emakumezko idazleen presentziaz eta absentiak dauden aurreiritziez gain, gaur egungo euskal letren sistema irudikatu ahal izango den, eta bertatik hainbat proposamen zehatz planteatuta geratuko diren.



II. kapitulua
MARKO
TEORIKOAREN
LEHEN OINARRI
BATZUK

Arestian zirriboratu berri den egoeran, garrantzizkoa da marko teoriko zehatza planteatzea, batez ere, emakumezko idazleak kuantifikatzen hasi aurretik, ezinbestekoa delako argitzea **zergatik ez den agertu emakumezko idazleen arrastorik euskal literaturaren historian eta euskal liburugintzaren azterketetan.**

XXI. mendean elkarrekin diharduten gutxienez seihun emakumezkoen corpusa zenbatu aitzin, ehun eta berrogeita hamar emakume inguruko zerrendarekin abiatuta ere, **saiakera honen ardatz izan dira emakumezko euskal idazleak eta beren obrak.** Emakume idazleak eta beren idatziak direnean hausnarketa-gai, garbi geratzen da, gaur egun ere, oso zaila dela literaturaz bakarrik aritzea euskal emakumezkoek ekoiztutako liburugintzaz ari garenean. Literaturatzat fikzioa bakarrik hartuz gero, idazle-kopurua eta ikuspegia erabat alda litezke. Beraz, emakumezko idazleaz aritzea literaturaz aritzea baino zabalagoa da, aintzat hartu behar baita, idazteaz gain, euskal letretan emakumezkoek duten eta izan dezaketen eragina.

Azterketa kuantitatiboak gizarte-ereduaren argazkia eta irudia finkatzen laguntzen duen heinean, zoru egonkorra eman ohi du. XXI. mendean idazten ari diren emakumezkoen jatorria eta norantza aztertzeo, ezinbestekoa da **ikuspegi diakronikoa eta sistematikoa** abiaraztea.

Alor horretan, liburuaren industriaren azterketak eta antzerkiari buruz idatzitako hausnarketak eta proposamenek **euskal liburuaren sistema unibertso txiki eta anitza dela ondorioztatzeko bidea ematen dute.** Bertan emakumezko idazle asko ari da lanean momentuan. Zenbat garen eta nor garen ezagutzea ezinbestekoa da edozein plangintzari eusteko, eta sortzaileon pisua eta balizko eragina aztertzeo.

Marko teoriko honetan emakumezko sortzaileek, areago, euskal emakumezko idazleek sorkuntzarekin duten/dugun harremanaz hausnartzeko bideak jorratuko dira. Horretarako, lehenik eta behin, **euskal emakumezko idazleen idatzietatik abiatzea** ezinbestekoa da, **ondoren literaturaren historiek, historiografiek eta literatura-kritikek egindako birsortze-saiakerak edo isilarazpenak ulertu ahal izateko.**

Ezinbestekoa da, halaber, **emakumezkoak euskal letretan** kokatzeko hainbat oinarri identifikatzea, aztertzea, mugatzea eta interpretatzea, eta, hain zuzen ere, **emakumezkoa, hizkuntza, letrak** kontzeptuen inguruan euskal emakumezko idazleek emandako iritziei eta egindako azterketei bezala, euskal emakumezko idazleei eta beren lanei buruzko iritziei eta azterketei erreparatzea.



III. kapituluu
EMAKUMEZKO
IZATEAZ

Emakume izaera etiketa eta eredu itxi gisa ematen zaigu bai nor izaten ikasi aurretik, bai geu ezagutuak edo inoren ezagun izan aurretik ere, eta, **gainera, ikasitako emakume izaera hori onartu edo ukatu egiten zaigu**. Esan liteke emakume baten izatearen hasiera edo helburua *emakume izaera* bera dela, eta ez norbanako librearen *izatea, emakumezko izatea*. Eta horren aurrean ulergarri da zenbait emakumezko bere buruaz emakume gisara hitz egiteak aztoratzea, eme sentitzen baikara emakume izan aurretik edo izan gabe ere. Horiek horrela, aurrerantzean bada “emakumezko”¹ hitza erabiliko da, hain zuzen ere, emakumezko “gizonezko” bezala indibidua markatzeko baliagarri dela irizita.

Eta euskal emakume idazleak ikergai izateak hein batean orain arte objektutzat tratatuak izatea ekarri ohi duelako, hainbat emakumezko askotan salatu denez gure norbanako izateari ez erreparatzea dakarrela, *emakumezko* hitza erabiliko da aurrerantzean.

Horiek horrela, emakumezkoak **ez gara/dira azterketa objektu** huts **bilakatuko**; izan ere, horrek berez esan nahi du bi alderdiko txanponaren alde bat eta bakarra garela. Gizona bera ere arautzat aitortu ondoren objektu gisara aurkezten gaituen arauak ezarritako eredu a sabaitzat hartzeak, edozein ikerketa ikuspegi okerretik eramateko aukera zabaltzen du, argi planteatu ezean. Baina aldi berean, ahaztu gabe **euskal emakumezko obraren sustapena badela ikerketa honen objektu**, eta objektu hori **euskal letren sisteman kokatuz egin behar dela euskal emakumezko idazlearen obraren sustapena**.

Ondorioz, emakumezkoak ikerketa honen subjektu eta objektu gara aldi berean. Emakumezkoak subjektu eta eragile gara, eta, horretarako, bizipenetatik eta inguruabarretik ondorioztatutako hausnarketetatik abiatuko da ikerketa. Eta horretarako aintzakotzat hartuko dira emakumezko idazle eta sortzaileek adierazitakoa edo argitara emandako bizipenak eta motibazioak (liburuak, elkarrizketak, artikulua...). Euskal emakumezko idazleak **subjektu sortzaile eta eragile izanik, euskal letren sistema osoa arakatu behar da aurrena, gero bertan emakumezkoak aztertze**. Modu horretan, idazketatik hasi eta liburu-sustapenera bitarteko prozesua aztertuz, lortu ahal izango da, azken batean, emakumezkoen **obraren ibilbideak aintzat hartuz sustapena planifikatzea**.

Horretarako, garrantzizkoa da emakumezko idazleen arteko harremanak eta emakumezkoen eta euskal letren sistemaren arteko ausazko elkarreraginak aintzat hartzea, begirada jarritz ez emakumezkoen izaeran, baizik eta emakumezkoen izateetan eta emakumezkoen sorkuntza-lanetan; funtsean, zientziaren teoriak azken urteetan onartu duen *intersubjektibotasunean*.²

3.1. SUBJEKTU ETA OBJEKTU. INTERSUBJEKTIBOTASUNAZ

Giza zientzietan bezala, emakumezkoen buruzko azterketan behatu-behatazileen arteko harremana bi noranzkotan gertatzen da; eta hartara, garen emakumezkoen buruzko hausnarketak garen emakumezkoen eraldaketa ekarri ohi du; bestalde, ikertzailea edo ikertua emakumezkoa ez denean gertatzen den bezalaxe.

Intersubjektibotasuna onarturik, esan genezake, emakumezkoen buruzko edozein azterketa izan dezakeen ikerketa-interesaz gain, bultza dezakeela pertsonalagoa eta aldi berean kolektiboagoa izan daitekeen interesik ere, eta kanpoko azterketak berak bihurtzen duela baliotsu aztertu den errealitate —kasu honetan emakumezkoak idatzitako euskal literatura—.

Jo dezagun, beraz, badakigula zenbat garen eta zertan ari garen. Hara emakumezkoen azterkizun bihurturik. Aurrerantzean hizpide izan gaitezke, ikuskizun bihurturik, azterketa deskriptibo eta kuantitatiboaren fase orotan.

Eta honenbestez, jo dezagun berriro badugula behar adina datu jakiteko zein den emakumezko idazleen sorkuntza-egoera. Eta zertarako emakumeen buruzko teoriak eta ekoizten dena irakurri gabe ikusi gabe eta entzun gabe sortzen baditugu? Emakume izaeraren misterioa handitu egiten da, argitu ordez, *emakumezkoen* izateak aztertu ordez, dena delako emakume izaeraren arabera definitu nahian.

Zorionez, badugu erantzun egokiagorik; Freudek Lou Andreas-Saloméngandik jasotako erantzunak argi adierazten duena, kasu. Freudek emakumezkoen izaera misteriotsua aipatu ondoren, Lou Andreas-Salomék erantzun zuen misterio direla emakumezkoak ez direnari erreparatzen diotenentzat, nolakoak diren erreparatu beharrean.

1 Hainbat bertsolari deseroso sentitzen da emakume hitzaz definitzen denean Uxue Alberdi Estibaritzek argitara berri duen *Kontrako ezarririk (emakume bertsolarien testigantzak)* Donostia: Lisipe, 2019. Liburuan *emakume* hitzaren etimologiak kontzeptu murrizgarria ezarriko balu bezala. Hitzekin kontzeptuen artera hainbat fiabardura sortzea komeniko da, dagoeneko.

2 OSSA, María Elisa Álvarez “La subjetividad e intersubjetividad: un camino en la comprensión de lo cultural.” *Revista Linhas. Florianópolis*, 17, 34, 323-336. 2016.

Hala ere, emakumezkook idatzi duguna irakurri ezean, anonimotasunean itotzen gara; edo geure zen ondarea eraldatu eta emakumezkoek sortu ez duten moduan hedatzen da, ahokotasunaren ondarearekin gertatu den bezala (errefrauak, ahoko kontuak eta ipuinak). Eta aipatu izanagatik, zenbatuak eta neurtuak izan arren, egin duguna irakurri, ikusi edo entzun ez izanak berriro desagertzera ginderamatzake, euskal literatura bezain esparru labur-motzean ederki asko ikus daitekeenez. Beraz, **gizarteari emandako erantzuna eta literaturan eragindako aldaketei buruzko hausnarketarik ezean, zenbatze eta zerrendatzeaz harantzago ikusezin bihur gaitzek berriro, esan edo idatzi duguna irakurtzen eta ulertzen ez saiatzeagatik.**

Objektu, azterkizun, ikuskizun bilakatu gaituen azterketa-ikerketak intersubjektibotasunari uko eginez gero, **izugarri murritzten du bere indar eraldatzailea.** Izan ere, **ikusgarritasunak ezagupena eta ulermena eskatzen ditu.**

Garenak gara, beraz, geu ere; eta ez gizezkoak ez omen direna... eta sortzaile garenez **bizi ahala idazten dugunak eta idatzi ahala bizi garenak,** alegia, **genero-politika bidez, desabantailak gaintitzeaz bat geure bizipenen eta nortasunen aniztasuna bermatu nahi dugunak.**

Lou Andreas-Salomék aldarrikatu zuen bezala azter ditzagun geure ekintzak beste ezerean ifrentzutzat hartuak izan gabe, **garen honetan geure aniztasuna errespetatuz.**

Izan ere, zalantza gabe esan behar da: anitzak dira/gara emakumezkoak (ere). Gainerakoan, galdetu beharko da **ez al gaituen bihurtzen gizezkoekin erkatzeak emakumezko; eta prest al gauden emakume eredu bakarreko ordezkari bihurtzeko.**

Bi ondorio eta bi proposamen garbi, beraz, emakumezko izaerari begiratzeko moduan eta helburuetan:

- **Ez garenari, egin ez dugunari, hartu ez ditugun rolei etengabe begira** jarri gabe —hori egin beharra onartuz, noski— osatzen dugun gizaki-aniztasunari, **orainari eta etorkizunari ere begiratu behar diogu, elkar aberastuz emakumezko idazle aniztasuna eta indibidualtasuna sustatuz.**

- Emakumezkoak sorkuntzan parte hartzeaz gain, irakurriaz bat **izan behar dute emakumezkoek idatzi dutenaren birsorkuntzan ere partaide,** beti ere emakumezkoek idatzitakoaren aniztasunari erreparatuz, eta horretarako emakumezkoen bizipenei entzungor egin gabe eta idazteko motibazioak aintzat hartuz eta partekatuz.

Eta beste alde batetik, objektuaz ari garelarik, geure buruei buruzko distantziak ari garelarik beste ñabardura bat. Sortzaile garen aldetik, geure **nortasun indibiduala objektibatzen saiatzea** ezinbestekoa da, bestalde, geure bizipenak tapatu eta ukatu beharrean. Izan ere, irakurriak eta ulertuak izateko, besteei ere —irakurleei, alegia— utzi behar zaie tokia idatzietan eta sorkuntza-lanetan; irakurleari egokituko baitzaio bertan nor izatea, bere tokia aurkitzen saiatzea. **Obra irekiak, mezua itxiko ez dutenak iradokitzea eskatzen du egoerak,** eta ez, hainbeste, obra dogmatiko eta argibidez beteak. Ezin zaizkio irakurleari —edozein delarik ere— atea itxi bestearen bila eta beste batzuekin partekatze helburuarekin sortzeko helburua geure baitan badaramagu. Freudek “ulertzailea” deitu zuen Lou Andreas-Salomé. Idazle eta filosofo handi honek zioenez, “Sorkuntza-lan oro, dela pentsamendu alorrean, artean, ekintza bidez edo beste edozein adierazpidez baliatzen dena ere, **ez da objektuaren mundua eta subjektua (...) berriro batzeko eta berriro munduratzeko metodoa baizik**”³.

3 “Anal und sexual”, gaztelera *El narcisismo como doble dirección. Obras psicoanalíticas.* in Bartzelona: Tusquets, 1982, 73.or.

3.2. NONDIK HASI EMAKUMEZKOEN LANAK ARAKATZEN

3.2.1. Idazteko motibazioa eta paratestuak

Hitzaurreak, esker emateak, liburuaren azalean edo kontra-zaletan ageri diren hitzak, beste egile batzuen aipamenak izan ohi dira idazleen motibazioa aurkitzeko liburuaren gune aproposak⁴. Aipatutako elementu hauekin guztiekin **paratestuaren kontzeptua** osatuz joan da (Philippe Lejeune⁵, hitzurreez aritu zen aurrena, eta gero Gérard Genette⁶ sortu zuten kontzeptua). Eta literatura generoaren inguru paratestualaz baliatzea, bazterreko testuon esan nahia arakatuz, bereziki interesgarria gertatzen da emakumezkoek idatzitako literatura bere testuinguru historikoan ulertzeko.

Beste alde batetik, kolonizazio osteko literaturetan ere erabili izan den subjektu eta objektuaren kontzeptuak aztertu zituen XX. mendearen amaieran Edmond Crosek⁷. Crosek kultura-subjektua kontzeptua mugatzeaz gain, azpimarratu du kultura ez dela ideia abstraktua, kultura-subjektuak izendatzen dituela *Niak* bereganatzen duen diskurtsoaren instantzia, subjektibotasunaren azaleratzea eta funtzionamendua, subjektu kolektiboa eta menperatze ideologikoaren prozesua.

Ondorioz, literaturaren sistema osatzen duten hainbat aldagai kontuan hartuz, kultura jakin bateko letra-sistemen eboluzio diakronikoak modu zehatz eta osoan aztertzeko, paratestuetako informazioa jaso eta aztertu behar da, bere testuinguruan kokatuz. Eta modu horretan, letra-sistematan falta denari buruzko hausnarketa eta ikerketak bultzatzeko ikuspegia arras zabaltzen da.

Euskal letren sisteman historikoki emakumezkoek hartu edo utzi duen tokiaz hausnartzeko paratestu hauek eskaintzen dute emakumezkoen obra pertsonalari arreta osoago bat emateko aukera, baita bere testuingurua aintzat hartuta taxuzko interpretazio eta birsorkuntza egiteko modua ere.

Paratestu hauetan identifika daitezke argitalpen baldintzak (argitalpen tokia izan daiteke bat, euskararen kasuan, hizkuntza bera ere galarazia izan denean; baimenak eta lizentziak —*nihil obstata* adibidez—), **baita baldintza jakin horietan idazleak bere obra argitaratzeko duen egokiera eta motibazioa ere.**

Esan beharrik ez dago, argitaratzeko zailtasunak areagotzen diren heinean, garrantzikoagoa izan daitekeela informazio paratestual hau erabiltzea, egilearen motibazioa aztertzeko. Eta egilearen motibazioaren aldarrikapena edota argitaratzearen arrazoiak⁸ ere, are eta garrantzikoagoa da sortzaileek bere obraren interpretazio eta birsortze sareetan aukera gutxi edo ezegokiak aurreikusten dituztenean.

Literatura-generoek ere eskaintzen dituzte motibazioa agerian uzteko edo azaleratzeko molde jakinak. Eta idazleek ere genero literario ezberdinak erabiltzen dituzte inguruan beren iritziekin eragiteko, kontatzen eta aurkezten den istorioaren atzean askotan, beren iritziak paratuz. Hein horretan, gizarte jakinetan ahots nagusiaren zirrikituetatik urruntzeko erabili behar diren mozorroak dira genero literarioak. Normalean, beraz, egiletza onartua dutenek eta emakumezko izateagatik edo beste arrazoren batengatik onartua ez dutenek, ez dute literatura-generoen erabilera berbera egiten. Ezin ahaztu alde horretatik, emakumezkoen literaturan ohiko dela idazle batzuk, emakumezko izan arren idazteko ausardia erakustez bat, bere liburuak aurkeztean bere burua apalestea eta bere ezjakintasunagatik barkamena eskatzea⁹. Beste zirrikitu batzuk bilatu behar izan dituzte emakumezkoek beren motibazioen berri emateko, zentsura gogor horri ihes egiteko, onartuak izateko.

Gaur egun ere, motibazioak bilatzeko arreta handiz irakurri behar dira emakumezkoen adierazpenak, narratzailearen ahotsean, liburuen hitzaurreetan, poetiketan edo idazleen elkarriketetan. Eta esandakoaz eta esan gabekoaz sortu behar da emakumezkoen motibazioei buruzko ikuspegia.

4 Euskal letretako idazle klasikoek hitzaurre bilduma egina dago, eta esanguratsua da: SALABERRI MUÑO, Patxi. *Euskal klasikoek atarian*. Iruñea: Pamiela, 2004.

5 "Frange du texte imprimé qui, en réalité, commende toute la lecture" *Le pacte autobiographique*. Paris: Seuil, 1975, 45.or.

6 *Seuils*, Paris: Seuil, 1987. Honela ziharduen, paratestuez orokorrean: "Lieu privilégié d'une pragmatique et d'une stratégie, d'une action sur le public au service, bien ou mal accompli, d'un meilleur accueil du texte et d'une lecture pertinente..." (8.or.) Noski, garrantziko, baita ere, *Palimpsestes: La littérature au second degré*, 1982. Gaztelera *Palimpsestos: la literatura en segundo grado*. Madril: Taurus, 1989.

7 *D'un sujet à l'autre: sociocritique et psychoanalyse*. Montpellier: CERS, 1995.

8 Motibazioak ez du berez bermatzen liburuaren kalitatea. Baina ikuspegi soziologikoak eta historikoak bezala, idazleen psikologiari eta bizipenei buruzko datu apartak eskaintzen ditu ikerketa-ildo honek.

9 RIUS GATTEL, Rosa "Isotta Nogarola: una voz inquieta del renacimiento" in Birules, Fina (ed) *Filosofía y género. Identidades femeninas*. Iruña: Pamiela, 1992, 77-78.or.

Idatzitakoaz gain, idatzi izanaren motibazioak eta helburuen irakurketa esanguratsua bultzatuz, euskal emakumezko idazle askoren sorkuntza-lanak ulertu eta birsortzeko tresna ezinbestekoa da paratestuen azterketa.

3.2.2. Aipatuak edota irakurriak izan ohi ez diren emakumezkoen bila

Emakumezkoak entzun, ikasi eta aditu ez dituen gizarte batean nondik hasi arakatzeko, nola arakatu, nola ikertu? Alde batetik, azterketa historikoetan emakumezkoak ez dira agertu izan, harik eta Georges Dubyk eta Michelle Perrotek 1990eko hamarkadan bilketa lan sistematikoa egin zuten arte.

Gezurra badirudi ere, batzuetan ikerketari eta zientziari buruzko geure aurreiritziak ditugu lehenengo oztopo; eta objektibotasunaren kontzeptua zehaztu ez ezik zeharkatu egin behar dugu geure adimenaren osotasunarekin; eta are gehiago sortzaile garen heinean eta idazketari buruz hausnartuz geure inguruneari erreparatu behar diogunean.

Euskal literaturaren historia anitzetan, ia denetan ez bada, halaxe gertatu da, hasi Orixeren literaturaren historiari eta berrienetara, literaturaren historia sozialak barne¹⁰. Zertzelada bakar batean definitze aldera, Mari Karmen Garmendia eta Juan San Martin emakumea eta literaturaz hasi ondoren, euskal emakumezko idazleak gai hartu ez dituzten ia-ia historia guztietan, emakumezko idazleen lanak ez dira, orokorrean, aintzat hartu¹¹, zegokien maila portzentualean.

Egia da emakumezkoen izenak aipatuak izan direla, baina egiten diren konparaketetan eta irakurketetan, ez da sarri emakumezkoen aportazioa testuinguruan baloratu izan, literatura-historia gehienetan. Eta batez ere, ikuspegi orokorren analisiak, obra jakinen irakurketa sakonik gabe burutu izan direlako, sarri. Neurri horretan, esan liteke, **ikerleak irakurri ez duenaz (ere) idatzi behar duela eta irakurri ez duelako ere**

idatzi behar duela gainera, irakurri, entzun eta ikusi ez dena bihurtu dadin jakingarri eta ulergarri.

Azpiratu behar da, gainera, irakurtzeak bezala, idazteak **arreta paratzea** eskatzen duela, eta sortzaileak bidean aurkitutako kointzidentziei, korrespondentziei eta hari-muturrei tiratu egin ohi diela, ezezagun gertatzen denarekin beldurtu gabe. Ez gutxiago emakumezko izateagatik, noski.

Emakumezkoek idatzi dutena **ulertzeko**, idazteko eta argitaratzeko testuinguruak hartu behar dira aintzat, besteak beste **idazleak adierazten dituen emozioei eta argitaratzeaz ematen diren motibazioei erreparatuz**.

3.2.3. Letrak eta emozioak

Literatura zer den galdetu ohi du literaturaz idatzi nahi izan duen askok. Flaubertek bere nobelari Heziketa sentimentala izenburua eman zionean lotu zuen idazketa sentimenduen alorrekin. Sentimenduei buruz, ordea, sentimenduen aurkako begirada gailendu da emakumezkoek euren bizipena aldarrikatu dutenean. Nabarmena izan da, adibidez, Rosalía de Castroren lana interpretatzerakoan Galiziako feminismoak egin izan duen aldarrikapena, adieraziz Castrok sentimenduz idazten zuela, baina sentimentalismorik gabe¹².

Sentipen eta emozioen adierazpena erromantikotasunarekin eta sentimentalkeriatik bereizi beharrean bezala idatzi izan dute euskal emakumezko gehienek ere. Izan ere, emakumezkoen bizipenei buruzko adierazpenak, gehienetan, eragin ideologikotzat hartzen dira, edo ikuspegi moral edo pedagogiko baten erakusgarritzat arbuaitzen dira.

Testuinguru horren berri eman dute egungo emakumezko askok ere —euskal idazleek barne— emotiboegiak ez direla frogatu beharrean sentitu izan direla aitortuz. Aurreiritzi horrek beren lanen harreran eragin ez dezan, sarri aitortu ohi dute emozioak letretatik kanpo uzteko joera izan dutela¹³. Euskal emakumezko

¹⁰ Lan hau egiteko arakatu diren historia labur eta zabalen artean: MITXELENA, Luis *Historia de la literatura vasca*. Madril: Minotauro, 1960. VILLASANTE, Luis, Fr. *Historia de la literatura vasca*. Oñati²: Ed. Franciscana, 1979. ONAINDIA, Santiago *Euskal Literatura, 1972-1990*, VI. Liburukia. Bilbo: Etor. SARASOLA, Ibon *Euskal literaturaren historia*. Bilbo: Kriselu, 1971. ZABALA, Enrike *Euskal literaturaren historia*. Lazkao: Pax etxea, 1977. BILLELABEITIA, Miren *Euskal Herriko literatura*. Euskal gaiak. 2003. URKIZU, Patri (ed) *Historia de la literatura vasca*. Madril: UNED, 2000. SALABERRI MUÑOZA, Patxi *Iraupena eta lekuotasuna* Donostia: Elkar, 2002. Estibalitz Ezkerrarena da orekatuena. *XX. mendeko euskal literatura*. 2012, Etxepare Institutua https://www.etxepare.eus/media/uploads/publicaciones/xx_mendeko_euskal_literatura.pdf

¹¹ Eta gai honek azterketa sakona eskatuko luke, baina, frogatu da, liburu askotan, orri eta lerro bakan batzuek baizik ez dituztela ematen emakumezkoen erreferentziak, aurreko oharretan erreferentziako lanak kontuan hartuta ikusten den bezala.

¹² QUEIZÁN VILAS, María Xosé *A nova narrativa ou a loita contra o sentimentalismo*. Santiago de Compostela: Xunta de Galicia, 1979.

¹³ RODRIGUEZ MARTIN, Eider *Idazleen Gorputzak. Egiletasuna ezbaian literaturaren joko zelaian*. Donostia: Susa, 2019.

idazleek emozioak erakusteko jarritako oztopoz jarduteko Eider Rodriguezek armadura kontzeptua ere erabili berri du¹⁴.

Orokorrean, gizonezkoek emozioez idazten dutenean askoz libertate handiagoz egin ohi dute eta emozio horien orokortasunaz eta unibertsaltasunaz ere ez da nola-hala eztabaidarik sortzen. Flauberten Heziketa sentimentala bera hartzen du Pierre Bourdieuk idazketaren paradigman erakusle, nobela hau espermentazio soziologikoaren eremuan kokatuz eta adieraziz obra honek bere azterketa soziologikorako tresna guztiak eskaintzen dituela¹⁵. Izan ere, **literatura bada izan, hizkuntzari esker, gizarteko eraldaketak ulertu edota sustatu nahi duen artegintza.**

Alde horretatik, ikuspegi soziologikoarekin edo psikologikoarekin ez ezik, literatura filosofia bezala pentsamendurekin ere lotua dago, baina harrera-arauak medio, balirudike filosofia egia —*aleteia*— duela helburu eta edertasunak, literaturak, fikzioa eskatzen duela sortzeko, baita **giza-bizipenetan eta emozioen aniztasunean arakatu ahal izateko** eta modu askotako zentsura eta tabuei aurre egin ahal izateko ere.

Filosofia eta pentsamendua arrazoiketan oinarritzen direla eta, besterik gabe onartu ohi da dedukzio bidezko arrazoiketa neutroa dela, arrazionala, objektiboa. Hala ere, apur bat gerturatuz gero, filosofian bezala edozein pentsamendu diziplinetan, zilegi da emozioez argi eta garbi idaztea. Eta zinez, ezin da esan filosofia muzin egin dienik emozioei (Nietzsche, Schopenhauer, Kierkegaard, edo eztabaida psikoanalitikoak...).

Honenbestez, nola ez esan emakumezkoek idazten dutenean ere, gizarte osoaren ikuspegia eman ohi dutela, beren pertsonaia nagusiak emakumezkoak izan ala ez. Gizartearen ikuspegi itxuraz arrazionalak eragozten du emakumezkoen letretan ageri diren emozioei arreta berberaz kasu egitea, dela filosofia, saiakera-politiko, fikzioa edo poesia. Axularrek *Gero* liburuan giza-emozioak eta joerak hezteko eta kontrolatzeko erabili zuen arrazoiketa, motibazio emozional bezain praktikoan oinarrituta zegoen.

Ikuspegi soziologiko hutsetik ere, fikzio edo ez fikzio, letrek bizipenekin lotura zuzena dute eta bere sortze-testuinguruarekin lotu eta bere hartzaile hipotetiko eta errealean arteko harremanak aztertuz uler genezake idazleen motibazioa, baita sorkuntza-lanaren bidez eraiki edo zartatu dituen bizipenak ere.

Eta batez ere emakumezkoek aitzinako erreferente bila egindako arkeologia literario saioetan, testuinguru jakinetan esan eta idatzi ahal izan dena eta esan eta idatzi nahi izan dena jarri behar dira aurrez aurre, idatzitakoa ulertzeko. Hannah Arendtek *Totalismoaren jatorrian* zioen bezala ulertzeko eta jakiteko idazten dugunez, eta konprenitzea errealitateari aurpegira begiratzeko saioarekin hasten denez, arretaz eta aurreiritzirik gabe begiratzeko asmoa bermatu behar da. Eta gainerakoan *Eichmann Jerusalem*¹⁶ liburuan garatu zuen totalismoaren egoerarekin egiten du topo gizabanakoak. Totalitarismo hark eragin zuen iritzi kritikoa deuseztatze erabatekoaren parekoa izan da mendeetan emakumezkoek idatzitakoaren gainean hedatu dena, hain absolutua non emakumezkoek ere jasan dugun, modurik tragikoenean.

Ildo horretan arakaturik, **euskal emakumezko idazleen motibazioari buruzko ikerketa baliagarria izango da, bai emakumezkoek idazteko eta idatzitakoa interpretatzeko eta baita beste emakumezko batzuk irakurtzera erakartzeko ere.**

Azkenik, motibazioaren azterketa hori egin gabe, emakumezko horien indarra, arrazoiak, aniztasuna ahaztu eta berriro hutsaren pare gera daiteke; atzera salbuespen egoera horretara sumatu ere egin gabe itzul gaiztekeela.

¹⁴ Prentsa aurrean esan du: "Armadurak balio du babesteko, baina, aldi berean, mugatu egiten du mugimendu askatasuna" in LIZARRALDE, Mikel "Idazle izatea, gorputzez gorputz" *Berría*, 2019-3-19

¹⁵ "*Les règles de l'art à propos de l'éducation sentimentale*" in <http://www.e-litterature.net/publier2/spip.php?article61> eta *Las reglas del arte. Génesis y estructura del campo literario*. Bartzelona: Anagrama, 2002. 19-79.or.

¹⁶ *Eichmann Jerusalem* Klasiokoak bilduma, 2008, 14. or. Bertan Eichmannen pentsatzeko ezintasunaz aritu zen <http://www.ehu.eus/ehg/klasiokoak/?m=Egilea&z=Arendt>

3.3. SALBUESPENAREN TEORITATIK SALBUESPENEZKO EGOERETARA: EMAKUMEZKOON ERRETRATUAK GEUK AUKERATU GABEKO ISPILUETAN

Liburu eta artikulu anitz idatzi da Georges Duby eta Michelle Perrot editore zirela *Mendebaldeko emakumezkoen historia* argitaratu zenetik¹⁷. Aurretik ere argitaratuak ziren garai historiko jakinetako beste azterketa asko ere. Horien artean, emakumezkoen arkeologia esplikatzen zuten Romeo de Maioren¹⁸ eskema interesgarria. Errenazimentuko emakumezkoen testuinguruaren berri eman zuen. Eta emakumezkoen gutxitasun fisiologikoa, moralak, juridikoa eta politikoa zedarriztuak uzten zuen testuinguruaren kokatu zuen. Baina emakumezkoen gutxiespenaren errautsek erabat itzali gabe dira XXI. mende hasieran.

Ez da eztabaidatzen, hori ez, emakumezkoen presentzia edo absentzia giza-arlo guztietan antolaketa soziopolitiko eta ekonomiko jakinen ondorio dela. Tesi hori aintzat hartu gabe ezin da ulertu zergatik eta nola ezin den hauteman hainbeste mendez emakumezko idazleen azterketa; ezta zergatik eta nola, egoera horretan, batzuek ateratzen duten beren burua argitaratu, idazten ez ezik argitaratzen ere.

Azken kasu horietan ere zabaltzen da arrazialderaren interesgarria: abantailarik gabeko edozein egoeratan dela ere, zer eramaten du emakumezkoa ez etsitzera eta bere parekotasuna, bere eskubidea aldarrikatzeko urratsa egitera? Urrats hori ausardiarekin ala bere burua apaletsiz egiten du? Ala babesle baten bidez?

Ikusten da gaiari buruzko ikerketa askotan, emakumezkoen erreferentziak burlaz eta paternalismoz edota metodo zientifikoak eskatutako orri azpiko oharretan jasoak izan direla. Iritzi eta aurreiritzi horien atzean, sarri, galdu egiten dira emakume horien lanak. Irudi luke izar uxoa izan zirela edo izan zitezkeela emakumezko horiek, edo deabru, Lukrezia edo Kleopatra bezala. Baina onerako bazen, salbuespenezko irudituta izan dira onartuak, edota ongarri, edota funtsean udazkenean basoan ibiltzea errazten duen orbel gisa baino ez.

Emakumeen presentzia publikoa galaraziz isilarazi da emakumezkoen ahotsa, noski. Eta salbuespenez bakarrik onartu edo jakinarazi da emakumezkoen berri. Ondoren, noski, hori dena normalizat hartuta, salbuespenaren teorizazio bidez salbatzen dira ale bakan horiek, eta kanpo-eraginei (formakuntza eza...) eta barne-eraginei (amatasuna, zaintzak...) erreparatuz argudiatu izan da egoerari buruz.

Eta zentzugabekeria horretan, zenbat eta atzerago joan orduan eta zailagoa izan da emakumezko idazleen presentziaren berri izatea euskal letretan ere, artxibo arakatzaile batzuen lan eskergerari esker zerbait hobetu bada ere. Beraz, ondorio normala da datu kuantitatiboetatik ondorioztatzea emakumezko idazlerik eza, eta ondorioztatzea emakumezko horien salbuespenezko nortasunak emanarazi diela jauzi hori.

Horren harira, edozein ikusmolde araututan zirrikitu batetik sartzen den errealitatearen azalpenak emateko moldeari dei geniezaioke *Salbuespenaren teoria*¹⁹. Emakumezkoak hutsaren hurrengotzat jotzen ziren garaian, emakumezko batez maitemintzeko arrazoitu egin behar zen, eta arrazoia beti zen maitatu edo adoratu behar zen emakumezkoa beste guztien gainetik altzatzen zen izaki bakana izatea. Arestian aipatutako Michelle Perrotek eta Georges Dubyk emandako datuetatik ederki ondoriozta daiteke "emetasunaren" irudiek ez dutela zerikusirik egiazko emakumezkoekin, eta, agian, emetasun eredu garri horren hedapena zuzenean dagoela lotua emakumezkoen baztertzearrekin, emakumezko ondo hitz egitea tabu bihurtzearrekin.

Antzera jokatzeko da emakumezkoen papera aztertzen den diziplina guztietan, eta hala jokatu ohi dute/dugu gutxietsitako giza-taldeek, orokorrean, salbuespeneko izaerari hori bihurtuz, sarri, geure izaeraren euskarri.

Iritsi da garaia, bada, berdintasun parametroetara jo nahi duten gizarteetan sortzaileen bakantasuna teorizatzen orduan, testuinguruak ezartzen dituen mugak aintzakotzat hartzekoa.

¹⁷ *Histoire des femmes en Occident*. Paris: Plon, 1990-1991. Ikerketa hauek bere bidea egin dute gure artean ere. Garrantzizkoa eta erreferentziazko bihurtuko da IZIZ ELARRE Ana Isabel eta Rosa. *Historia de las mujeres en Euskal Herria I*, Lizarra: Txalaparta, 2016.

¹⁸ *Donna e Rinascimento*. Milan: Mondadori, 1987. Gazteleraz 1988an.

¹⁹ "La caracterización de la mujer a través de su descripción física en los cancioneros del siglo XV" *Anales de la literatura española*, 5, 1996-97. <http://www.cervantesvirtual.com/obra/la-caracterizacion-de-la-mujer-a-traves-de-su-descripcion-fisica-en-cuatro-cancioneros-del-siglo-xv/> Nola ahaztu, euskaraz emakumezkoen eman zaien "hutsaren hurrengo" izendapena, Aristotelesen oinarritutako *ens minusari* zegokiona, alegia, neurria ematen ez duen izaki gisa izendatuz.

Emakumezko euskaldunoi, emakumezko eta euskaldun garen heinean, eta Euskal Herrian bizi garen emakumezko sortzaileoi (emakumezko, eta sortzaile —alegia mundu industrial bateko artisau— garen heinean) ez ote zaigu egokitzan geure bizipenetatik nolabaiteko teorizazioa sortzea, egoki jo genezakeen teorizazio batetik abiatu eta menderakuntza horretan menderatu huts ez sentitzearen arrazoibideak aurkitzea?

3. 4. NARTZISISMOAZ²⁰ ETA KULTURA MODERNOAZ

Richard Sennetten²¹ arabera, gehiengoak eta gutxiengoak egingo zuketean bezalaxe elkarrekin talkan dihardute egungo gizartean, subjektu pertsonalen gisara. Horren ondorioz, gizartean, gutxiengoak eta izaki bakanak gutxietsi egiten dira, emakumezkoak —gutxiengo izan gabe— gutxiesten diren bezalaxe.

Baina bestalde, gutxiengoaren arrazoiak ez dira beti azaleratzen gehiengoaren aurrean. Gehiengoaren bizimoldetik urruntzeak, bizimolde hori kritikatzek berak, gehiengotik urruntzea eragin lezake, alegia, giza-isolamendua; eta isolatuta geratzeko beldurra askatasun beharra kolokan jartzea ekar lezake, edo baita autozentsura ere.

Sennetten ustez, kultura modernoan, bada, bazterketa soziala ez da jada justifikatzen arrazoi jakin batengatik (sexua, erlijioa, arraza...), gehiengoaren onespenez ezagatik baizik. Eta gizarte hauetan²², gehiengoaren agintearen oinarria tolerantzia bazen, jada gehiengoaren iritzia bihurtzen da tolerantzia gabeziaren justifikazioa.

Sennettek ondorioztatzen du, klase ertainek gehiengoari dioten atxikimendua lehenesten dutela berdintasunaren

eta askatasunaren aldean²³, eta ondorioz, gehiengoaren eta gutxiengoaren arteko harremanean, bestea, gutxiengoaren dagoena, etsaitzat hartzea jotzen dela.

Krisi garaiak ezberdintzearen aurkako hautsak harrotzen ditu: ezberdintasuna beti justifikatu beharra eta elkarteko partaide izateko besteetatik bereizi beharra.

Egia da gutxieneko direlako edo ezberdintzat jotzen direlako bazterrerara bultzatuak diren taldeetan nortasunari eusteko ezinbestekoa dela komunitate-zentzu estua; batzuetan taldekide oro baldintza gabe onartzen duena; eta bertan erabat babestua egotera ere eraman dezakeena, Hanah Arendten hitzetan²⁴.

Bazterketa, ez da, hala ere, gehiengo-gutxiengo parametroetan bakarrik gauzatzen. Genero-diskriminazioaren kasuan, adibidez, parametro horrek huts egingo luke, funtsean, gutxiengoan suertatze horri gutxitasun gisa erreparatu ezean, zeren eta beste alor batzuetan (eliteak edo lidergoak, kasu) gutxiengoak ez gutxiesteaz gain babestu egiten baitira. Beraz, zenbakietara etorrira, justifikatzen ezina da emakumezkoen buruzko begirada gutxiengoekin ikuspuntuarekin lerrotzea, gutxiespenarekin eta gutxitasunarekin lotu ezean.

Sennettek berak adierazten du Chicagon 80ko hamarkadan abiarazitako eskubide-berdintasunerako politikek ez dituztela bere helburuak erabat erdietsi. Agian desberdintasunaren eskubide-berdintasuna bermatzean jarri delako helburua, desberdintasuna gutxiengoarekin identifikatuz, alegia, eta ez, gizarte osoaren aniztasuna neurritzat hartuz.

Berdintasun eta diskriminazioaren ikuspegitik kanpo, mundu sinbolikoan, materialtasun gabeko ondarean murgilduz gero, argi ikusten da kopuruak berdintze hutsez ez dela besterik gabe

20 ESTEBAN, Mari Luz *Antropología del cuerpo. Género, itinerarios corporales, identidad y cambio*. Bartzelona²: Bellaterra, 2013. Lan honen amaieran “El narcisismo corporal de la emancipación” eranskina dakar.

21 SENNETT, Richard *Narcisismo y cultura moderna*. Bartzelona: Kairos, 1979.

22 Euskaraz Juana Atxabale Agirremalloko idatzi zuen lehenengoz gai honi buruz. Pedro Axular saikera saria jaso zuen 1991n *Narziso berria gogoetak* saiakerarekin. UEUk 1992an argitaratu zuen. 1992ko martxoan Juana Atxabalek *Emakunde* aldizkariari emandako elkarriketa batean zioenez, “Narziso berria da gaurko hiritarra, bai kalekoa, bai pentsalari edo artista, pentsamenduaren eta ekintzaren oinarriak utzi eta biluzik, ahul, bere buruaz bakarrik arduratzen dena: oraintxe ondo bizi, ahal bada gazte eta beste guztia hor konpon. Hori da Narziso berria. (...) Narziso mundu aberatsekoa da, iparraldekoa noski, geure kulturakoa. Latinoameriketan eta Afrikan ez dago Narzisorik, han jendea konprometitu bizi da”.

23 Erich Frommek *Askatasunetik iheska* liburuan <http://www.ehu.es/ehg/klasioak/> aske biziitzeak eragiten zuen beldurraz idatzi zuen XX. mendean. Horretaz luze aritua zen Tocqueville *Amerikako Demokrazia* klasikoan <http://www.ehu.es/ehg/klasioak/>.

Horren harira, eta Tocqueville interpretatuz, honela dio Sennettek aipatutako liburuan “Amar la libertad, buscarla, requiere que una persona corra riesgos, niegue el yo, y esté dispuesta a interrumpir la tranquilidad de la vida íntima. El deseo de igualdad social nace de impulsos contrarios, del deseo de gratificación tangible, es el deseo de estabilizar y tranquilizar las relaciones familiares” (133.or.).

24 *Hombres en tiempos de oscuridad*. Bartzelona: Gedisa, 1992.

amaitzen gutxiespen ikuspegia. Zer gertatzen da, adibidez, letra klasikoan arloan edo literatura-kanonean onartzen den emakumezkoen presentziarekin? Gaur egun emakumezko idazleen presentzia areagotzen ari den arren, kasu askotan parekotasunera iristen ari denean, ez da horregatik eredugarri izatera iristen. Horrek adieraz lezake emakumezkoak espazio publikoa okupatzea ez dela aski, emakumezkoek ekoiztutako edozein gauzari normaldutako parametroetatik aztertua izango dela bermatzeko, begirada itzultzen digun ispiluak lehendik dagoen irudia borrotatu ahal izango ez balu bezala, ispilua bera deformatzailea bihurtu balitz bezala.

Ispiluaren eta nartzisismoaren metaforari tiraka, esan genezake emakumezkoak, letretan, geure ispilura begiratzen dugunean ez dugula geure gorputza bakarrik bilatzen —eta batzuetan, gainera, ezin onartuko dugula geure gorputza—; alegia, *geure bizkarrean dagoena ere ispiluan ikus dezakegulako jartzen garela ispiluari begira; aurrez aurre jartzen garela begira, atzekoa isla dadin. Are gehiago, hizkuntza historiaren iturritik jalgi denez, ispilua ez bezala mugitzen den bizitzaren ibaira murgil egiten dugunean iraganera murgil egin eta geure gogoia arnasberrituz jaito gaitezke, berriz: gorputz eta gogo, bigarren jaitoeran.*

3.5. BIZI AHALA ZIMURTZEN: GORPUTZA²⁵ ETA GOGOIA

Emakumea aipatzen den orotan gorputzak azaleratzen dira mendebaldeko letretan. Aldi berean, izpirituaz²⁶ eta adimenaz arituz gero, gizonezkoen izenak sortu ohi dira borborka. Alde edo aurka baina eskema bitarreko ideologia nagusi da oraindik.

Eta emakumezko eta gizonezkoen presentziari buruzko arrazoiketetan, sakoneko azterketa sozio-ekonomiko eta politikoen orde, oraindik ere, menderakuntzaren justifikazio gisara erabili den gorpuzkeren arteko ezberdintasunera jo ohi da. Ondorioz, emakumezkoak eta literaturari buruzko edozein azterketa gehienetan amatasunari buruzko, hilekoari buruzko²⁷ edota harreman sexualei buruzko gaiak aipatzen dira; aldiz, emakumezkoek adierazitako ideiak, arrazoiketa, adimena, eta, funtsean, gogoaren adierazpideak ez dira larregi

aipatzen. Halako moldean, non batzuen eta besteen —alegia, emakumezkoen eta gizonezkoen— arteko aldeei buruzko eztabaidaren korapiloak askatu ezinekoak eta eten ezinekoak diruditen.

Hauek horrela, garaia da indarra gorputz-adimenen osagarritasunean jartzeko, geure gorputzak onartuz geure bizipenak ulertzeko; izan, **gorputzak bizialdiaren lekuko eta senaren eta bizipenen gordailu eta eragile bai-baitira; alegia, adimenaren gune.**

Emakumezko idazleen emozio eta bizipenekin hain lotuak dauden hainbat gairi buruz egunera jarri eta aurre egiteko, hainbat ikuspuntu aztertzeko begirada historiko zabala behar da, eta ez historizista.

3.5.1. Amatasunaz eta emetasunaz

Artista erromantiko askoren joerak artearen eta nitasunaren arteko lotura hautsiezina aldarrikatzeaz bat, beste ezerekiko ardura (familia barne) arbuaitu izan du²⁸. Horien artean, emakumezko askok ere nahiago izan dute familiarik ez izatea eta horretarako bide ezberdinak hautatu dituzte, hautatu. Izan ere, esan liteke, hain naturalizat eta nabarmentzat jo izan dela ama bihurtzeaz bat mundu publikotik irten beharra, non gizabanakoaren libertatearen aldeko apustuak artearen aldeko apustuari ere irabazi izan dion. Erabakitakoa erabakirik ere, izugarritzeko etena eragin du gaiak emakumezko idazle, pentsalari eta artista askoren bizian.

Ezin da emakumezkoen estatusuna ulertu molde askotan ezarritako emakumezko ereduaren funtsaz jabetu gabe; bai erlijio katolikoak Ama Birjinaren bidez ezarritakoarekin eta baita, gurean, eten gabeko krisian bizi izan den Euskal Herri bati emandako etantzunarekin ere. Molde guztietako galeren aurrean eraiki eta transmititu den amatasunaren ama-eredu babesle eta oro-ulertzailea eraiki dute euskal letrek (Amerikarako emigrazioaren eraginez, arrantzaren arriskuen eraginez, karlista-guduetan sortutako galeraren eraginez...)

25 Amaia Alvarez eta Gema Lasartek koordinatutako “Gorputza eta generoa, euskal kulturaren eta literaturaren” erreferentziako lana da, gorputzari eta generoari buruz aritzeko. Bat egiten dut Meri Torrasek bertan planteatutako marko teorikoarekin, eta orokorrean bertan ematen diren iritziekin. EHU. 2012. <https://webargitalpena.adm.ehu.es/pdf/UHWEB127185.pdf#page=6&zoom=auto,-193,453>

26 Aurrerantzean adimenaz ariko naiz, zentzuekin lotutako kontzeptua eta beraz kontzeptu materialagoa denez. Adi egotea arreta paratzea delako, usainak eta hotsak aditu egiten direlako, adi jartzea ulertzeko bidea delako.

27 ESTEBAN GALARZA, Mari Luz; HERNÁNDEZ GARCÍA, Jone Miren *Etnografia feminista Euskal Herrian*. XXI. mendera begira dagoen antropologia. Bilbo. Euskal Herriko Unibertsitatea - Udako Euskal Unibertsitatea, 2016., 27-43/ 121-139.

28 Euskal kasuan lehen hurbilpen bat egin zuen J. M^a Torrealdaik, 1997an 408-410.or.

Alde batetik, irakurle eta emakumezko bezala jasotako irudi eta ereduaren zama askatzeko beharragatik, eta bestetik, emakumezko eta idazle gisara sortu beharreko irudi eta ereduaren beharragatik eta gogoagatik, ezinbestean, modu anitzean erantzun zaio amatasunaren eta emetasunaren auziari.

Jasotako ereduak ondo frogatua dago idatzizko euskal literatura historian eta kulturaren. Ama Birjinaren ereduak etenik gabe landu izan da euskal literaturaren historian zehar. Zehaztasunera iristeko asmo gabeko erakustaldi bat eman lezake gaia jorratu duten elizgizonen zerrenda labur honek (Argiñaratz²⁹, Gazteluçar³⁰, Harizmendi³¹, Alexander Mihura³², Juan Bautista Agirre³³, Joannes Etxeberri³⁴, Kandido Basabe³⁵, Francisco Goñi³⁶, Emmanuel Inchauspe³⁷, Kardaberaz³⁸, Salbatore Mitxelenaren gerraosteko liburutegiazari hasiera eman zion *Arantzazu*³⁹ poema liburua...). Eta, aldi berean, bide berbera jorratu dute idazle laiko gehienek ere (Oihenarten "Eguberrietako koplak"⁴⁰, Peñafloredako kontea⁴¹, Felipe Arrese Beitia⁴², Alfontso Maria Zabala⁴³, Lauaxeta⁴⁴, Gurutz Sarasola, Lotsati⁴⁵, Joxe Mendiague⁴⁶...)

Hiztegiak arakatu orduko ere, *ama* hitzera joz gero berehala agertzen da euskal literatura osoan ageri diren Ama Birjinari buruzko aipamen guztiak. Kasu, hartu Koldo Mitxelenaren *Orotariko euskal hiztegia*. Ireki AMA⁴⁷ hitzaren parean. Berehala, laugarren azpisailerako, ageri da *Ama Birjina*. Eta honela dio "Nombre que se da la Virgen y a sus imágenes. * Tr. Más empleado entre escritores peninsulares, ya que entre los continentales alterna con *Andredena Maria* (q.v.), desconocida en tiempos recientes, en el Sur. v. ANDRE MARIA." Beste zerbaiten bila abiatu arren, berehala etortzen da burura inguruko hizkuntzetan Birjinaz ari denak, Jainkoaren ama deritzola, Agur Marietan. Eta euskaraz, aldiz, Birjinari *ama* deitzen zaiola, bereziki; Izango dira (*Andredena Maria* edo *Andre Maria*, frantsesez *Notre dame* bezala, edo gaztelarazko *Nuestra Señora*, edo italierazko *Madonna*, baina ez *Ama Birjiña*).

Idatzizko tradizioan ez bezala, bada ama txarrik eta gaizkigilerik ahozko literatura tradizioan, ipuinetan⁴⁸ eta baladetan, batez ere. Hor da, Uztarrotzen lastoz betetzen zen Amanditxarkoren tradizioa ere, baina, azpimarra dezagun, ama txarra dela ama onaren ereduaren ifrentzu salbuespenezkoa, kasu honetan⁴⁹.

29 *Debotoren brebiarioa* liburuan, "Andredona Mariari dedikazioa" <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/A/ArgainaratzDeboten002.htm>, Gai honi buruz, jarraian egindako kontsulta guztiak 2019-8-24an egin dira, eta ez dut hurrengo oin oharretan errepikatuko.

30 *Eguia catolicak salvamendu eternalaren eguiteco necesario direnca* (Lino Akesoloren edizioa). Euskaltzaindia, 1983. Laugarren partean <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/G/GazteluzarEgia018.html>

31 *Ama Birjiñaren ofizioa*, <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/H/HarizmendiOfizioa.html>

32 *Andredenaren imitazioa, Jesus-Kristoren imitazioaren gañean moldatua* <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/M/Mihuralmitazioa.html>

33 *Birjiña txit santa gure bekatuagatik naigabez beteari bederatzirrena edo Azal barnea* <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/A/AgirreAErakusBirjina.html>
<https://klasikoak.armiarma.eus/cgi-bin/bila.pl?testua=birji%F1a>.

34 *Noelak* liburuko i abigarren parte osoa <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/E/EtxebZibuNoelak016.html>

35 *Andramariaren ezkutua* <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/B/BasabeEzkutua.html>

36 <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/G/GoniAgertziak.html>

37 <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/I/IntxauspeHilabetia.html>

38 <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/K/KardaberazEjertzioakIV045.html>

39 <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/M/MitxelenaSArantzazu.html>

40 <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/O/OihenartNeurtitzak021.html>

41 <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/M/MunibeSariak002.html>

42 *Ama Birjiña Aranzazukoari kanta, Ama Birjiña Aranzazukoari agurrak, Agurrak Ama Birjiña Karmengoari, Ama Birjiña Aranzazukoaren laguntasuna* <https://klasikoak.armiarma.eus/cgi-bin/bila.pl?testua=birji%F1a>

43 Ondarribi'ko ama Guadalupearen kondaira <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/Z/ZabalaAMGabon008.htm>

44 "Begoña'ko amari", *Ama "Gaxoa"* <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/L/LauaxetaSolteak.htm>

45 "Arantzazu'ko Ama Birjiñari" <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/L/LotsatiPoemak003.htm>.

46 "Amak eta semeak elgar kausitzea" <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/M/MendiageKantak025.htm>.

47 Bilbo: Euskaltzaindia, 1987, l.t. 841.or.

48 IÑARRA GARCIA, *Maria Jesus Hilketak Azkue eta Barandiaranen ahozko ipuin eta ele zaharretan*. Madril: UNED, 1994. tesia

49 *Amanditxarko*. (R-uzt), espantajo. A. "Estas eran las primeras señales de la llegada del carnaval, los tres días del reinado de Amanditxarko, la extravagante abuela vieja rellena de paja que se colgaba entre dos casas, para al final llevarla al baile y deshacerla a palos" MITXELENA, K. *Orotariko euskal hiztegia*. Aip. ob. l.t. 877.or.

Ironikoki hitz egin baliteke, ezin bekatu larritzat hartu, emakumezkoak dogmatik desagertzea, Eliza Katolikoak eragina baita, gure kulturari. Ama da Hirutasun Santuaren dogman desagertzen dena, familiak santu izateko (eta ez arrunta) aitak eta semearekin izpirituarekin bakarrik lortu dezaketenez santutasuna, alegia, ama ordeztuz. Hirutasun santua da emakumezkoa estaltzen duen egia katoliko nagusia⁵⁰. Bestalde, Eliza katoliko osoan bezala, euskaraz gutxi dira Bibliako bestelako emakumezkoei buruzko lanak, Ruthen liburuaren hainbat itzulpen salbu⁵¹.

Ama bihurtutako eme gisara aurkeztu du euskal literaturaren historiari emakumezkoa, XX. mendearen hirurogeita hamarreko hamarkada arte. *Ama Euskarari* kantatu zioten euskaldunek foruak galdu ostean, *Ama Euskadiri* guda guztietan galtzaile sentitu direnek... Ez dauka, bada, tatxarrik, ama izateak; hartaraino non euskal kultura berpizteko saioan *Amalur* deitu izan zaion gure lurrari, *Euskal Herria* esan ere ezin zenean⁵².

Honenbestez, argi da, *amaren* arketipo babeslearen irudia zabaldu dute liburuek euskal munduan. Hala ere, Belen Altunak argi adierazten duen bezala, frankismoaren aurkako borrokaren ondoren “*euskaldun fededun esapideak bere zantzu guztia galdu du*” honezkerok.

Zerikusi handia izan dute ikuspegi aldaketa horretan euskal emakumezko idazleek ere. Gogoratu besterik ez dago Amaia Lasak bere burua definitzen zuela erlijio guztien kontra idazten zuen emakumezko gisara, Arantza Urretabizkaiaren *San Pedro bezperako ondorengoak* poemetako batean haurrak sentitzen zuela jaioteran ez zela aitak behar zuen semea, *Zergatik Panpoxen* gailendutako ama baten bakarriketa aldarrikatu zuela⁵³, edo arestian aipatutako Amaia Zubiriak egin duen “*Agurtzen zaitugu ama*” kantu ederra⁵⁴.

XX. eta XXI. mendeetan hainbat egilek amatasunaren gaia oso modu ezberdinetan erabili dute, eta batzuen amatasun esperientzia emankorra eta baikorra izateak, ez du esan nahi guztienak horrela behar duenik eta ez da gutxiago ere. Azken urteotan ama-izatearen konplexutasunaren lekuko izan daitezke Jasone Osororen *12etan bermuta*, edo Mari Luz Estebanen *Amaren heriotzak librea egin ninduen*. Ez da, noski, emakumezko idazleek bakarrik hautsi duten tabua, ez dezagun ahantzi Joxean Artzek ere altxatu zuela euskal familia tradizionalaren aurkako ahotsa bere poesian... eta sehaskantetan hamaika amak kontatzen dizkiola penak ulertzen ez dion umeari. Gaurko egunera etorrita, 2019ko ekarpenik interesgarrienetakoa Lone Gorostartzuren *Ez da erditzea*⁵⁵ izan daiteke, bakarra ez den arren.

Baina ahozko tradizioaren iturriak ondo jaso eta interpretatuak izan balira, lehenago egingo zen bidea. Izan ere, arestian aipatutako kasu bakanez erakusten duten bezala, ahozko tradizioan bada, Mari Murumendikoak bere amatasunari uko izanaren zantzurik, J. M. Barandiaranek jasotakoaren arabera. Baina horretaz ez da larregi teorizatu. Litekeena ere bada, bere umeak mundurako utzi zituen Mari jainkosari alderatzeko Maria ez zela izenik aiposena (Mari/Maria). Kontua da idatziz **eta hainbeste mendez jasandako bortxa, biolentzia eta guda artetik ere, Birjinaren kasuan ere, amatasunak, mendebalde osoan bezala⁵⁷, ama babeslearen irudia errotu duela euskal kulturari.**

Mendeetan ama/eme kontzeptuak berdindu ostean, ama/eme arteko talkatik atera eta aniztasuna, osagarritasuna eta eredu berrien bilaketak zabaltzen ari diren lanei ere ikuspegi askeaz egin behar zaie harrera, kasu honetan, noski, aitasuna alboratu gabe, berdintasunaren izenean eta berdintze aldera. Jaiokoa dira berriak.

⁵⁰ Jean Martin Hiribarrenek argitaratu zuenean, mirakuluki, hirutasunaz ari zenez, ez zuen Ama Birjina, Ioriatu. *Eskaraz egia Pater, Verbum, et Spiritus-Sanctus; et hi tres unum sunt. Aita, Semea, eta Izpiritu-Santua; hirurak bat*. Baiona: 1858.

⁵¹ <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/A/AnonimRuthLlodio.htm> [2019-8-25ean kontsultatua]

⁵² *Ama lur* filma herri-harpidetza finantzatu zen 1966an, eta zentsurarekin lanak izan zituen.

⁵³ Gema Lasartek aztergai du Zergatik Panpoxeko ama bere tesian *Pertsonaia protagonista femeninoen ezaugarriak eta bilakaera euskal narratiba garaikidean*. EHU. Laburpen ona gazteleraz “*La maternidad en el imaginario de las escritoras vascas*” [https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/8333/Lasarte.pdf?sequence=1]

⁵⁴ AGURTZEN ZAITUGU AMA. *Agurtzen zaitugu ama alaba arrea emazia/ alargun Abe Maria graziaz bete betia./ Jainkoak sartzen du hozia emazte birjina barnean / gizonak bere erraetan utzi baino lehen bizia./ Gizon itxura har nahiean ez zuen aurkitu besterik/andregandik jaiot behar jainkoa izanagatik./Ahalguztidunak nork daki zer nolako eskrupulotan/ ukatzen den sortutzea emazte ikutueta./ Seme santuaren ama alaba arrea emazia /alargun Abe Maria graziaz bete-betia./ Horrelako emakumerik ez da munduan besterik / heriotza eta gizonen izorratu gabekorik./ Aspaldi mundua hustua eta zeruan kabitu ezina/ ginake Ama Birjina denok birjina bagina. <https://lyricstranslate.com>.*

⁵⁵ Donostia: Elkar, 2019

⁵⁶ ESTORNES LASA, Bernardo *Mundua Euskal Erriaren gogoan*. Zarautz: Auñamendi, 1969

⁵⁷ DELUMEAU, Jean *Rassurer et proteger. Le sentiment de sécurité dans l'Occident d'autrefois*. Foyard, 1989

Baina bitartean, desberdintasunaren eta menpekotasunaren egiturazko arrazoiei begiratu gabe, pentsalariak ezin du aldaketarik igarri aldaketari ez baizik eta aldagaiei bere bakantasunean begiratuz gero. Liburuetatik kultur-ingurunera iraganik, emakumezko eta gizonezkoen askoren bizimoduan familia izateak (amatasunak edo aitatasunak) izan duten eta duten eragina aintzat hartu gabe ere ezin dira idazleen-sormenaldiak ulertu, ez maila-pertsonalean, eta ez gizarte mailan ere.

Eta horrenbestez, euskal letren sistemaren berrikuntzan pentsatzeko, emakumezkoek sortutako obra luze bat zokoratua, isildua, debekatua eta gaizki irakurri izanaren arrazoiak eta bere egituraketa aztertu eta gizarte-sisteman kokatzea eskatzen du. Oraingoan –baina oraindik–, bereizketa eta gutxiespenaz elikatzen den kultura indarrean eta indartsu errotua baitago gure pentsamendu eta mundu sinbolikoan.

3.5.2. Lan harremanak, sexu bereizketa eta harremanen birtualizazioa

Esan bezala, genero-bereizketa emakume izatearen gutxiespen fisiko, psikologiko, juridiko eta politikoarekin lotu-lotua dago. Bereizketa hori mendebaldeko literatura osoan isladatzen da, emakumezkoen gorputza errudun bihurtuz, gorputza bekatu-eragile dela argudiatuta.

Baina oinarrian, lanaren historiarekin lotu ohi da genero-menderakuntza. Lan-harreman horietara egokitzeko giza-gorputzak maneatzeko direnez, geure gorputzei buruzko ikuspegia ere eraldatu ohi dute, eta prozesu mekanikoak giza-gorputzaren erritmoa ordezkatu du⁵⁸.

Lanak emakumezkoetan eta gizonezkoetan eragin duen bortxa fisikoaz gain, bortxa sinbolikoa ere eragin du, batez ere diskurtsoaren bidez⁵⁹. Eta XVII. mendetik aurrera, sexualitateari buruzko leherketa diskurtsiboa gauzatu eta puztu egin da gizartean. Horretarako, sexu eta gogoa izendatzea galarazteaz

bat, metafora eta alusioa indartu izan da; gero, sexualitateari buruzko diskurtso egokituak⁶⁰ biderkatu ditu botereak; eta azkenik, andre-gizonen arteko harremanetarako, ezkontza bakarrik onartu dute estatuek, ezkontzaren monopolioaz kanpo edozein harreman galaraziz⁶¹.

Egoera horrek, lanaren bidez, gorputzaren kontrola ahalbideratu du, eguneroko ordutegiak eta lanekoak sinkronizatu, gorputzaren aldiak eta zikloak estaliz, eta eguneroko bizitzaren pertzepzioa mekanizatu, automatizatu eta berdindu. Mende luzez, gorputzaren derrigortutako kontrol honek fetitxizazioa, nartzisismoa eta isolamendua bultzatu ditu mendebaldeko antolaketa industrialaren eraginez.

Lan-harremanen bidez sexuak bereiztea lortu ahala egituratu da genero-bereizketa. Azken hamarkadetan, gainera, **gorputzaren eta sexualitatearen identifikazioa muturrera eraman da; azkenean, gorputzaren gaineko bortxa ikuskizun⁶² bilakatuz eta libertatearen izenean sexualitatearen bizi-pena hutsalduz.**

Feminismoak eta askapen-mugimenduek eragindako askapen sexualaren bidez, gizakion gorputzaren kontzientzia naturalago, materialago, askeago izateko aukerak zabaldu direnean, ordea, **IKTen hedapenak arras eraldatu ditu giza-harremanak** hamarkada pare batean.

Azken hamarkadetan denbora-espazioari buruzko gure ikuspegia ere eraldatu egin da sare sozialen eraginez. IKTek norbanakoa eskakizun berrietara bideratu dute, denbora osoan eta edozein tokitan egonik ere, erantzuteko prest egoteko aukera zabaldu orduko⁶³. Sare sozialekiko menpekotasuna, gizarte-fenomeno izatera iritsi den heinean, esan liteke dagoeneko kokapen erreala erreferentziala izateari uzten diola eta denbora-espazioak gertatzen denaren lekukotasuna emateari utzi diotela, neurri batean. Horrekin batera, berriro, gorputza ahuldu egin da —ulermen eta irizpide emateko oinarri material gisara— eta zentzumenez (usaimenak,

58 ARENDT, Hannah *La condición humana*. Paidós, 1916.

59 FOUCAULT, M. *Histoire de la sexualité*. (1. *La volonté de savoir*. 2. *L'usage des plaisirs*. 3. *Le souci de soi*). Paris: Gallimard, 1984

60 FOUCAULT, M. *La volonté du savoir*, aip. ob. 25-50.or

61 FOUCAULT, M. *Le souci de soi*. aip. ob., 193-216.or.

62 SENNETT, Richard Aip. ob.

63 HUICI URMENETA, Vicente; DÁVILA LEGEREN Andrés "Del Zoon Politikón al Zoon Elektronikón. Una reflexión sobre las condiciones de la socialidad a partir de Aristóteles" in *Política y Sociedad* 53, 3, 2016, 757-772. http://dx.doi.org/10.5209/rev_POSO.2016.v53.n3.50776

ukimenak...) errealitatean kokatzeko funtzioa galtzen jarraitzen dute, industrializatua izateaz gain birtual egin den errealitatean. Eta horrela, mendebaldeko antolaketa industrialean langileria makinaren hegal bilakatu ondoren, aro berri honetan gizakia errealitate birtualeko hegal bilaka daiteke, aktante hutsaren pareko, norbere bizitza errealaren digitalizazioa bere adierazpide nagusi⁶⁴ bilakatu ahala.

Hamarkada pare batean IKTen abiadak harreman eraldaketa sakona eragin du, azkenean; berehalako ondorio positiboekin epe laburrean, baina oraindik aztertu ez diren bigarren mailako albo-kalteekin ere bai, ziurrenera.

Idazle sortzaileen ikuspegitik, alegia, **irakurketak behar duen gelditasunaren ikuspegitik, irakurketarako eta arte-gozamenerako ezinbestekoa den arreta albora uzteko joera indartu egin da;** emakumezko idazleen ikuspegitik menderik mende galarazitako adierazpen eskubidea lortu ondoren, berriro barne-hitza hutsaltzen dela senti daiteke, neurri handi batean. Bizitza erreala digitalizatu ondoren, kanpo-irudia bizipenen ikurtzat hartuz, geure barnean izan diren ahotsei eta formei egituratzeko, onartuak izateko, ulertuak eta barneratuak izateko arreta-denbora kalitate gutxiagorekin gera gaitzkeela pentsa genezake.

Esan liteke, hein batean, Virginia Woolfek bere obra osoan nabarmendu zituen giza-antzezpenean trebatutako **pertsonaiei, orain, barne-bakarrizketa eta bizipenak ukatzen zaizkiela,** eta begirada birtualak ordeza dezakeela gizakion barne-begiradak behar izaten duen tokia, zoon elektrikoak zoon politikoaren tokia har dezakeen bezala.

Esan liteke, amaitzeko, guk digitalizatuta betiketzen diren uneei begira, orainean finkatu beharrak geure bizimoldean eragiten dituen aldaketetatik ihestea proposatzen digula etengabe; denbora bera *ezgaituz* edo desaktibatuz, **presentea ondoriorik gabekoa balitz bezala bizitzeak denbora eterno dela adieraziz, eta eternoak et-ernaldirik behar ez balu bezala.**

Edo ez, aintzat hartzen baditugu egoera berriak: biziz, sentituz, eraldaketaren lekuko ez ezik subjektu izanez. Zeren eta bestela, **iraultza birtualak gorputzen ikusgarritasuna biderkatzeaz⁶⁵ bat ikus-entzunezko emankizunetarako prestatuko du gorputza⁶⁶;** eta gorputzen materialtasuna deseginez, bizitzaren eredu bilakatuko dira ispiluaren beste aldean bizi diren pertsonaien gorputzak; eta pantailetan gorputzak, etengabe, mugitzen direnean, gorputzek beren berri ematen dutenean, gorputzari buruzko hitzik gabeko begirada mutua zabaldua izango dute etengabe egunerokotasunera.

Edo ez, guzti honekiko gorputzak eta gogoak bizipen bilakatzea lortuz gero; edo ez, testuinguru honetan geure gizarteari **gogoraraziz naturalak garela geure kultura edozein dela ere; gogoraraziz, hilkor izanagatik errepikaezin garelako jaiotzen garela; gogoraraziz, naturara begira bizitzeko geure gorputzen sena behar dugula, eta, horretarako, geure nortasunak ukitzea, aditza eta arnasa hartzea ezinbesteko dituela. Bizi ahala baizik ezin dugula idatzi, alegia.**

⁶⁴ "It is the true digitalisation of real life" TSN 1:43:13, HUICI URMENETA, Vicente "Crisis y zoon elektronikón (Reflexiones sobre "La red social" de David Fincher, 2010)" artikuluan jaso zuen bezala. *Culturas 11. Edición especial*. <https://bibliotecavirtual.unl.edu.ar/publicaciones/index.php/.../10224/>

⁶⁵ "Parece haber un acuerdo en la literatura femenina a que lo que podríamos denominar la hipervisibilización del cuerpo femenino en Occidente es negativa para las mujeres. [...] La hipervisibilización que, podríamos caracterizar también como una especie de hipertrofia del cuerpo, no tiene porque ser siempre interpretada en claves negativas[...], la dimensión física del 'empoderamiento' de las mujeres". ESTEBAN, M. Luz. *Antropología del cuerpo*. Aip. ob. 253.or.

⁶⁶ Eta bereziki, orain ere, neska eta emakumezko gazteena.

3.5.3. Gorputz eta gogo: gogoetak


Ez diogu denok edozein egoera zahar eta berriri batera modu berean erantzuten. Adibidez, Elaine Showalterek⁶⁷ emakumezko eta literaturari buruz ari denean, logika handia duten hiru fase bereizten ditu, gizarte horretan nagusi den ideologiaren aurrean. Showalteren arabera, feminismoaren lehen aroa da imitazio aldia, emakumezkoek gizonezkoek egiten dutena imitatzen dutena (1840-1880); bigarrena, beste berrogei urtez (1880-1920) erantzun edo kontra egiteko aldia; eta azkena, 1920az geroztik, norbere ezagutza eta adierazpena aurkitzeko aldia.

Testuinguru zabal horretara behartuak izan gara emakumezkoak ere, eta ez diogu denok berdin erantzun.

Eta, hala ere, Eider Rodriguezek argitaratu berri duen liburuan hamaika aldiz irakurtzen da euskal emakumezko idazleok emakumezko objektu izateari ihes egiteko, gorputza alde batera utzita garelako idazle edo bertsolari⁶⁸. Bitartean, erabakitzen dugu **gure kultura sisteman diharduten beste horien parean nor azaldu ahal izan arte behar dugula parentesi bat**; onartzen dugu idazten eta esan nahi duguna aintzat hartuaz epaituak izateko borroka; eta eskatzen dugu, batez ere, normaltasun parametroetan irakurriak eta ulertuak izateko beharra, XXI. mendean ere.

Ezin esan liburu horretan parte hartzen dutenen iritzia bakarrik denik, euskaraz idazten duten emakumezko gehienak, gaia aipatzen dutenean, antzera mintzo direnez. Gorputzaren eta amatasunaren gaia erabiltzeak gure obraren gaineko ikuskera aldarazi dezakeelakoan, geure baitarako uzten dugu hain garrantzi handia izan dezakeen gaia.

Zoritxarrez, ideologia horrek bereizi egin ditu adimena eta gorputza; ahaztuz, ez dela posible, gizakion artean, gorputzik gabeko adimenik. Eta, zorionez, oinarri finkoak errepikatuz zabaldu eta finkatu den ideologia honen aldean, zabal daiteke bestelako ikuspegirik. Barandiaranek kulturari buruz emandako definizioari ekin genezaioke, adibidez. J.M. Barandiaranen⁶⁹ arabera, gizabanakoek eta giza taldeek bizitzeko dituzten oinarriko premiak zazpi sailetan bana daitezke⁷⁰. Kategoria horien arteko elkarreragina aztertzeko adierazpide aparta da Euskal curriculumean barneratzeko sortutako ondorengo irudia⁷¹, geure bizipenak geure gorputzaren eta geure bizitzaren beharrei aurre egiteko modua erakusten duena:



⁶⁷ SHOWALTER, Elaine *A Literature of Their Own. British Women Novelists from Bronte to Lessing*. Londres: Princeton University, 1999.

⁶⁸ RODRIGUEZ MARTIN, Eider *Idazleen gorputzak. Egiletza ezbaian literaturaren joko zelaian*. Donostia: Susa. Lisipe, 2019.

⁶⁹ BARANDIARAN AIERBE, J.M. *Euskal Herria. Diapositiba bilduma*. Donostia: SEIE-GIE, 1985.

⁷⁰ "Nola lortuko ditut janari-edariak eta osasuna? Galdera horren erantzuna inguruneak eskaintzen dituen aukerei lotuta dago batetik, eta ingurunearen eta gizakiaren elkarreragi-nari, bestetik; gizakiak, ekoizpen ekonomikoaren, merkaturatzearen, teknologiaren eta abarren bidez, oinarriko behar horientzako kultur irtenbide espezifikoak aurkitzen ditu. - Nola babestuko naiz? Giza taldeek bizitza, janzkera... moduen bidez erantzuten diete behar horiei, baita defentsa moduen bidez ere. - Nola lortuko dut mundua ezagutzea eta behar ditudan materialak eta indarrak nire esku jartzea?"

Galdera horren erantzuna giza taldeen eta gizateriaren zientzia eta teknologia garapenaren historian daude. - Nola lortuko dut nire parekoen laguntza eta nola antolatuko dut gizarte bizitza? Behar horren irtenbideak sortu ditugun gizarte antolaketa dira: familia, auzoa, herria, herrialdea, estatua, nazio komunitateak, eskolak, sindikatuak, elkarteak, etab. - Nola komunikatuko naiz nire kideekin? Behar hori hizkuntzen eta komunikatzeko bitartekoen bidez betetzen da, eta hizkuntza idatzia eta ahozkoa dira komunikazio modurik garrantzitsuenak. - Nola egingo ditut atsegin eta gustuko ditudan gauzak? Behar hori plastikaren, musikaren, dantzaren, joku/jolas eta abarren bidez gauzatzen da. in *Derrigorrezko eskolaldirako Euskal curriculumua. Oinarriko Txostena*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, Ikastolen Elkarte, Kristau Eskolak, Sortzen -Ikasbatuaz, 12. or.

⁷¹ *Derrigorrezko eskolaldirako Euskal curriculumua*, aip. ob. 13. or.

 1. irudia: EUSKAL KULTURAREN DEFINIZIO DINAMIKOA



Iturria: Derrigorrezko eskolaldirako euskal curriculuma

Norberak bere balioetatik abiatuta gutxi-asko berdefini ditzakeen galdera hauek elkarren eragile dira, eta gizakiaren izatea eta biziraupena ahalbideratzeko norberak erantzun beharrekoak, bere kultura horretan sortzen den gizartean parte hartuz.

Hala ere, gehienetan, kulturaz mintzo garenean bosgarren puntutik abiatzen gara mendebaldeko gizarte modernoetan, aurreko guztiaren ardura antolaketa politikoari transferituz (elikadura, osasuna...), eta geure gorputzaren zaintza eta ardura ere besteen esku uztea normalizatzen.

Baina, funtsean, **edozein kultura partekatzeak (euskalduna, adibidez) ez du adierazten *izaera bat* partekatzen denik, baizik eta batera bizi ahal izateko onarpena ematen dela; kultura, *izateak* eta bizi-irauteko aukerek definitzen baitute, eta ez gizakiaren nolabaiteko izaerak. Izatea geure gorputzetan bakarrik gauzatzen da, eta ezinezkoa da geure gorputzen premiak alboratuz mundua eta gizartea ulertzea, eta, gutxiago, norabide jakin baterantz eraldatzea.**

Honenbestez, eta egiazkoa izanik ere geure gorputzen aurkako bortxa, geure gorputzen kontzientzia ezin da bortxaren edo bortxaren arriskuaren kontzientziara mugatu, eta ezta geure gozamenaren adierazpen hutsera ere.

Gorputzaren kontzientzia zabaldu ahala zabaltzen dira gogoa, gogamena, adimena⁷²; ezinbestean, gorputzek jartzen baikaituzte harremanetan norbanakoa ez den guztiarekin, zentzumen guztiaz.

3.5.4. Jaiotzaz eta berriz hasteaz

Geure gorputzaren kontzientzia hartuz idaztea bizi ahala idaztea dela aldarrikatu orduko, emakumezkook erditzeaz ari beharko genuke behin baino gehiagotan. Baina hara nola, askotan, geure sorkuntza-lana bere horretan aztertua izan dadin, iruditzen zaigun ama izateaz mintzatzeak, ama izateak adierazteak gustuko ez dugun trataera bat ekarriko digula... eta bizipen garrantzizkoa izan daitekeena gordetzen dugun.

⁷² GARCIA GRADOS, Carlos "Hala ere, ikusmena erdigunean duen soslai sentsorial begizentrikoa ez da etnozentrismo mota baten erantzuna bakarrik, baita androzentrismo mota batena ere. Luce Irigaray maskulinitatearen eta ikusmenaren eta feminitatearen eta ukimenaren arteko loturak azaleratu zituen: «Begiradaren setioa ez dago emakumeengan gizonetzkoengan bezain pribilegiatua». Eta gaineratu zuen: «Emakumeek, euren aldetik, begiradaren inperioak baztertu, zentsuratu eta gutxietsi dituen zentzumenen antzinako estratifikazioak gordetzen dituzte» (1985: 41). Era horretan, Irigarayren arabera, objektibatzen, mendearen hartzen, urruntzen eta distantziara mantentzen dituen begiradaren aurretik, ukimena izango litzateke emakumeek lehenesten duten zentzumena. Bide horretan, Donna Haraway-k (1995) adierazi zuen ikusmena desharagitu egin zela, betiere begirada jakin baten mesedetan: konkistatzailea, tokirik gabekoa edo deslektua, eta teknologiazalea. Begirada horrek, zientziaren, militarismoaren, kapitalismoaren, kolonialismoaren eta nagusitasun maskulinoaren testuinguruan, ezagutzaren subjektua ezagutzako objektutik urrutizko gaitasuna zuen, baita subjektu-posizio hori ezkatutzekoa ere, boterea oztoporik gabe erabili ahal izateko.

Zentzumenen antropologiatik, Classen-ek (1998) adierazi zuen harreman historiko estua zegoela mendebaldean zentzumenei eta modernitate aurretik datorren generoari ematen zaien ordenaren artean. Lotura hori frogatzeko Classenek erakusten du zentzumenen inguruko irudimenak eta estereotipoak, era estereotipatuan, identitate- eta genero-rol ezberdinak sortu eta adierazteko erabili direla. Identitate eta genero-rol horien bitartez maskulinitatea ikusmenarekin erlazionatu da, behintzat zentzumen horren eta besteen alderdi positiboekin". in *Etnografia feministak*. Aip. ob. 179.or.

Mari, Murumendiko harpean bizi zen dama, ilea gari kolorekoa zuena, Aralarko urei begira ilea orrazten zuena, halako batean, Beasain mendiko mutil batekin ezkondu omen zen.

Elkarrekin denboratan bizi eta hamar seme-alaba izan omen zuten, baina Mari ez omen zen elizara etortzen eta senarrak haurrak bataiatu egin nahi omen zituen.

Hamargarren haurraz erditu eta haurrondoan zela baliatuz, gizon horrek, hartu ume guztiak, lotu Mari guri-ardatzean eta Beasain-menditik behera omen zekartzan.

Marik bere burua hala behartuta, estutasunean esan omen zuen “Ne(re) ume(a)k mundu(r)ako (e)ta ni Mu(ru) mendi(r)ako”, eta hori esanaz bat senarrarekin izandako familia utzi, su hartu eta gar bihurtuta, Murumendiko harpera itzuli omen zen, lurraren errailetara.

Iturriak: Zaldibian 1978an eta J.M. Barandiaran

Ez da harriztekoa, izan ere, emakumezkooi hainbeste mendez adierazi zaigu nolakoak behar duen amatasunak, non kontrako eztarririk pasa eta itomena eragiten duen gaiak, oraindik ere. Baina, beste askotan bezala, zergatik ez mintzatu geure jaiotzaz edota ama izateaz, eta ez amatasunaz, Mari Murumendikoa bezala?

Eta bestalde, artistaren bizitzaren erdigunean sortzea jartzen denean, gizon askok bezala emakumezko askok ere haurrak heziko dituen familia osatzearekiko erreparoa eta zalantzak adierazten dituzte, eta bateraezintasunaren aldarrikapena egin duen korronterik ere bada. Euskal kasuan lehen hurbilpena egin zuen J.M. Torrealdaik 1997an⁷³.

⁷³ Gure artean, TORREALDAI, J.M. *Euskal Kultura gaur: Liburuaren mundua*. Oñati: Jakin, 1997, 408-410.

⁷⁴ RANK, Otto *El trauma del nacimiento*. Bartzelona: Paidós, 1981. *El nacimiento del héroe*. Bartzelona: Paidós, 1981.

⁷⁵ *El concepto de amor en San Agustín*. Madrid: Eds. Encuentro, 1996.

Hainbat emakumezko ezinbestean baliatu behar da gorputzaz arte-adierazpiderako. Idazleok hizkuntzaren bitartekaritzaz baliatzen gara, errealitate modu diferituan adieraziz. Eta ez ote dugu ama izan ala ez, geure gorputzaren ezagutzaren eta senaren bizipena ekarri behar gitzetara? Logika beraren aurkakoa da gai honi buruzko zentsura eta auto-zentsurarik onartzea.

Jaiotzaren beste muturrean heriotza dago. Ama izatea bezain naturala, baina ama izateak ez bezala, ezinbesteko etena ezartzen diona bizitzari, jaiotzak eragindako etenaren pare.

Bitarte horretan, geure gorputzak geure bizitzan zehar eta geure bizipenen arabera eraldatzen dira hil arte, eta giza-denboraren dimensio horren kontzientzia ere gorputzaren kontzientzia da.

Zentzu horretan, geure gorputzen kontzientzia berritzeak irauli dezake edozein unetan sorkuntza prozesua.

Sortze-prozesua hain izan daiteke eraldatzailea norberarentzat, non idazle askok (Rilke, Lou Andreas-Salomé, Virginia Woolf...) eta beste hainbatek **aldarrikatzen zuten idazleen gogoak, adimenak androginoak direla...** neurri batean Jainkoak, Genesian, *andre-gizon* sortu omen zuen gizakiaren pareko. Izan ere, jaiotzea berez dator, erabat da naturala jaio den ororentzat, eta birjaiotzak norbanakoa beste hasiera horretaz jabetzea dakar, berrikuntza erabatekoa, eraberritzea.

Heroi mitologikoen artean salbuespenezko jaiotzek⁷⁴ duten balio sinbolikoaren inperpretazioaz gain, hasiera emankorra proposatzen du Hannah Arendtek⁷⁵. **Jaiotza da oinarri edo hasiera, zeren eta gizaki oro berez baita hasiera eta, neurri horretan, bere gizarte eragina aurreikusi-ezina den heinean, hasiera arrunt bezain bakan, bakar eta bakoitia.** Jaiotza orok, besteen artera edo *giz-artera*, sekula garatu ez diren aukerak bultzatzeko aukerak sortzen ditu, beraz. *Giza-kondizioan* dioenez, jaiotza oro ustekabeko berritzailea ekartzen duen jaiotza bikoitza da: norbere jaiotzaren eta gizarte eraginaren berriztapena lotu ditzakeena. Eta Hannah Arendtek ondorioztatzen duen bezala, ikuspegi honek erakusten du aurrera egiteko, geure izatearen oinarria ez dela etorkizuna, iragana baino; ez dela heriotza, jaiotza baino.

Geure gorputzak ulermenaren eta adierazpideen oinarrian jarrita, Luce Irigarayk zioen bezala **“Garrantzizkoa da geure gorputzak zaintzea, isiltasunetik eta menderakuntzatik ateratzen ditugun bitartean. Historikoki, gorputz-zaindariak gara, ez dugu zaintza hau albora utzi behar”⁷⁶ “.**

Emakumezko gisara hainbat galdera erabat erantzun gabe dago oraindik baita, diskurtso mailan ere. Gai honi buruz badagokigu **hiru galdera hauei geure bizipenetatik, geure buruen jabe izanik, geure sorkuntza-lanetan erantzuten saiatzea:**

- 1 Nola eraldatzen da gure sortze-prozesua denboran zehar eraldatzen garen heinean?
- 2 Ikusgarritasunik ba al da emakumezko sortzaileen artean gorputzaz beste ere egingez gero?
- 3 Egungo gizartean, aski al da eredu patriarkalaren aurka ondu dugun diskurtsoa, eredu horrek gorputzaren ikuskizun mutua hedatuz, diskurtsotik kanpo uzten duen aldi berri honetan?

3.6. HIZKUNTZA eta GORPUTZA: MUNDUAREN TOPOGRAFIA

Hizkuntza da idazlearen lehengaia, eta liburuarekin edo idatzizko beste bitarteko batzuekin lotzen zaio idazlea irakurleari. Baina, aurrena hizkuntzak geureganaturik, geure egin dugun hizkuntzak egin behar du bidea.

Gorputza erabili du gizakiak mundua neurtzeko ere, sistema metrikoa sortu aitzin erabiltzen ziren neurriak gorputzean arazoituak zirelarik⁷⁷. Ikuspegi horretaz jabetzen ez garen bezala, ahaztu egiten da biraok ere gorputzari eragiten

ziotela, eta gorputza zigortuz ere zigortzen zirela, euskaraz ere⁷⁸. Biraok iraingarri izatetik eskuetara iristerako bidearen lekukotasuna kode penaletara iritsia da aspaldidanik⁷⁹.

Honenbestez, garbi ikusten da geure gorputzaren kontzientzia hizkuntzaren erabilera automatizatuenetan ere.

Funtsean, hizkuntzak iraganera garamatza, baina, eguneratuz, etorkizuna eraikitzen du. Esan liteke Marik kobazulotik bezala, atzerantz egin behar duela idazleak, bertatik aterako bada. Fina Birulésék esan zuen bezala, “emakumeok, hein batean, atzera egingez sartu behar dugu etorkizunean”⁸⁰. Idazleak ere atzerantz sortu behar du sarri, norbere erroetara iristeko, bere hizkuntzaren erroetan arakatzu. Atzendu-edo egin da azken hamarkadetan hizkuntzarekiko gure atxikipenaren motibazioaz publikoki aritzea. Euskara batuak berrogeita hamar urte betetzeaz bat, ordua izan daiteke, berriro, hizkuntzaren normalkuntzaren aroa gainditurik, hizkuntza eta literaturaz hausnartzeko. Zeren eta, errealitatean, ezin aterako dugu geure putzu psikologiko-mitologikotik urik, euskara berak uzten badio hausnarketa-iturri izateari.

Beste alde batetik, geure ingurune diglosikoan, izendatzea, eta euskaraz izendatzea, errealitateari berriro begiratzeko bidea da euskaldunentzat, baina baita besteentzat ere.

Euskal idazleok bizi dugun egoera diglosikoan izendatzen dugun bakoitzean munduaren topografia erakusten dugu.

Geure gorputzaren izendapenak egiten du munduaren topografia, eta geure gorputzaren izendapenekin izendatzen dugu inguratzen gaituen mundua: *mendi-bizkarra* eta *mendi-magalak*, ibaiaren eta zuhaitzen *besoak*, mahaien *hankak*, eta sailburuak, eta ez *hanka* eta ez *buru* daukaten zera guztiak, leihoak *ipurditik* irekitzen dugunean sartzen den oro, eta oso

76 *El cuerpo a cuerpo con la madre*. Aip. ob. 15. or.

77 ARANBURU, Pello Joxe “Sarrera” in *Alkiza auzo eta hiribilduaren azterketa historikoa (1348-1950)*. Mitxelena. 2001 <https://www.idazleak.eus/euskara/idazleak/pello-joxe-araburu-ugartemendia/laginak/alkiza-auzo-eta-hiribilduaren-azterketa-historikoa-1348-1950?h=A&p=4>. CARRION ARREGUI, Ignacio “*Los antiguos pesos y medidas guipuzcoanas*” CASTAÑO ALVAREZ, J. “¿Sabías qué...? Curiosidades de las medidas tradicionales” e-medida.n argitaratua. ESTEBAN LORENTE, Juan Francisco. “*La teoría de la proporción arquitectónica en Vitrubio*” *Artigrama*, 16.zenb. 2001, 229-256.or FERNANDEZ BEOBIDE, J.J. “*Marcas grabadas de antiguas medidas en Gipuzkoa: Zegama, Bergara y Zizurkil*”. KULA, Witold. *Las medidas y los hombres*. Madril: Siglo XXI, 2012.

78 Euskaldunona biraorik gabeko hizkuntza dela aldarrikatu den arren, hitza bera zabaldua dago euskal letretan garai eta euskalki guztietan. Hala ere, nabarmen da existitu direna, XVI. mendeaz geroztik mende guztietan eta euskalki guztietan erabiltzen baita biraok hitza bera. Makina bat biraok jasoa izan da ikerketetan eta literaturan bertan ere. Batzuk aipatze arren: AURKERENA, J., GARCIA UGARTE, C., ZELAIA MENDIZABAL, J. *Irainka. Euskal irainen bilduma*. Bilbo: Gero/Mensajero. 1999. SALABERRI ZARAITEGI, Patxi, ZUBIRI LUJANBIO, Juan Jose *Biraokak. Nafarroan bilduak* Iruñea: Pamiela, 2007. APALAUZA OLLO, Amaia “Araitz-Beteluko hizkera adierazkorra: biraokak” in *Fontes Linguae Vasconum*, 102, 2006, 271-298.

79 MADERO, Marta *Manos violentas, palabras vedadas. La injuria en Castilla y León (siglos XIII-XIV)* Madril: Taurus. 1992.

80 Fina Birulés (ed) “Introducción” in *Filosofía y género. Identidades femeninas*. Iruñea: Pamiela. 1992, 14. or.

gutxitan bada ere, geure *oinpean* jartzen dugu etsaia. Lurrak ematen digu *oinarria*, eta arnasak *atsegina*, *atsedena* eta *atsekabea*. Hemen, orain bizi gara. *Aurrean* duguna da *aurpegiaz* ikusten duguna; *atzean* geratzen dena, *gibelean* sumatzen duguna; *bururatzen* zaiguna, nonbaitetik, *gainen* batetik datorkiguna; *Barneratzen* duguna, *barrenean* izango genuena lehen ere. Eta honenbestez, gorputzak kokatzen gaitu lekuetan eta garai jakinetan.

Esan bezala, beraz, geure gorputzaren bidez kokatu gara gizakiak ingurunean. Eta horregatixe, inguruneari gure gorputzaren izenak eman dizkiogulako, antzeman dezakegu, oraindik, geure gorputza bihurtua zela gure lehen mapa topografikoa, eta natura eta gizakiaren arteko loturarik miragarriena, behartu ez daitekeen elkar eraginaren lekukoa dela.

Inguruarekiko atxikipen horren kontzientzia gabe ere idatz daiteke, noski, eta baita ondo idatzi ere. Eta idazten da, hain zuzen ere. Emakumezko sortzailearen ikuspegitik, beharbada, hala ere, jarraitu behar da atzerantz beste modu batera sor daitekeela gogoratzen; alegia, **Errenazimentu edo birsortze garaian egon gaitzkeela hainbat belaunalditako hainbeste emakumezko idazle batera idazten** ari garen momentuan. Hori bai, birsortzea erabatekoa izan dadin, **elkarren lanen ezagutza, azterketa eta onarpena antolatatu behar da.**

Eta modernotasunaren izenean, gaurko gizartera egokitu behar izenean, edo euskarazko literaturaren sustapenaren izenean, ezin du ahaztu idazleak bere kulturaren markarik, lexikoan adina bere gramatika eta sintaxian errutzen baitira. Horien artean, geure-geureak ditugun modalizazioei⁸¹, galde-gaiari eta auresuposizioei, ironiarene⁸² alderdi intelektualari, euskal aditzaren trinkotasunak izenorde pertsonalei ematen dizkien ñabardurei erreparatu gabe, ahaztuta gera bailiteke hizkuntzak berak eraikitzen duen errealitatearekiko gizarteak adostu dituen aldentzeko eta hurbiltzeko bideak.

Eta, hobe beharrez izanik ere, euskal idazlea eror daiteke erdaraz irakurritakoa hizkuntza neutro eta itzulerrazean idaztera, mezu garbi, labur eta kontaeraza dena estilo bakartzat hartzera... eta ahaztera zenbat eta zer geratu den idazteke eta argitaratzeko, eta geure aurretik idatzi ez zutena geuk ere idatz dezakegula, idaztea imitatzea delakoan, eta euskara oraindik deskubritu ez dugun altxorra dela ez pentsatzeagatik.

Funtsean, berriro, geure hizkuntzaz baliatzeko eremuak galtzeko arriskuaz jabetu ere egin gabe idatz dezakegu. Baina ez ote da berriro ere ez garen bezala izanik, besteen menpe dagoen literatura idaztea?

81 Asko dira hizkuntzaren eraldatze eta aldaketa prozesuei buruz emakumezkoak egiten ari diren azterketak, hauetako asko Gogo^a aldizkarian argitaratuak: Larraitx Zubeldia Arrua-barrenak, Ioana Garmendia Mugikak, Ainara Ondarra Artiedak edo Lorea Unamuno Goirienak generoa eta alderdi fonetikoez.

82 GARMENDIA MUGICA, Joana, *Ironiaren teoria pragmatiko kritikoa: zer eta nola komunikatzen du esaldi ironikoak*, 2007ko tesiarekin hasitako bideari jarraituz garatu duena: "Ironiaren teoria minimala". Gogo^a. 2018 "Ironiaren kritika" Gogo^a, 2009. Guztiak 2019-4-17tik 23ra kontsultatuak.



IV. kapitulua
EUSKARA,
HIZKUNTZAK
EGITEN GAITUEN
HEINEAN

Hizkuntzaz ez pentsatzea giza-harremanen aldaezintasunean sinestea bezalako da. Nahiz eta sedukzioaren erretorikaz baliatuz komunikabideek hizkuntzaren neutraltasuna aldarrikatuz errealitate hurbiltzeko objektibotasun-itxurak egin, funtsean, beste garai batzuetan debekuaz bezala, errealitatearen aldaezintasunaz konbentzitu nahi gaituzte, orain, hori bai, mundu hoberik posible ez delakoan.

Errealitatean, ordea, eta azpimarra dezagun hitz-jokoa, **hizkuntzak eraikitzen du errealitatea**; kulturaren habe eta solibei irmo eutsiz, eta bere dirdira eta ñabarduren lekukotasuna azaleratuz. Euskarak ere bai. Zeren eta, gizartean moldatzeko ez balitz, ez baigenukeen hizkuntza beharrik izango.

Hizkuntza ez litzateke existituko **ezari, ez denari, izan daitekeenari**, ukoari, galderari eta baietzari bidea emateko ez balitz. Funtsean, errealitate oro aurrena fikzio den asmakuntza batetik abiatzen da.

Hizkuntzaren antolaketak bere legeak ditu⁸³, eta hizkuntzaren lege horiek ematen diote hizkuntzari materialtasuna eta objektibitatea. Esandakoa eta idatzizkoa objektu bihurtzen dira, gizarte jakin bateko antolaketaaren diskurtsoaren baitan, eta egoerei hizkuntza bidez eusten zaie edo hizkuntza bidez egiten zaie aurre.

Baina hizkuntza hori maneatzen dugu eta hizkuntza horrek berak maneatzen gaitu. Eta agintearen babesean eta askatasunez idazten dutenek eta idazten ez dutenek ezin dute hizkuntza horretan erregistro eta estilo berbera erabili, bere garaian Robin Lakoffek, Berkeleyko Hizkuntzalaritzako irakasleak eta beste anitzek adierazita utzi zuten⁸⁴.

Baina, aldi berean, hizkuntzak gardainatutako egituraketa sozialaz jabetzeak berak bidera gaitzake kontzientzia eraldatzaile batera, eta, ondorioz, baita pentsamenduari indar sortzailez eragitera eta eraiki dituen egitura ideologikoak desagitera ere. Izan ere, zerbait esatea bera zerbait egitea bada (J.L. Austin, G. Deleuze, John Searle), nola ez da izango zerbait idaztea eta argitaratzea gizartean eragiteko modu bat.

Euskal letren kasuan, errepika dezagun euskarak ofizialtasunik ez duela izan, eta euskal herrietako hizkuntz politikak ez dutela sekula euskara bultzatu gizarteko hizkuntza beregain gisa. Nabarmen da emakumezko idazleak izan direnean ere, eta izango ziren arren, ez direla berehalakoan bere burua agertzera ausartu eta ez dutela inprentara jo, Bizenta Mogelek XIX. mendean egin zuen arte. Baina nola irudika zezakeen emakumezkoak argitaratzeko aukera Inkisizioak euskaldun izateaz gain, emakumezko izateagatik ere jazarri izan duenean?

Eta euskal idazle eta sortzaileok menderik mende euskaraz argitaratzeko izan ditugun zailtasunei aurre egiteko jorratu dugun autozentsurari buruzko hausnarketa egitea dagokigu, oraindik, XXI. mendean, mendez mendeko isildu beharrak, egungo askatasun giroan ere eta emakumezkoen iritzia emateko orduan ere, zerikusia izan dezakeelakoan.

Sortzaile gisa, iruditzen zait gure egitekoa geure hizkuntzan askatasunez murgil egin eta aurreiritzi gutxiagorekin pentsatzeko lizentzia hartzea dela, denborak hizkuntzan eragin dituen urradurak eta txertaketak adituz, eta gaur eguneko munduari forma ematean, gorderik egon den emakumezkoen tradizioari erreparatuz eta hizkuntza neutro gisa ez baizik eta euskarak bere erroetan gorde duen jakinduriaz geure bidea eginez eta naturalizat hartu ditugun hizkuntzaren formak eta manierak ulertuz eta zainduz.

4.1. EUSKARA ETA EUSKAL EMAKUMEZKO IDAZLEAK

Euskarak (ere) ingurune eleaniztasunean iraun du menderik mende; eleaniztasun eta elebitasun egoera gatazkatsuan, estatuen egitura instituzionalizatuen eraginez. Askok arbasoen hizkuntza galdu dute, laga dute, ahaztu dute, euren herrian bizi izan arren, jarraitu arren.

Legez galarazi delako eta jazarria izan delako, Inkisizioaren atzaparren bidez, gehienetan, euskarari eutsi eta euskara transmititu duten emakumeen berri izatea ez da erraza euskal letren historian. Elizgizonez gainezka egin duen liburu idatzi eta argitaratuaren historian, tarteka-marteka aurki daitezkeen

⁸³ "Dans l'objectivité des lois qui organisent les différents sous-ensembles de l'ensemble linguistique, et qui constituent la phonétique, la grammaire, la stylistique, la sémantique, etc.: ces lois reflètent les relations objectives entre le sujet parlant et à la réalité extérieure; elles reflètent de même les rapports qui règlent la société humaine, tout en surdéterminant, en même temps, ces relations et ces rapports" KRISTEVA, Julia *Le langage, cet inconnu*. Paris: Point, 1981, 24.or.

⁸⁴ LAKOFF, Robin *Language and woman's place*. Harper and Row, 1975. Gaztelera *El lenguaje y el lugar de la mujer*. Bartzelona: Hacer, 1981. QUEIZÁN VILAS, María Xosé *A muller en Galicia*. A Coruña: Eds. Castro, 1977.

erreferentziak emakumezko laiko-tradizio baten testigantzak igartzen laguntzen digu.

Euskararen hautapena eta abertzaletasuna sarri lotu dira, baina errealitateak ikuspegi ideologiko hori gainditzen du, XIX. mende amaieran euskara bultzatu zuten akademiko asko (R.M. Azkue edota Campion, adibidez) ez baitziren abertzale; elizak ere ez baitzuen abertzaletasunarengatik hautatu euskara. Horren aldean, Hannah Arendetek elkarrizketa batean zioenaren arabera, ama-hizkuntza da *superbibienteen* helduleku bakarra. Esan liteke euskaldunok ere hainbeste esateko motiborik badugula. Izan ere, arestian aipatu bezala, hizkuntzak eraikitzen du errealitatea. Molde berean, **pentatzekoa da kontzientzia horrekin ez ote duten emakumezko idazle askok hautatu literatura eta hezkuntza, hain zuzen ere, hizkuntza bidez errealitatea eraikitze aldera. Eta idazteaz bat gure gizartearen ere parte hartu nahi dugun emakumezkoontzat ez da pentsamendu-ildo txarra.**

Baina egia da egoera diglosiko honetan euskarari berari behar zuen *torruya* emateko, euskararen egoera euskararen ajez ez zela frogatzeko, **idazle askok euskara hautatu egin dutela idazteko hizkuntza gisa**, euskaldun izatea identitate eta nortasun markatzaile eta eskubidetza defendatu ahal izateko, eta hizkuntza erabili beharrenean, berritu beharrenean kontzientzia ikur izan direla euskal idazleak, baita emakumezko euskal idazleak ere, gure arrastoak topatzen lanak dauden arren.

Euskara batuak bultzatutako hizkuntza-normalkuntza aurretik eta ondoren euskara hautatu dugu. Hautatu, diogu, euskal idazleak beti izan direlako eleanitzak, eta euskaraz eskolatzea historikoki oso nekeza izan den heinean.

4.1.1. Emakumezko idazleak: Bizenta Mogel Elgezabal idazle laikoen sigi-sagan.

1804an argitaratu zen Bizenta Mogel Elgezabalen *Ipuin onac*⁸⁵. Ordura arte ez dago euskaraz argitaratu duen emakumezko idazleren arrastorik⁸⁶.

Bizenta Mogel Elgezabal (1782-1854) eleaniztuna zen: latinez, frantsesez, gazteleraz eta ziurrenera ingelesez ere bazekien. Hogei urte bete berritan argitaratu zituen alegien euskal itzulpenak eta *Ipuin onac* liburuaren bidez ohiko zen literatura erlijiosoaren aldean, euskal letretara literatura-genero berria txertatu zuen⁸⁷. Esan liteke euskal ilustrazioak euskarari eman zion bultzada handiena, inolaz ere, emakumezko gazte batek eragina suertatu zela, eta gerora, euskarazko hezkuntzaren alde jokatu zuten askoren aurrekari nagusi bihurtuko zela, Muniberen *El borracho burlado* hura euskaldunei irri egiteko komedia baitzen.

Bizenta Mogelek gerora egindako lanen harira, aipatu izan da bere ikuspegi moralista, baina ez dut uste ordura arteko eta garai hartako literatura erlijiosoarekin pareka daitekeenik bere obra nagusia.

Euskararen eta erlijiotasunaren uztarketa ezinbestean egiten da euskal literatura aztertzen den orotan. Aise antzean kritikatzeko adierazpenen oparotasuna, ahaztuz, euskara hautatzea bera zela Inkisizioak hainbat euskarazko liburuak debekatzeko zerabilen arrazoia⁸⁸. Inkisizioak, ordurako, monarkiaren ikuspegi zentralistaren murrizketan jazartzen zuen euskaraz idazten zuen oro, besteak beste, Bizenta Mogelen osaba bera, arestian aipatutako Iturriaga edo J.I. Iztueta⁸⁹. Hartaraino non, neurri batean euskaraz idatzi eta argitaratu nahi zuenak, ez zeukan argitaratzeko ordenu politiko baten aldeko agertzea beste erremediorik.

85 *Ipuin onac, ceintzuetan aurquituco dituzten euscaldun necazari ta gazte guei ac eracaste ederrac bere vizitza zuzentzeco*. Donostia, 1804. Liburu gisa argitaratu zuen lehen emakumezko idazlea izan arren, badira besterik esateko arrazoirik eta aipamenik: Milia Lasturkoren eresiak eta jasoak izan diren eresiak debekatzeko aginduak, Bizkaiko Foru zaharretan. SALABERRI MUÑOZA, Patxi *Iraupena eta lekukotasuna. Euskal literatura idatzia 1900 arte*. Donostia: Elkar, 2002, 35. or. edo Urquiza, Patri (ed) *Historia de la literatura vasca*. Madril: Uned. 2000

86 Bai noski euskaraz idatzi eta kantatu zuten emakumezkoen lekukotza, bai atsoitz, erran komun eta errefrau gisara gorde diren poesia eta eresi aintz emakumezkoek idatziak izan direla iragartzen duten hainbat zantzuz ere.

87 Geroxeago zabaldu zen euskaraz alegiak argitaratzeko joera: J.M. Archuk edota 1852an Goyetchek, Gratien Ademak eta Aita Uriartek edota Agustin Pascual Iturriagak.

88 Deigarria egiten zait euskal kulturaren zapalkuntzan erakunde honek izan duen garrantzia hain begi-bistakoa izanda, zein gutxi bultzatu den euskal letretan izan duen eragina aztertzea, bai egileen jazarpenen eta baita liburuen debekatzeko prozesuetan. Julio Caro Barojak eta beste anitzek aztertu duten arren, batez ere, aipagarria da bereziki emakumezkoen kontra eragin zuen eraso. *Maellus maleficarum* liburuan oinarrituta.

89 TELLETXE, J. I. "Juan Ignacio Iztueta ante la inquisición (1827)" RSVAP, 1999, IV, 2

Kontua da, ikuspegi erlijiosoan izan ala ez, ziurtasunez eta bere burua defendatuz atera zela plazara Bizenta Mogel: bere izenez sinatuz. Bestalde, berandu ezkondu zen (34 urtez) eta ezkondu arren, familiarik ez zuen izan. Hogeita bi urterekin lortu zuen fikziozko liburu ez erlijioso arrakastatsua argitaratzea, bere osaba ezagunak *Peru Abarcarekin* ez bezala⁹⁰. Gainera, orduko idazleen artean ez ezik orduko emakumezkoen artean ere berezia izan zen, eta, adibidez, Bizkaiko Aldundian, ezkondu ondoren, itzultzaile gisa aritu zen, egun idazle profesional baten pareko *estatusaz*⁹¹. Argi da, bere hezkuntza bideratu zuten arauditik asko urrundu ez arren, motibazio pertsonala izan zuela Bizenta Mogelek euskara aukeratzeko. Eta euskaraz bere liburuak plazaratzeko erabili zuen genero literarioak bereizten du bere garaiko beste guztietatik. Izan ere, alegien itzulpenak eskaini zion bere ikuspegia eta iritziak ere txertatzeko aukera, eta modu horretan Esopo zaharraren alegietan XIX. mendeari zegozkion iritziak ere bideratu ahal izan zituen, agian ez gizonezko izan balitz egingo zuen indarrak, baina bai ordura arteko inork baino arrakasta handiagoz.

4.1.2. Ubi sunt? Idatzi eta irakurri zuten arren, argitaratu ez zuten emakumez eta inkisizioaz.

Emakumezko izatea ez zen abantaila Inkisizioaren aurrean. Eta Inkisizioak kontzientzia, independentzia eta emakumezkoen askatasunaren aieru txikiena eskaintzen zuten liburu guztiak desagerrarazi nahi izan zituen⁹². Gure kasuan, eta euskaraz idatzi ez zuen arren, Inkisizioak Margarita Nafarroako erreginari berari ere ekin zion, adibidez. Inkisizioa desagertu zen, baina Inkisizioak behatu zuen bere obretako bat ez da oraindik gaztelarara itzuli, beste hizkuntza batzuetara itzulia izan den arren. Ez eta euskarara ere⁹³.

Idazleak eta liburuak ez ezik, irakurleak ere zigortzen zituen Inkisizioak. Beste adibide bat jartzeagatik, hona nola errege Karlos V errege eta enperadoreak eta debekatu beharreko liburu zerrrenden eragile nagusi izan zenak, 1529an emakumezko bat⁹⁴ hiltzera kondenatu zuen *Indizeak* galarazitako amodiozko liburu bat zuela aurkitu ondoren⁹⁵.

Nafarroako erreginarean mailako jendeari edo herritar xume bati, amodiozko libururen bat irakurtzeagatik ezarritako jazarpina aski izan daitezke euskal emakumezkoak ezer argitaratu ez izanaren arrazoibide. Zer esan, kasu, Lazarragaren eskuizkribu argitaratu gabean ageri den Estibaliz Sasiolari buruz! Izan ere, Lazarragarena ez den beste esku batek idatzitako hiru olerkiak direla eta, lehen olerkiaren goiko aldean egileari buruzko azalpen zehatza eman arren, «De la Señora Maria Estibaliz de Sasiola», bada Estibalitz Sasiola kopiatzaile hutsa izango zela dioenik. Ez pentsa, izan ere, kontuz ibili beharko ez zenik. Agian Maria Estibaliz Sasiolak⁹⁶, 1550ean jaio arren, Debako Sasiola etxe nobleko jatorrikoa izaki, sasiolatar boteretsu zen Martin Otxoa Sasiolakoaren berri izango zuen. Martin Otxoa Sasiolako gaztelako kondestablearen idazkari izan zen, eta 1539ko urriaren 25ean Lizarratan Karlos V.a enperadoreari harrera egin zion⁹⁷. Erraza zen bada giro horretan amodiozko literatura idatzita ere, argitaratzea!

Euskal Herrian hainbeste sorgin erre zituen Inkisizioaren lanaren berri argi eta garbi agertzen da Joanes Etxeberri Ziburukoaren *Manual devotioezcoan*⁹⁸. Milaka lerro *Manual Devotioezcoan* gorputzaz aritzeko, gorputzari beldurrez begiratzeko, plazera eta desira erauzteko gorputzetatik, *gurmantari*, ahoz gozatzen denari, eternitate osoan infernua nola punitua izango den erakusteko:

90 Ez ahaztu Juan Antonio Mogel Urkizak, hasteko, eta behar bada Inkisizioaren beldurrez, artean, bere liburuari gaztelarazko izenburua eman ziola *El doctor Peru Abarca, catedrático de la lengua bascongada en la Universidad de Basarte, o Diálogos entre un rústico solitario bascongado y un barbero callejero llamado Maisu Juan*. Juan Antonio Mogel hil zen urtean argitaratu zuela bere iloba Bizentak bere lpuin onak liburu eta *Peru Abarca* deritzoguna ez zen argitaratu ahal izan 1881era bitarte.

91 ALTZIBAR, Xabier "Bizenta Antonia Mogelen biziak eta lanak zenbait argibide" *Euskera* XVII, 1982, 457-496.

92 DE MAIO, Romeo Aip. ob. 281-288.

93 "Inkisizioa saiatu zen aurrena *Miroir de l'âme pécheresse* (1531) kondenatzen eta lortu ez zutenean, *Heptameron* ez zen berehalakoan sartua izan Sorbonako Indizean, agian hil ondoren argitaratua izan zelako ere bai. Litekeena da liburu argitaratu ere erregina hil ondoren argitaratu zelako (1559). Bere obra gehienak ez ziren XIX. mende amaierara bitarte argitaratu. *Heptameron* hau, adibidez, 1880an. Hori Margarita Nafarroako erregina izanik (1492-1549), haren maila sozialeko emakume baten kasuan. Yon Etxaidek, *Urrain* ezizenez sinatuta, bere jakingarriak eman zituen Nafarroako Margaritaren inguruan." Margarita Angulematarra, Naparroako Erregina elederzalea" *Egan*. 1959, 5-6, 162-166

94 DE MAIO, R. Aip. ob. 288.or.

95 1529-10-4an DE MAIOk dioenez. 288.or. Indizeak amodiozko literaturaz Inkisizioak pentsatzen zuena Vaticano latino 6207 kodizean ondo adierazia utzita zeukan.

96 URKIZU, Patri "Euskal poesia idazleen artean lehen andrea" *Lapurdum*, 10, 2015. 287-302.

97 https://eu.wikipedia.org/wiki/Estibalitz_Sasiola.

98 *Manual devotioezcoo edo ezperen oren oro escuetan errabilltçeco liburutchoa*. Donostia: *Hordago*, 1978. Patxi Altunak egindako edizioa Bilbo: Euskaltzaindia & Mensajero, 1981. Ikustekoa da IV. buruan infernuaz idazten hasten denean, zenbaitetarako penak ezartzen zaizkion edozeini. Liburuak 1669an argitaratu zen.

GORMANTAREN PENA

*Baña ahoa idekirik beharrietaraño,
Gormantari sartzen dio lohi eztarriraño
Apho eta biper gaixtoz eginik ianharia
Eta aspik pozoñtsuen odolez edaria;
Bortxaz galkhatzen badio Deabruak iakia,
Hala nola unhideak haurtxoari ahia.
Hunela du Ifernuan Gormantak othuruntza,
Ematen zaiola gauza xoil iguñez hazkuntza.
Gorale duelarik alabañan sabela
Bethe behar du herabe nahiz handi duela*

Bere aldetik, jakintsuen bidez ere, gutxi hitz egiten du Elizak zeruaz, eta zorientasunaz. Ez du Elizak tarterik galdu, menderik mende, euskal literaturan, gorputza bekatuaren gordailu gisa izendatzeko. Adibide hauek erakusten duten bezala, erlijiozko deitu izan den euskal literaturaren irakurketa filologiaz haraindi egiten denean, izugarri aldatu ahal izango da emakumezko idazle ezari buruzko ikuspegia.

4.1.3. Tabua eta autozentsura

Inkiszioa desagertu ondoren, galdetu liteke gaur egun tabua eta autozentsura desagertu ote diren. XX. mende erditik aurrera ere izan ditugun autore-hiztegiei erreparatuta, aski al dugu emakumezko hiztegiaren jaso den lexikoarekin geure buruei buruz hitz egiteko?

Alde batetik, hiztegiei begiratu hutsez argi eta garbi adierazten dute beraientzat ere tabua zela sexualitatearekin zerikusirik zeukan oro, eta hori iturri klasikoak erabili dituzten euskal hiztegiak guztien erreparoa izan denez (Azkue, Lhande, Retana, Mitxelena...), eta hiztegiak hauek hain emakumezkoen erreferentzia gutxi erabili ondoren, nondik abiatu behar du, adibidez, emakumezko idazle euskaldun berri batek?

1975erako J.M. Satrustegik garbi ikusi zuen *Euskaldunon seksu-bideak*⁹⁹ azterkizun zirela, zeren eta, funtsean, atzerritar guztiek emandako kanpo-irudi askearen aldean, euskal liburu guztietan harreman sexuarekiko buruz ez baitzen zabaltzen giza-errealitatearen alderdi hau. Satrustegik Jean Etchepare medikua aipatzen zuen salbuespentzat, eta 70eko hamarkadan Euskal Herrian nagusi zen giroaren berri labor eta zehatz eman zuen liburuaren hasieran¹⁰⁰. Arantxa Urretabizkaiak, Amaia Lasak, Xabier Gereñok edo Ramon Saizarbitoriak bere lehen obretan ezarri zuten ikuspegiak eraldatu egin zuten literatura-egoera.

Tabua azaleraturik, Ramon Etxezarretak, bere *Hiztegi erotiko*¹⁰¹ moldatu zuenean, euskal historiako hiztegiak eta ahozko literatura aztertuz erakutsi zuen, ezetz, euskara ez dela birao gabeko hizkuntza, euskaraz ere, eguneroko bizitzan beste sistema-metaforiko bat dugula, sarri hiztegiak etorri ez dena, eta gure bizipenei buruz aritzen laguntzen diguna.

Baina, 80ko hamarkadan emandako aurrerapauso haren ondoren, idazleentzat iturri izan daitekeen autore-hiztegien gainean burutu al da genero-ikuspegi azterketarik?

Nor ausartu egoera honetan amodioaz eta askatasunaz idazten? Azken hamarkadan, bat Danele Sarriugarte izan da *Erraiak*¹⁰² liburuarekin. Liburuaren kritika egiteko baino gehiago, Mikel Babianok liburu-iruzkinean hizkuntzari buruz ematen dituen zertzelada batzuk datozkit gogora:

“Gainera, elgoibartarra berritzailea da eta hizkuntza-ekin jolastea du atsegin. Horrela, hitz berriak asmatzeko —edota berrasmatzeko— joera antzeman diezaiokegu: ipurtzoloratu, zakilseme, gua[i/p]enak, zurlurtuta, ogibide vs. ardobide... Eskuarki Hiztegi Batuak hobetsi euskaraz idazten badu ere, salbuespenak egon badaude, gaztelaniazko esapideetara jotzen duenean kasu: con las manos en la masa, hasta en las mejores familias...; ildo beretik, ez dira ez gutxi heterolinguisismoaren adibideak: shit, making a long story (very) short, wishful thinking, angst... Horiek ingelesez eta gaztelaniaz daude batik bat, alemanez neurri apalagoan”¹⁰³.

⁹⁹ Oñati-Arantzazu: Jakin, 1975.

¹⁰⁰ 23-26.or.

¹⁰¹ Hordago.

¹⁰² Elkar, 2014. Ezin ahaztu hala ere, Txalapartak bere sailean argitaratutako beste hainbat lan: *Esku hori* (2012) *Euskal idazleen ipuin erotikoak*. (1998) *Desira plazer*, 68-08 (2009) *Literaturako sailean beste batzuen artean*.

¹⁰³ BABIANO LOPEZ DE SABANDO, Mikel “Erraiak” hirinet.net 2014-10-6. <https://kritikak.armiarma.eus/?p=6280>. 2019-3-12an kontsultatua

Erraiak liburuaz kritika askotan aipatutako sexu esplizitu¹⁰⁴ horretaz aritu gabe, Babianok egiten duen arrazoiketak, funtsezko galdera planteatzen du emakumezko idazle sortzaileen ikuspegitik. Eskaintzen al dio euskal literaturaren tradizioak gaurko emakumezko idazleari nondik abiaturik?

Gogoangarria da Eider Rodriguezek nola aipatzen duen hizkuntzaren xalotasunik ezaren gaia. Eider Rodriguezek ere mesfidantza sentitzen du hizkuntzaz xalotasunez hitz egiteko joerengatik: “Berriro ere jabetu nintzen, larritasunez, hizkuntzak bazituela jabeak, eta ez zirela ez hizkuntzalariak ez idazleak; usurpatzaileak ziren, hizkuntza bahitzen zuten bere arimari eta patuari traizio eginez, hitza bera ez zen beste xede batzuekin. Jende horrek hitza bahitzen zuen, segidan gu bahitzekeo”¹⁰⁵.

Kontuan izanda euskal irakurleria eta euskal idazleen egoerak hizkuntza-egoera diglosikoa izaten jarraitzen duela, oraindik ere, emozioak adierazteko gorputz-izendapenik asko ez dugula erabili euskal literaturan, euskal emakumezko idazleok, sarri, geure sormen-indarrez baliatu behar dugu idazteko. Eta orain batez ere gizonezkoek erabili dituzten lan-eskemei geure harremanak eta ikuspegia txertatu behar zaizkio. Horretarako ere, ziurrenera, emakumezko idatzi dugunaren hustuketa lexikoak ere beharrezkoak izango dira, orain artekoetan emakumezkoaren obren presentzia hutsal antzekoa izan denez, autore-hiztegitzat hartzen diren hiztegitan¹⁰⁶.

4.1.4. Gerora bidean: gordea

“Hartua zor da”¹⁰⁷ (Damaso Intza)

Ahaztu egiten dugu, inolaz, sarri-sarri emakumezkoa izan dela etnografoen, hizkuntzalarien edo musika-biltzaileen informatzaile. Euskaraz idazteko orduan ere, ahaztua geratu da geure izan genezakeen altxorrik kuttunena sarri: **dohaintzaren kontzientzia**. Dohaintzaren balioa gutxiesteak hain zuzen ere, dohaintza eta opariaren zentzua galarazi du geurean bezala mendebaldeko kultura anitzetan¹⁰⁸.

Euskal letren historia osoan gizon jakintsu askok ahozko-tasunaren iturri bila jo dute euren guraso eta arbasoetara edota hizkuntza galtzen ari zenetan jaun-andreen morroi eta neskameetara. Beste alde batetik, elizgizonek askotan erabili ohi dituzte eliztarren arteko sarea ere.

Etnografia alorrean J.M. Barandiaranengatik abiatuta egindako ekarpenetako bat Barandiaranek informatzaile guztien berri ematea izan da eta haiek erabilitako hizkera ondo jasota dago. Metodoarekin zehaztasuna ezartzeaz gain, XX. mendeko ikerlari haiek, Damaso Intzak esan zuen bezala, herriarekiko eta jendearekiko bere zorra aitortu zuten, eta horri esker, emakumezkoen ahotsaren aztarnak errazago jaso daitezke.

Ondoko laukian kantu, erretra eta esamoldeak biltzen aritu izan diren lau biltzaile handiren aipamenekin osatutako taulak ondo adierazten du emakumezkoen parte-hartzeari buruzko datuak. Etnografian jarritako metodoari eta egile-ikuspegiari esker, XX. mendetik aurrera ondo ikus liteke, ahozko-tasunari erreparatu zioten ikertzaileei esker, zenbat emakumezko informatzaileen berri jaso ahal izan den. Araketa labor honen bidez, hiru egileren artean (Damaso Intza, Aita Donostia eta Resurreccion Maria Azkue) 177 emakumezko informatzaileen berri jaso ahal izan da. Orotara, 514 informatzaileen artean, % 34,43 direla adierazten du. Informatzaile hauei eskaini ohi zaien lerro bakanen artean ere informatzaileen arteko familia-harremanak, bizitokiak eta bizi-baldintzak eta lanbideak ere jaso daitezke sarri. Horri esker, beste momentu batzuetan idazle gisa ezagutuko ditugun emakumezkoak ere aurkitzen dira (Perpetua Saragueta, Dolores Agirre, Mayi Arizti...) eta emakumezko hauen lan-sarea eta letren sisteman hartzen zituzten tokiak ere nabarmendu litezke.

Ez da gauza berbera gertatzen hiztegitantzen. Baina arakate lan labor bat eginez, berriro, erraz antzean ikusten da XVI. mendetik XIX. mendera bitarteko iturri bibliografiko gehienak aztertuak izan diren arren emakumezkoek idatzitako testuei ez zaiela harrera edo begirada bereizirik eskaini.

¹⁰⁴ Maria Unanuerena, adibidez. Literaturaren zubitegian aurki daitekeena: <https://zubitegia.armiarma.eus/?i=907>. 2019-3-16an kontsultatua

¹⁰⁵ RODRIGUEZ, Eider-GOPEGUI, Belén *Korrespondentziak. Correspondencias*. Donostia: Erein, 2016, 66. or.

¹⁰⁶ Hurrengo atal batean aurkeztuko den bezala ez dira asko iturri bibliografikoetan ageri diren emakumezkoen izen-abizenak.

¹⁰⁷ INTZA, Damaso *Naparroa-ko euskal-esaera zarrak*. Iruñea: Principe de Viana, 1975, 12.

¹⁰⁸ HARTSUAGA, Juan Inazio *Idea eta balioen bestelako historia laburra*. Iruñea: Pamiela, 2016, 191-195.or.

1. Taula. EMAKUMEZKOEN AIPAMENAK BIBLIOGRAFIETAN ETA PARATESTUETAN

HIZTEGIGINTZA	HITZAURREAK eta EPILOGOAK	ITURRI BIBLIOGRAFIKOAK	OHAR BATZUK
AZKUE ABERASTURI, R.M. ¹⁰⁹	Aipatzen du Eruki-etxean zeuden emakumezkoen la-guntza. <i>“Desgraciadamente he perdido el apunte de las asociadas de San Sebastián. Las más distinguidas entre ellas eran una de Lesaka, una de Orio y una de Berástegui.</i>	Eta Hiztegian aipatuak diren obren artean ez dago bakar bat emakumezko batek idatzia. Baina ordurako Bizenta Mogelek argitaratua zuen <i>Ipuin onac</i> . Erabilitako eskuizkribuetan ageri da D. Mari VICENTA ANTONIA MOGELENA	Emakumezko informatzailerik ez dago antolatutako bilera guztietan. Bilbokoan bai, bostetik bi, bat Erronkarikoa eta beste bat Gernikakoa. Euskalkika banatzen ditu bere kolaboratzaileak. Goi nafarrerarako hainbat herritako andre zaharrak, Bizkaierarako lau emakume izendun (horietako bi asilatuak) eta bere ama. Behe nafarrerarako bat izenduna, eta bi herritako andre zahar, Gipuzkeraz eta Lapurteraz andre zahar batzuk, Erronkarieraz Vicenta Garde.
LHANDE, P.L. ¹¹⁰	Bere amama Gracieuse Lhanderi eskaintzen dio hiztegia, hark erakutsi ziola-eta euskaraz otoitz egiten.	Iturritzat lau abaderen hiztegiak ditu. Bata Azkuerena, eta besteak, eskuizkribuak. Ez dago inolako aipamenik.	-
ECHEBARRIA, Toribio ¹¹¹	Bere emazteari esker ona <i>“a quien fue mi esposa y hermana (y en no pocas veces madre, con ser menor que yo) en todos los caminos de la vida”</i>	-	-
ETXEZARRETA, Ramon ¹¹²	-	Amaia Lasa: <i>Hitz nahastuak</i> eta <i>Nire Paradisuetan</i> .	-
MITXELENA, Luis ¹¹³	Amaieran dio: <i>“Este trabajo fue realizado en E.J.I.E.- Sociedad Informática del Gobierno Vasco”</i> . Izendatzen direnen artean, hamar emakumezko, hamabost partaideren artean.	Bizenta Mogel, Ignazia Pradere, Julene Azpeitia, eta Errobusten Ortuzar ¹¹⁴ . Bestela, hiztegi-gintzarekin harremanen bat izan zuten hainbat emakume bakarrik (Gasteizko Filologia Fakultatekoak: Miren Azkarate, Blanca Urgell, Ines Pagola, Mari Jose Kerejeta).	-

¹⁰⁹ *Diccionario vasco-español-francés* Bilbo: 1905-6

¹¹⁰ *Dictionnaire basque-français*. Paris: Benauchesse, 1926.

¹¹¹ *Lexicón del euskera dialectal de Eibar (Arrate'tikuen izketia) 1961* (1965-66an argitaratua)

¹¹² *Hiztegi erotikoa* Donostia: Hordago. 1983

¹¹³ *Orotariko euskal hiztegia*

¹¹⁴ Kontuan izan behar da 1977koa dela *Orotarikako Hiztegia* zehatz-mehatz aztertutako testua. Dena dela iparraldean idatzi eta argitaratuak ziren, gutxienez, M. Arizti eta Marijane Minaberri.

Hiztegi gintzarako bezala balio literarioaren ikuspegitik ere badirudi munta gutxiagokoak izan direla egile askorentzat emakumezko idazleak, eta neurri horretan, Luis Villasanteren *Historia de la literatura vasca*, urte askoan erreferentzia bibliografiko garrantzizkoenak jasotzen zituen historiaren izen-aurkibideak eskaintzen du idatzi zuten emakumezkoen presentzia eta absentsiarako gida. Izan ere, azpimarratu behar da, Villasanteren historia, hainbeste erakutsi diguna, zalantza gabe, literatura-historiarako hain baliagarri diren aipamen bibliografikoez hornitzen zela, eta Villasantek, egoera hartan eta hainbeste aipamen bibliografiko bilduz egindako historia izateak, adierazten duela idatzi zuten emakumezkoek idatzitako literaturari ez zitzaiola, sarri, inolako irakurketarik egin, idatzi ondoren. Esan behar da, halaber, absentsia hori ez dela Villasanteren hutsegitea, bakarrik, baizik eta euskal literaturaren ikertzaileek euskal emakumezko idazleek idatzitakoari ez erreparatu izanak eragina.

Kontua da Villasanteren historiaren izendegian euskal letrekin lotura duten 1.005 izen ematen direla, eta horietatik emakumezkoak 24 dira. % 2,38 beraz. Horietatik euskaraz idatzi dutenak hiru (Luisa de la Misericordia¹¹⁵, Tene Mujika, Bizenta Mogel, Katalina Elizalde). Eta euskal literatura eta kulturarekin lotura nabarmena dutenak Nafarroako erregina Juana, Ana Etxaide, Madame Villeheio eta Madeleine Jauregiberri. Eta ez ordurako emakumezkoek argitaratu ez zutelako.

Hiztegi gintzara iristen garenean ere antzeko egoera batekin amaitu da XX. Mendea, bigarren taulan ikus daitekeenez.



115 Egiaz norbaiten izena al zen, ala Peñafloardatar batena ala Misericordiako komentuko norbaitena izan zitekeela aditzera emanaz.

2. Taula: EMAKUMEZKOEN AIPAMENAK BIBLIOGRAFIETAN ETA PARATESTUETAN

BILDUMA EGILEA	HITZAURREA	ITURRI BIBLIOGRAFIKOAK	INFORMATZAILEAK / EMAKUMEZKOAK	OHAR BATZUK
INTZA, Damaso	Bi aldi bereizten ditu bere bildumazale lanean. Lehenaldian (1912-1936an) herriz herri ibili zen bertako apezpei laguntzen, eta 20 herritako informazioa jaso zuen, jasotzaileen artean 19 apez agertzen direlarik. Informatzaile askoren izenak ez ditu jaso. Bigarren bilketa-aldian (1936-1973) informatzaile gutxiago izan arren, uzta ugariagoa jaso zuen.	-	44/4 61/25	Klaratarren komentuko bi neskame eta Epifania San Martin, Gregoria Jabat. Eta Perpetua Saragueta idazlea ¹¹⁶ "oraño Iruñean bizi zaigun andre buru-argia, euskaltzale bikaina"
AITA DONOSTIA ¹¹⁷	-	184/10 % 5,43	346/120 % 34,68	120 emakumezko informatzaile horietatik 33k testuen idatzizko kopia eman edo gutunez bidali zioten, alegia informatzaile emakumezkoen %27,5ak
AZKUE ABERASTURI, R.M. ¹¹⁸	"Lankide andiena izan dodan Mari Karmen Aberasturi ta Uribarri Neure ama maiteari" (5.or.) ¹¹⁹ ta "nire arreba Aurora Mariak" (16.or.). Laugarren liburukoak bertan ageri dira, eta 1. liburukoak bakarrik ageri dira hitzaurrean. Izen-abizenez aipatzen ditu "yakingeien geienak irakatsi dizkidaten lagunen izenak", eta probintziak aurkezten ditu.	-	35/28 % 80	Euskaratik gaztelerara itzultzen laguntzen dioten bi lagun aipatzen ditu, bata apaiza, bestea bere arreba Aurora Maria.
MOCOROA MUGICA, Justo M. ¹²⁰	Zeanuriko Maria Rosa Ipiñazar aipatzen du, 4.050 orritatik 93.000 fitxa atera zituelako, gehienak berak. OTXOLUAK liburu hasierako esker-emateetan Dolores Pentziana aipatzen du, ipuin eta esakera asko kontatua zena. Baita Maria Dolores Agirrerren ekarpenak ere.	-	-	ESKERTU BEHARREKO ZORRA die, fitxategiaren kopia daktilografikoa egin zuten Ione Abaunzari, Lourdes Munichari eta lehen aipatutako Maria Rosa Ipiñazarri eta fitxen antolaketan aritu ziren Arantza Zubigarai eta Isidora Mokoroa Mugika egilearen arrebari. Lanen gastuei aurre egiteko dirua jarri zutenen artean, izen-abizenez, 29tatik 12 emakumezko ageri dira, horietatik 2 Mokoroatar.

¹¹⁶ Luis Villasanteren *Historia de la literatura vascan* ageri diren emakumezko apurren artean ez da aipatzen, bigarren argitalpen osaturako (1979) hainbat aldizkaritan argitaratua izan arren. Emakumezko izateaz gain, estatu sozialak ere zerikusi handia izan du emakumezkoak aipatzeko orduan. Villasantek gizonezko jakintsuen familiako emakumezkoak dira gehien aipatzen dituen gehienak, santu ez badira.

¹¹⁷ DONOSTIA, Aita *Notas de folklore (Obras completas. T. X.)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2007.

¹¹⁸ *Euskal Herriaren Yakintza*. Madril: Espasa-Calpe, 1935-1947.

¹¹⁹ Luis Villasantek ere aipatzen du bere *Historia de la literatura vasca* liburuan, aip. ob. 380. or. "archivo viviente de lengua, folklore"

¹²⁰ *Repertorio de locuciones del habla popular vasca*. Bilbo: Labayru, 1990.

Esan liteke, herri oso baten jakinduria jasotzeko lan-sareak antolatzeko, Bonaparte printzearen sareak ere begi aurrean izan zituztela. Gizonezko eta elizgizonen artean osatutako sareak, ez zuen emakumezkoentzako toki handiegirik izan, baina XX. mende hasieratik aurrera, emakumezkoak ere bertan aritu ziren.

Hala ere, arestian aipatzen diren pentsalari horietako askorentzat, bere jakintza eskaintzen zietenak informatzaile huts bihurtu ziren, nahiz eta informatzaile horien izen-abizenak eman zituzten beste zehaztasun batzuekin batera J.M. Barandiaranek eta Aita Donostiak.

Gizonezkoen eta garaiko ikuspegi erlijiosoaren kutsua ezin dira alde batera utzi. Jaso ziren kantuetan, errefracuetan, poemetan... zaila izango zitzaien emakumezkoen gehienetan apez bati mintzo zitzaizkiela edo idazten ziotela ahaztea. Honek dakartzan ondorio guztien artean, ondorio lexikoetara begiratzea besterik ez dugu.

Erakundetze eta elkarteratze hori inspirazio iturri garrantzizkoa izan daiteke euskal emakumezko idazleentzat, kulturaren bidez eta ikerketaren bidez egituratzea lortu zuen belaunaldi haren inspirazioa.

Guztiarekin prozesu guzti honetan, garbi da, bada munta handiko ikertzaile-belaunaldi bat, euskara eta euskal kultura galtzetik askatzeko, parametro zientifikotan aztertzen hasi zena. Euskal Herriak bere unibertsitatez ez zuenez, bestelako elkarketak antolatu ziren (Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, Aranzadi...)

Bestalde XX. mende hasieran, eta beti euskaraz aritu ez arren, euskal literaturaren gordailua sortu eta aztertu zutenen artera iritsi ziren idazle eta ikertzaile izatera hainbat emakumezko ere. Informatzaileen artean aurkitutako Perpetua Saragueta, Tene Mujika, Mayi Arizti, Marijane Minaberriek idatzi ere egin zuten, Mme. Salaberriek edo Madame de Villeheliok jaso zituzten kantuak, baina artean bizi zirela egin ziren historia hiztegiatara edo erreferentzietara iritsi gabe. Garbi dago emakumezko guzti hauek, eta beste anitzek, euskalgintzaren inguruko sare zabalean parte hartzen zutela. Baita liburuak eta bildumak argitaratzeko ere, euskal liburugintzan bezala beste askotan gertatu den bezala ¹²¹.

Eta hain zuzen ere, emakumezko hauek izan dira, idazle, irakasle edo argazkilari, euskal sarea osatzeko lanik eraginkorrenak ere egin dituztenak, maila sozialen arteko harremanei eutsiz, eta euskal herri xehearen berri jasoz, bere garaian, Eulalia Abaitua batek¹²² bere argazki-kamerarekin egin zuen bezala, hartu zituen ehunka argazki haiekin euskal herritarrek argitara ekarri.

Euskal idazle emakumezkoek geure iturrien memoria egitea lagungarri izan daiteke **ez ahazteko aldiro eta berri berri hasiz idazten dugun orotan ere, aurretik aritu direnek esan eta esan ezin izan dutena berritzea ere emakumezkoen tradizioa sortzea** dela.

Sarri hizkuntza bera da geure lehen iturria, eta ahozkoan gorde eta batzuk eskuz kopiatu dute koaderno ezberdinetan, ahozko literatura gisa ezagutu eta egiletza aitortu gabe pasatzen dira ahoz aho, aldaera ezberdinak badituzte zabalduagoak diren seinale, **eta kanon literarioetara iritsi ez diren genero izanik, errefracuak, esamoldeak eta abestiak biltzen direnean, denenak eta aldi berean inorenak ez diren alorretan, biltzaileen izena bakarrik aipatu ohi da testu horiek argitaratzen direnean**. Testu horien artean aurkitzen dira emakumezkoek idatzitako asko eta asko, emakumezkoak ausartu ere ez baitira egin, menderik mende, beraien egiletza emakumezkoen ezereza azpimarratzen zuten jakintsuen aurrean.

Metaforikoki hitz eginda, bada emakumezko idazleek, etnografoekin, herriko literatura-ikertzaileekin, euskararen aldaera dialektalak aztertu dituzten ikertzaileekin, hiztegi-gileekin, eta orokorrean irakasleekin partekatzen duguna, askorekin partekatzen duguna, alegia, **erabaki eta hausnarketa guneen bazterrean geratu den herritar saldoarekiko arreta**, literatura modernoaren definizioak hainbestetan **anti-heroi gisa aldarrikatu duen pertsonaia**, eta guk, herri txiki eta bazter-lekuetan bizi izan delako **arlotetzat jotzera ohituak gaudena, auzo-lotsaz**.

Emakumezkoek, gaur egun ere, ez diote beti horrelakorik onartzen beren buruari eta ezta besteei ere lehenengo aldian, Bizenta Mogekek atsoen ipuin zaharrak arbuizatu

¹²¹ Sophia Tolstói *Diarios (1862-1910)*. Madril: Alba, 2010. Sophia Behrsek eguneroko horietan argi eta garbi adierazten du zein eragin izan zuen bere senarraren (Tolstoiren) obra osoan, bai zuzenketa lanetan (*Guda eta pakea*, zazpi aldiz jo zuen osorik makinaz), eta baita bere liburuen argitalpen eta familiaren irudia emateko orduan ere, adibidez.

¹²² ABAITUA SALAZAR, Eulalia. *Senitartea*. Bilbo: Euskal Arkeologia, etnografia eta kondaira Museoa. 2009. *Gure aurreko andrak*. Bilbo: Euskal Arkeologia, etnografia eta kondaira Museoa, 2016. *AAAA Estereoskopioak 16+16*. Bilboko Euskal Museoa. 2016

adierazi zuen bezala. Izan ere, behin plazara iritsita, geure buruak defendatzeko ere beste emakumezkoak arbuizatzen edo beraiengandik bereiztera behartuak sentitu izan gara. Itxura denez, ohikoa bilakatu daiteke emakumezko gisa argitaratzeko aurrekari izan daitezkeen emakumezkoak alde batera utzi beharra, liburuen joko zelaian dauden arauen arabera epaitua izan nahia aldarrikatzen den bakoitzean. Aurreko belaunaldiekin haustea oso literarioa izan arren, **euskal emakumezko idazleok ez dugu zerekin hautsi handirik, oraindik, geure tradizioaren kontzientzia landu ez dugun heinean.**

Erabat zabaltzeaz dago oraindik emakumezkoek gogoan zituzten istorio eta gertakariak edota etxeetako koadernoetan gordetako hitz, kantu, erretratu, errezetan balorea, agian dohaintzan ematen dena aintzakotzat ez hartzeko joerarengatik.

Neurri handi batean idazleak ere oraindik irakurri ez duenaren bila idazten duenean bere inguruan arakutzen du, eta, gure inguruan, euskal emakumezko idazleen inguruan, emakumezko eta gizonezko asko dago, ez denak euskaldunak geure mundukoak izan arren.

Euskal letretan, argitaletxe eta industriaren kezkak eragin zuzena izan dezakete euskal emakumezko idazleengan. Baina momentu honetan euskal letren sisteman **gutxienez seiehun emakumezko gora ari da** toki ezberdinetan idazten. Giza saldo ederra, euskal letren sisteman eragiteko eta birpentsatzeko.

4.2. EMAKUMEZKOAK IRAKASKUNTZAN ETA EUSKAL-GINTZAN

Derrigorrezko eskolatzean euskara ez kontuan hartzeak asaldatu zituen euskaltzaleak. Bizenta Mogel izan daiteke horretan ere aurrekarietako bat, ikuspuntu horretatik oso aztertua izan ez den arren. Euskara erakusteko ahalegin pedagogikoa euskaldun guztioi derrigorrean idazten eta irakurtzen ikastekotan beste hizkuntza batean erakustearen aurkako erantzuna izan zen. Erantzun horrek ez zuen laguntasun handiegirik jaso ez udaletatik eta ezta Aldundietatik ere, Iturriagak edo Iztuetak¹²³ salatzen duten bezala.

Aurreneko euskal maistrek bere tituluak atera zituztenean eta eskoletara joan zirenean, euskaraz irakurriz eredu pedagogiko berritzaile eta eraginkorrak bultzatu zituzten. Gerra aurreko lehenengo ikastoletan lan egin zuten andereñoek talde gisa ere identifika daitezke eta lan handia egin zuten sare euskaldun eta euskaltzaleak ehuntzen, hasieran irakaskuntzarekin lotuta.

Euskaraz idatzitako liburuak sortzea, euskaldunek letrak ikasteaz bat euskara ere ikastea izan da euskal gizartearen hasieran gutxi batzuk baino hartu ez duten bidea, eta hasiera-hasieratik emakumezkoen ikuspegia ere irakaskuntzan txertatu duena, oraindik ondo aitortu ez den neurri bateraino¹²⁴.

XX. mende hasieran maistra ikasketak burutu zituzten euskal emakumezko askok. Gainera, Lehen Mundu Gerratearen eraginez Eusko Ikaskuntzak egindako hausnarketa baten ondorioz, emakumezkoen paper zibila bultzatu beharra ikusi zen, eta hartara, esan genezake, Emakume Abertzaleen Batzarekin batera, feminismoa hedatzearekin eta komunismoak eragindako mugimenduetatik bereizi nahirik ere sustatua izan zela.

123 IZTUETA, J. I. "Trabajo sobre el método que se debiera seguir en las escuelas de esta región para enseñar el castellano" *Obras inéditas de Iztueta* Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1968.

GARMENDIA ARRUEBARRENA, Jose "El folklorista Iztueta, maestro de niños" *RSVAP* 2001, LVII,1.

Interesgarria da Agustín Pascual Iturriaga eta J.I. Iztuetaren arteko gutuneria, garai hartan euskal liburuak argitaratzeko helburuaz ari zirelarik. Ez zuten laguntza handiegirik lortzen, ezta Lardizabal zaldibiar azkarrak ere. GARMENDIA ARRUEBARRENA; Jose "Noticias desconocidas sobre Francisco Ignacio de Lardizabal". http://www.iztueta.com/index.php?option=com_content&view=article&id=821:lardizabal32309926&catid=242&Itemid=637

124 Gaia zabaltzeko, IRAZABAL OLARRETA, Eunat "Emakumea eta euskal irakaskuntza" *Bat*. 69, 2008, 45-59. Gogoan hartu behar da euskararen irakaskuntzaren galarazpena ere ukatu dela, edo gutxietsi, bederen, Jose Garmendia edo Aita Villasantek egin zuten bezala. Horien artean, J. Garmendia edo L. Villasante... Hona J. Garmendiaren hitzak "Estamos preparando un estudio sobre éste tan debatido o tópicó problema. Concretamente en Zaldivia, y en 1789, se exigía en un acuerdo del Ayuntamiento la enseñanza tanto del castellano como del vascuence. En este ensayo Iztueta exagera evidentemente. Estamos plenamente de acuerdo con el P. Villasante en la afirmación que hace en su «Historia de la Literatura Vasca», pág. 254: «Los vascos nos quejamos frecuentemente de que maestros y maestras castellanos vengán a regentar las escuelas primarias de nuestros pueblos; pero luego, con notable falta de lógica, apenas si se encuentra un vasco que quiera tomar sobre sí la abnegada y sacrificada labor docente. El materialismo nos empuja a otras profesiones más lucrativas o cómodas. ¿Hay, entonces, derecho a quejarse de que los extraños al país sean los educadores de nuestros niños? ¿No sería más eficiente imitar el ejemplo de Iturriaga o el de un Gregorio Arrúe?». in *Obras inéditas de Iztueta*. Bilbo: La Gran enciclopedia vasca 1968, 115. Oharrean.



Elbira Zipitria 1932an Eusko Ikaskuntzako udako ikastaroan

Goiko argazkian¹²⁵ agertzen den bezala, asko dira, identifikatzen ez ditugun arren, Elbira Zipitriaren inguruan dauden emakumezkoak, 1932ko Eusko Ikaskuntzako udako ikastaro bateko saio batean ateratako horretan. Ikasle gisa joanak, gehienak.

Eusko Ikaskuntzak gazteak eta emakumeak (biak kategoria berean sartuz) erakartzeko borondatea erakutsi zuen, bere orrian agertzen denez. 1918tik 1936ra bitarte bazkide ziren ikasleak bakanak izan ziren, urtez urte, salbu eta 1920an¹²⁶:

3. Taula: EMAKUMEEN BAZKIDETASUNA

1919	12	1925	2	1931	9
1920	131	1926	2	1932	20
1921	1	1927	6	1933	10
1922	3	1928	3	1934	17
1923	3	1929	1	1935	7
1924	-	1930	8	1936	-

Iturria: Eusko Ikaskuntza.¹²⁷

Eta abertzaletasunaren bultzada medio sortutako andereño mugimendua hain izan zen garrantzizkoa, non Espainiako altxamendu militarrek zapaldu egin zuen¹²⁸.

Gerra ostean andereñoak izan ziren euskaraz erakutsiz hezkuntza eraldatzaileko motorrik eraginkorrenak, Elbira Zipitria Irastortza buru¹²⁹. Talde-lana, euskara sustatzeko lanak, bide berriak urratzea eta ikastolak legezkatzea izan zen emakumezko askoren xede nagusia. Horrekin batera, etxeetara zokoratua zegoen euskara haurrei ikastolen bidez erakustea. Oso talde txikiekin lan egin zuten eta antolaketa praktiko guztia beraien gain zegoen: etxeak antolatu, garbitu, umeei etxean erakusteko materialak sortu, euskal kulturako orduko erreferenteekin eta gurasoekin ikastolen mugimendua osatu, inguruko jendea eta gazteak euskaldundu, emakumezkoen mugimendu abertzaleak osatu...

Baina, urte haietan erabili zuten materiala emakumezkoak idatzia izan zenik esan ez daitekeen arren, Elbira Zipitriaren metodologia aurrerakoiak erein zuen euskal letren eta haur literaturaren hazia¹³⁰ eta baita hainbat aldizkaritan idatzi izanak, gutunak idatzi izanak... Elbira Zipitriak berak *Ira* goitizenez sinatu zituen bere lanak.

Ez da harrigarria ia ezer ez zegoen garai haietan irakaskuntzan ari ez zirenak ere haur-literaturari eskaini izana denbora, besteak beste, Manuel Lekuonak edo Orixek berak. Baina ikastolak legezkatzeko ere irakasleriaren titulazioak egokitu beharrak beste ikerketa eta idazketa mota batzuetara ere bideratu zituen haietako andereñoetako batzuk, horien artean, baita bertako ikasleak ere, hara nola, Errepublikara garaian Donostian ikastolako andereño izan zen Maria Dolores Goia Mendiolaren alaba Miren Egaña Goia¹³¹, batez ere euskara ez den beste hizkuntza batzuetan idatzi duena.

Iparraldean ere Maddi Ariztik eta Marijane Minaberrik ikasleei zuzendutako liburuak argitaratu zituzten. 1969an legezkatu zen Orixe Ikastola Donostian, eta aurrerantzean,

¹²⁵ MITXELENA, Karmen *Elbira Zipitria*. Bidegileak. 2005.

¹²⁶ http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/artikulua/ar-40053/2019-4-30ean_kontsultatua

¹²⁷ http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/artikulua/ar-40053/2019-4-30ean_kontsultatua

¹²⁸ URUBURU, Laura *Emakume abertzale batzaren sorrera (1922-1936)*. B. ATXAGA, Mikel *Emakume idazleak (1908-1936)*. GOTZON, Egia. *Emakumea euskal irakaskuntzan. (1914-1975)*. CANO, Harkaitz *Emakumea euskal antzerkian*. Bidegileak. 1997. Kontsulta liteke Interneten: <http://www.euskara.euskadi.net/appcont/sustapena/datos/emabatza.pdf>

¹²⁹ ABASOLO, Resu, LOPEZ DE MUNIAIN, Juana, URBE, Arantxa *Ilunetik argira. Elbira Zipitria*, Xangorin, 2004.

¹³⁰ MITXELENA, Mari Karmen *Elbira Zipitria*. Bidegileak. 2005

¹³¹ <https://independent.academia.edu/MirenEganaGoya>.

ikastolek beste neurri bat hartu zuten. Ikastola horietako ikasleentzako hasi ziren idazten hainbat emakumezko. Horien artean, Lourdes Iriondo, kantari ezaguna, azken urteetan haurrentzako literatura eta antzerkia idatzi zuena.

Andereño izan zen Mariasun Landa, eta Amaia Lasak ere magisteritza ikasi zuen eta atzerrian bizi izan zenean eta Euskal Herrian ere irakaskuntzan aritu da. Mariasun Landa bera ere mintzatu da gai honetaz, baina baita beste hainbat ere. Interesgarria da 1983an 36 urte zituen Iparraldeko andereño baten aitortza: “Ez nuen andereño izatea hautatu pentsatuz emazte batentzat ofizio polita zela, baizik zerbait egin nahi bainuen galtzen ari zen gure mintzairaren alde”¹³².

Beste alde batetik ere, gainera bederen, hizkuntza, generoa eta irakaskuntzari buruzko azterketa bat egitea ere garrantzizkoa da, gutxienez, euskal emakumezko idazle askok irakaskuntzarekin duten loturarengatik eta emakumezkoak hizkuntzaren egoeraren eraldaketaren partaide hasiera-hasieratik izan direla erakusteko.

Baina azpimarratu behar da gerraurreko eta gerraosteko emakumezko idazleen lana ez zela idaztea bakarrik izan. Har dezagun Pilar Sansinenea¹³³. Arantzadi Zientzia elkartearen sorreran egon zen Reyes Korkostegirekin batera, edota Jesus Elozegi bere senarraren argazkien inbentarioan eta datatze lanetan aritu zen etengabe Karmele Goñi Auzmendirekin, gero Bilboko Euskal Museoaren zuzendari izan zenarekin. Edo hainbat hizkuntza-inkestetan parte hartuko zuen, Mitxelenarekin batera, adibidez, Uztarroten egindako elkarrizketetan erronkarierari buruzkoetan, kasu¹³⁴.

Urteak pasa diren arren, emakumezko idazle askok gaur ere, haur eta gazteei lotutako literaturarekin harreman handia dute, irakasle ez izan arren. Adibidez, Euskal Idazleen Elkartera (EIE) bazkide-tuta dauden artean egoera hori argi ikusten da. Baina kasu hauetan, haur eta gazte literaturari iritsi diren gazteak, batez ere, Arte Ederrak ikasita edota profesionalizazio bide bila dabilta, izan ere, ez baita erraz euskal idazle batentzat profesionalizatzea euskal gazte eta literaturan aritu gabe. Ez dezagun ahaztu gehien berrargitaratu diren emakumezkoen

obrak (Jasone Osoro, Aintziñe Mendizabal...) lotuak daudela irakaskuntzan irakurri ohi diren liburuekin, gizon idazle gehienek bezala. Are gehiago, ikuspegi profesionala duten emakumezko idazle anitzek bere liburuen berrargitalpena haur eta gazte literaturarekin edota testu-liburu egiletzarekin lotura estua dute. Egundaino ere, euskaraz berrargitaratutako liburuen artean emakumezkoek idatzitako gehienak testuliburuak direla¹³⁵.

4.2.1. Euskaraz idazteko motibazioa partekatzea eta elkarlana

Euskara ikasteko motibazioak bezala, euskaraz idaztekoak euskaldun sentiarazten gaitu, euskaldun izateak baino gehiago euskaraz egiteak egiten gaitu euskaldun, Jone Miren Hernandezek dioenez¹³⁶. Euskaraz idazten dugunean euskal idazle izan nahi dugu, emakumezko edo gizonezkoa izateak ez gintuzke ernegatu behar.

Idazteko eta euskaraz idazteko motibazioak partekatzeak elkar ulertzen lagun dezake; eta ulertzen lagun dezake baita norbere sorkuntza-lanak: emakumezkoenak izateagatik ez direla, beste gabe, salbuespenekotzat hartu beharrekoak, eta emakumezko ez direnak bezalaxe geure ingurune soziologikoan kokatu behar direla. Hala ere, emakumezko izanda, euskaraz idazteak argibide gehiago eman beharra dakarkio emakumezko idazleari; neurri batean, balirudike, sarri, zerotik hasten dela emakumezkoa, denean, hain zuzen ere, edo aurretik emakumezkoek egindako lana ezezagun zaigulako, edo adierazten zaigulako emakumezko guztien izenean idazten ari garela. Baina egia da, aldi berean, sortzaileon motibazio eta burutapenen berri eman ezean, ez dela errazago geure hautuak ulertaraztea.

Idazten hasteko orduan, euskal emakumezko askoren motibazioa euskara bera izan da. Hizkuntza hautatu dugulako gara euskal emakumezko idazle. Motibazio berbera gizonezko askorena ere, bistan denez, B. Etxeparerengandik hasita.

¹³² AIZAN *Emakumeak mintzo*. Donostia, Elkar-ae. 1983, 71.or.

¹³³ SAIZAR AROSTEGI, J.M. “Gerragatik ihes egin behar” *Tolosaldeko ataria* 2014-1-17 <https://ataria.eus/tolosa/1389955487273-gerragatik-ihes-egin-behar>

¹³⁴ “Contribución al conocimiento del dialecto roncalés” BRSVP, 1953. 4. Edo *Gerratik ihesi* <https://ataria.eus/tolosa/1389955487273-gerragatik-ihes-egin-behar>.

¹³⁵ TORREALDAI, Juan Mari. Aip. ob.

¹³⁶ “Euskara birpentsatu beharra: ekarpen batzuk antropologiatik” *Bat. soziologia aldizkaria*. 2008 in <http://www.soziolinguistika.eus/files/02%20JM%20Hern%20c3%a1ndezpdf.pdf>.

Motibazio hori, baina, arrazoi berdinegatik gauzaten al da emakumezkoen eta gizonezkoen artean, berdin gauzaten al da klase sozial eta garai guztietan? Adibidez, ez dezagun ahantzi formakuntza jasotzen zuten emakumeen artean zein garrantzizkoa izan den eleaniztasuna lantzea, batez ere, gainera, emakumezkoak izan direnean ezkontzen bidez gauzaten ziren trukerako letrak¹³⁷.

Botere eremuetatik arras atzendu ziren emakumezkoak Ertaro ondorengo mendeetan Europa osoan. Emakumezkoen liburuak (Margarita Nafarrokoaren *Heptameron* adibide gisara) ez ziren zabaldu, gutun-trukeak, erreginen estatu-memoriak, emakumezkoen kantuak, eresiak, atsotitzak... eremu publikotik desagerraraziak izan ziren.

Emakumezkoen eskubideen alde zeuden humanistek ere emakumezkoentzako egokiak ziren diziplinak zehaztu zituzten. 1389an Antonio Loschiken *Domus pudicie* ("Emakumezkoen ohore-garbitasun" gisa-edo itzul daitekeena) liburuak hasi zuen bidea ilustrazioak ere bereganatu zuen, eta, antza denez, Bizenta Mogelen osabak ere bazuen horren berri.

Euskaldunok, ordea, ezin izan dugu euskaraz ikasi eskoletan, unibertsitateetan. Euskaldunon alfabetatzean eragin duten hainbeste emakumezkoen eragina ezin da, noski, aristokrazia-aren parametroetatik aztertu, baina beti eleanitz izan diren giza-taldeen eraginez burutu izan da, eta horien artean, emakumezkoak izan dira nagusi. Zentzu horretan, berdina al da euskal emakumezkoek bere hizkuntza eskoletara eramateko egin zuten ahalegina?

XX. mende hasieran, alfabetatu beharra desira bat ez ezik betebeharreko zerbait zen. Eta gainera emakumezkoentzako lehenengo maistra eskolak sortu ziren. Maistra eskola haietara joaten ziren emakumezko asko euskaldunak ziren, baina beraien formakuntza ez zen ez elizgizonena bezalakoa, eta ezta beste unibertsitate-ikasketetakoak bezalakoa ere.

Erdaraz ikasi zuten emakumezkoek sortutako mugimenduak argi izan zuen, gaztelaniaren eta frantsesaren indarrari eusteko, errazagoa izango zela irakaskuntza hasieratik, haur zirenetik, euskaraz irakatsiz gero.

Har dezagun adibidez, Maria Dolores Agirre itzultzailea eta antzerkigilea. Toribio Altzagarekin batera euskal antzerkigintza burgesiaren eszenatokietara eraman izan zuena. Obra bakarra idatzi zuen eta ziurrenera modernotasun bila idazle garaikide askoren lanak itzuli zituen (R. Tagore, Casona, Lorca...). *Egan* aldizkarian 1956an argitaratu zuen artikulua batean hona zer zioen garai hartan ere, atzerriko hizkuntzak erakutsiaz bat, euskara bazterteaz:

"Ez degu guk, emakumezkoek beintzat, euskal izkuntzaren oguzpen ta eusteari dagokion ajolarik. Erbestera ta erbeste-izkuntzei begira bizi gera beti. Gaurko leloa auxe: Gure seme-alabak ikasi ditzatela bi edo hiru izkuntza, zenbat eta geyago obe; ingelesa, pantzera, dotxera ta abar, baña etxekoa, zokoratu, ez. Ludi zear Unibersidadetan, gure izkera zaarra goratu ta aipatzen diran bitartean, gu gureaz mutututa. Burubide orretan, arritzekoa al da ba gure ele maitearen tximukatze negargarria?"

Elebitasunaren eta eleaniztasunaren eta elebakartasunaren gaiak garrantzizkoak dira euskal letren egoera diglosikoan. Gaurko egunean ere, Euskal Herrian eleaniztasuna martxan jarri zenetik azterketa asko egin da eleaniztasunaren abantailak defendatuz¹³⁸. Hala ere, gaur egun ere nabarmena da, antza denez, hizkuntzarekiko arretaren kontuan emakumezkoek eta neskek eleaniztasunari buruz duten aurreikuspenaren eta gizonezkoek eta mutilek duten aurreikuspenaren arteko aldea; handia dela¹³⁹. Elbira Zipitriak garbi zeukan "Txori bakoitzak bere abestia, Herri bakoitzak bere hizkera, Euskaldunok euskera! Guk ahal ditugun hizkuntza gehienak ikasiko ditugu: buruan hiru... edo, baina bihotzean bakarra: gurea!"¹⁴⁰.

¹³⁷ Joana III.a Albretekoa, "Nafarroako erregina eta Bearnoko Andre gehien" hori dugu eredu behineneko bat. Karlos V.ak bere seme Felipe II.arentzat nahi zuen neskatxa, zeina François I.ak eta Margarita Angulemakoa hamabi urte zituela behartu zuten Clèveseko dukearekin ezkontzera. Nafarroako errege-familiako emakumeak Nafarroako Erresumari Europan hedatzen eta kokatzen permitituko zioten hizkuntzak ikasi behar izan zituzten, eta oso emakume argi eta eleanitzak izan ziren Joana bezala Margarita ere. Joana III.a, Albretekoa, erregina zela, Orthezen unibertsitate kalbinista fundatu eta euskaldunen artean protestanteen ideiak zabaltzeko Testametu Berria euskarara itzultzeko agindu zion Leizarragari. Molde horretan, euskal estatuaren lehen hizkuntza-planifikazioa burutuz, X. Kintanaren arabera. "Joanes Leizarraga: vida y obra" In LEIZARRAGA, Joannes *Jesus Christ Gure Iauaren Testamentu Berria*. Iruñea: Caja de Ahorros de Navarra, 2007.

¹³⁸ AGIRRE AZPIAZU, Maria Dolores "Bear-bearra" *Egan*, 1956, 1-2, 19-22. ELORZA ALDAY, Itziar, MUÑOBA BARREDO Inmakulada. "Euskara sustatzeko eleaniztasuna: Ikastolen kasua". *Ikastaria*, 17. 2010, 39-66.

¹³⁹ BOGAARDS, P. *Gaitasuna eta afektibitatea hizkuntza arrotzen ikaskuntzan*. Habe, 1998.

¹⁴⁰ ABASOLO, Resu eta beste *Ilunetik argira*, aip. ob. 3. or.

Zergatik ez erabili orduan ama-hizkuntza? Hara euskaldun askoren eta euskal emakumezko idazle askoren motibazio-iturri berezia. Amatasuna goresten zuen erregimen politikoa bilatu zuten emakumezko askok ama-hizkuntza defendatzeko arrazoibidea, goretsitako amatasun horrek emana.

Eta agian, gainera, egia izan daiteke, euskararen alde aritzeko izan ez balitz, emakumezko horiei ez zitzaiela burua leihora ateratzen ere utziko. Ezin berretsi eta ezin uka.

XX. mendean idazle askok hizkuntzaren galerari aurre egin zioten, euskaldun berri bihurtu ziren. Baita hainbat emakumezko ere. Mariasun Landak hizkuntzaren zauriaz idatzita utzi du, la *herida lingüística*z ari delarik¹⁴¹. XXI. mendean idatzen hasi diren emakumezko gehienak, dagoeneko, euskaraz ikasiak ziren irakaskuntza-sisteman, lege aldetik Euskal Herrietan dauden oztopoak oztopo. Euskara batua egina aurkitu dute eta neurri handi batean arautua.

Eta gainera, urte askoan ez bezala, XXI.mendeko emakumezko idazle asko, idaztean ere eleanitz da. Batetik emakumezko askok, beren profesionaltasunaren bidean, bakoitzak itzuli izan ditu bere sorkuntza-lanak erdarara, profesionaltzeak eta obra beste hizkuntza batzuetara itzultzeak batera joan behar izan duen heinean (Mariasun Landa, Miren Agur Meabe...). Baina, aldi berean, egia da euskal unibertsitate mailan eta ikerlanean ari direnek zuzenean hobesten dutela sarri euskara ez erabiltzea, eta bere obra literarioa euskaraz garatu arren, ikerlanak erdaraz idaztera jotzen dutela¹⁴², horrek erakusten duelarik, aldi berean, euskarazko letren sistema erabat osatu gabe dagoela edota ez dela autonomia, heteronomia baizik; eta gainera, gizartea eraldatu ahala eraldatzen dela motibazioa eta alderantziz.

4.2.2 Emakumezko idazleak, gizarte eragile

Asko izango dira, eta arestian aipatu gabeak gehienak, Euskal Herrian emakumezkoak eta irakaskuntza lotu dituen arrazoiak. Baita emakumezkoak gizartean parte hartzeko orduan hizkuntzarekin garatu dugun harremana ere. Ba ote da biologia eta hizkuntzaren arteko harreman zuzenik? Adierazi ahal izateko gunek bakarra izan ote da, sukaldetik kanpora, ume-zaintza, irakaskuntza?

XX. mendeko euskal prentsan idatzi zuten emakumeak asko dira, eta ziurrenera beste hainbestek sinatu gabe edo modu orokorrean sinatuz galdu egingo zen haien arrastoa. Beste batzuk oso ezagun izan ziren bere garaian, urte askoan beraien memoria atzendua egon den arren. *Euskal Esnalean* idatzi zuten, besteak beste, Marie Diharassarrik, Mayi Ariztia izenez ezagunagoak, Ignazia Praderek, Rufina Azkuek edo Kataliñe Eleizegik. *Euzkadin*, adibidez, Miren Agur Zalduek, Karmelek, Errosa Bustintzak, Arantxak, Ane Mirenek, edo Balendiñek.

Gerratean eta gerra ondoren emakumezko idazle hauen lana (Julene Azpeitia, Sorne Unzeta, Maria Dolores Agirre), onarpen handirik gabe atera zen aurrera. Horra hor Julene Azpeitiak Sorne Unzetak eta ezagutzen ez ditugun beste batzuek, *Euzko Gogoan* egindako lana¹⁴³, Balendiñe Albizuk *Euzkadi*, *Euzko Gaztedi*, Sabindarra, Irrintzin bere poemak argitaratzen eta Caracasetik Euzkadi Irratian lanean. Iparraldean, Mayi Ariztiak, Marie Diharassarri sortze-izenez, 1934an argitaratu zuen *Amattoren uzta*, gerora ere berrargitaratu zena. Bigarren Mundu Gerraren ostean hasi zen Marijane Minaberri idatzen, baina hasieran irakasle izan zen, eta bera izan da Haur eta Gazte Literaturako aitzindaritzat hartua¹⁴⁴.

Talde-lanean aritu ziren emakumezkoak ziren emakumezkoen lantaldeetan bakarrik aritu, Emakume Abertzaleen Batza bezalako taldeetan antolatuta ziren, edo Elbira Zipitriak sortutako andereño-taldeak bezalakoetan¹⁴⁵ ere. Eta talde-lan honetan

¹⁴¹ "Txikiaren handitasuna/ Grandeza de lo pequeño" *RIEV*, 60,1, 2015. 151-164.

¹⁴² PEÑAGARIKANO, Gorka "Ikergazte egitasmoa" *ARGIA*, 2019-5-5, 2.642. zbk. 30-31.

¹⁴³ IZTUETA ARMENDARIZ, Paulo *Erbesteko euskal pentsamendua*. Donostia: Utriusque Vasconicae, 2001.

¹⁴⁴ ETXANIZ ERLE, Xabier *Euskal haur eta gazte literaturaren historia*. Iruñea: Pamiela, 1997.

¹⁴⁵ ARANBURU PUENTE, Xabier "Hezkuntzaren historia Euskal Herrian. Ikastola. Elbira Zipitriaren biografiarako jakingaiak: Ikastola Donostian 1942- 1969 urte bitartean" *Cuadernos de Sección. Educación*, n.º 4, 9-7 4. non aipatzen dituen berarekin praktikak egindako andereñoen artean: Mari Karmen Lasarte, Kontxi Beitia, Arantxa Arrazola. Maritxu Marizkurrena, Izaskun Busto, Koro Aldenando, Miren Terese Aleman, Arantxa Mendizabal, Begoña Goia, Nekane Iturbe, Feli Etxeberría, Iñake Irastortza, Maritxu Ilarramendi. Eta ezin ahaztu Karmele Esnal, M. Karmen Mitxelena, Faustina Karril andereñoak, nahiz eta hauetakoa ia inork erabilitako eta sortutako materiale pedagogiaren egile gisara ia inoiz agertu. Idoia Fernandezek elkarrizketetan oinarritutako historia idatzi zuen eta baita Elbira Zipitriaren programazioari buruzko informazioa eskaini ere. *Oroimenaren hitza. Ikastolen historia (1960-1975)*. Bilbo: UEU. Bizkaiko Foru Aldundia, 1994.

sarri beren izen-abizenak baino geratu ez diren arren, beste batzuetan, etnografian, dialektologian, edo kantu eta ipuin-biltzaileen artean izanik ere, haien izenak antologia eta bilduma askotako paratestuetan soilik agertzen dira, informatzaile gisara.

Har dezagun kasu *Erronkarriko Uskara*¹⁴⁶ liburua, zeina liburuan bi aldiz aipatzen den Izabako Simona Anauten ezinbesteko parte-hartzea, eskaintzan eta azken orrian, eta gainera, informatzailearengandik (Balbina Ederra) eta magnetofonograbatzailearengandik bereiziz.

Informatzaileen egoerak, sozialen berri biltzeak (egoera zibila, lanbidea) emakumezko askoren presentzia eta sare hipotetikoak lotzeko ere baliagarria dirudi. Litekeena da arestian aipatutako Pilar Sansineneak parte hartutako azterketako Pilar Garde Garde informatzailea, hamar urte beranduago *Erronkarriko Uskarako* informatzaileak magnetofonoz grabatzen ari zen Martzelino Garde apaizaren familiakoa izatea, edo R.M. Azkuek bere *Euskal Erriaren Yakintzan* aipatzen dituen arrebaren esku-hartzea eta amaren informazio-ematea izugarria izatea. Zer esanik ez Aita Donostiak, J.M. Barandiaranek eta beste hainbestek aipatutako informatzaileena bezala.

Alde batetik, mundu publikoa eta pribatua hain modu bortitzean bereizi dira non euskara etxeetan gorde den eta etxeak ziren etxekoandreen ohiko eremuak. Honen harira baieztza liteke emakumezkoek hizkuntzari egin dioten ekarpena ez dela sekula eten, izan ere, azken mende erdian euskararen errepresioa hain bortitza izan arren mundu pribatutik bakarrik egin ahal izan zaion aurre. Ez da, beraz, gutxietsi beharreko faktorea, zeren eta bestela euskara —oraindik orain ere, galtzen ari diren beste hizkuntza askok bezala— galdua izango baitzen.

4.3. HIZKUNTZA eta EMAKUMEZKOAK

Egia al da emakumezkoek hizkuntz jario handiagoa dugula, hizkuntz gaitasun handiagoa dugula? Zergatik? Iritzi kontrajarriak daude, noski baina honela laburtzen du egoera Pau Bogaards-ek “[Hutten] esanetan, gizona eta emakumezkoen burmuinen antolamendu estrukturala eta funtzionala oso gaztetik da desberdina eta nesken garapen intelektuala hizkuntza garapenak markatzen du, mutilengan faktore ez-hitzekoek eginkizun garrantzitsua dutelarik (Hutt 1972:86-95). Arrazoi biologikoak egongo lirateke, beraz, hizkuntzaren aurreko portera desberdinen azpian eta, zehazki, prozesu neuro-endokrinologiko desberdinak”¹⁴⁷.

Pau Bogaardsek jarraitzen du esanez ez duela datuak dauden daudenean eman besterik egiten, ez baitu bere burua jakitun gai horretan.

Arrazoiak ematen hasita, egileak haxe ondorioztatu du: “Neskek hobeto egokitzen diote beren burua eskolako sistemari mutilek baino”¹⁴⁸.

Izan ere, eskolan “mutilek ahal duten baino lan gutxiago egiteko joera dute, hain jarrera baikorra ez dutelako”; nesken kasuan, aldiz, baikorra ez dena lan-munduarekiko jarrera da. Bistan da, neskek munduarekiko eta ekonomia-arloarekiko dituzten interesak ezberdinak ez ezik apalagoak direnez, arrakasta izateko eskolara ondo egokitzea eskatzen zaigula, eta mutilei beraien balioa aitortua izan dadin eskolara hain ondo ez egokitzea iradokitzen edo zaiela.

Garrantzizkoa al da emakumezkoak hizkuntz gaitasuna izatea ala ez? Behar luke, teorian bederen, zientzietan gizona eta nesken kanona defendatzen dutenek beraien oinarritzko gaitasun teknologikoez aritzen diren heinean eta berriz emakumezkoek jakintsuegia izatea nortasun ezarekin lotzen denean, ia nahi eta nahi ez, eta esango nuke, ia konturatu gabe.

¹⁴⁶ Zarautz: Estornes Lasa Hnos (Edit. Auñamendi), 1965. Gaia zabal tratatu du David Anautek. ANAUT, Dabid *Euskararen kate hautsiak. Hizkuntza zapalkuntzaren memoria* Andoain: Aise Liburuak. 2005. Liburuan datuaz gain egoera bizi izan duten informatzaile asko ageri da, horien artean emakumezko asko.

¹⁴⁷ *Gaitasuna eta ofektibitateak hizkuntza arrotzen ikaskuntza*. Habe, 1990, 91. or. Eta dio “Interesgarria da ama-hizkuntzak mutilengan eta nesken duen garapenari begirada bat egitea. Maccoby eta Jacklin-ek (1975, Van der Geest-ek 1981:21 aipatua) diotenez, garapen hori azkarragoa da nesketan mutilengan baino, hiru urte bete arte. Hiru urtetik hamaika arte, ez dago alderik mutil eta nesken artean, nahiz eta neskek apurtxoren bat aurreratuegoak egon. Hamaika urtetik aurrera, nesken hizkuntza azkarrago garatzen da mutilengan baino”. Hutt-ek (1972:88-89) ikuspegi hori indartzen du esanez: “Adoleszentaroaren azkenaldara, mutilen gaitasunak, nolabait esateko, ‘zorituz’ direnean, egin daiteke sexuen arteko konparazioa”. Argi dago ikuspegi hau lehen azaldu ditugun ildo nagusietatik dabilela.

¹⁴⁸ aip. ob. 91.or.

Kontua da emakumezkoen gaien hipotesiak, aldekoak izan ala aurkakoak izan, beti emakumezkoen irudiaren aurka jartzen direla eta norbanakoarentzat erasorako prest dagoen plazara irteteko bidea besterik ez dela geratzen. Halaxe utzi zuen idatzia, 1979an Amaia Lasak *Nire Paradisuetan*¹⁴⁹:

*Ez gaitue
gizarte hontarako hazi eta hezi
besatu baizik.
Arrosa kolorez jantzi gaitue
arrastaka horma guztiak igurtzirik
zazpi koloreen berri jakin dugu
[...]
Garenok gara
herriko desherriratuak
kolore guztien maitaleak.*

Emakumezkoak isiltzeko, ustezko berriketa eta hitz-jarioa eten beharra izan da. Baina emakumezkoen aurkako argudio handiena berbatia izatea izan denez, eta berbatiaz bat ez "garbiak" izatea, alegia, geure egoerez mintzatzea¹⁵⁰ ere, emakumezkoaren hizkuntz jarioa egokia bada, nola dago emakumezko gutxiago literatura-sistemaren kanonean? Salbuespenez, etorriko zaigu burura. Eta ez. Idaztea posible izan bada, hain zuzen ere, mututu gaituen salbuespen-historiaren aurka bakarrik izan da posible. Salbuespen-egoera iraunarazi duen erakunde nagusia Inkisizioa izan da, lau mendez.

Horrek, noski, literatura-sistemari buruz hausnartzera garamatza beti, izan ere, zenbat burla ez du jaso emakumezkoen idazteko manerak, idazteko manera hori narrazioaren eredueta edo eredugarri ez zen prosara egokitu ez denean? Euskaldunak aipatu gabe, adibidez, Marina Tsvietaieva, Virginia Woolf, Nelly Sachs, Lou Andreas-Salomé, eta beste anitz gogora dezakegu. Zenbatetan ez den eromenaren zantzu bezala esplikatu emakumezkoek letren ereduak iraultzeko egin duten ahaleginean hizkuntza bera askatzeko egindako lanketa-estilistiko bera?

Eskubide berdintasunaren aldeko borroka ez dator bat emakumezkoak emakume eredu jakin batekin berdintzearekin, ez eta emakumezkoa gizonezkoaren marka txuria bezala tratatua izatearekin. Gehiegixotan berdindu gaituzte berdintasunaren aldeko aldarrikapenaren izenean ere.

Arestian aipatu dugun bezala, gizartean eragin ahal izateko hizkuntzari erreparatu behar zaio. Eraldaketaren indarra, hein handi batean, kontzeptuak modu berrian definitzean, ñabardura batzuk indartzean, hiztegia berritzean oinarritzen da. Hala egin zuen kristautasunak, hala egin zuen Frantziako Iraultzak, hala egin dute nazionalismoek, hala egin dute estatuek, hala ari da feminismoa ere. Izan ere, G. Deleuzek esan ohi zuen bezala, kontzeptuak bere oihartzun-ahalmenaren arabera definitzen dira.

Horretaz ondo jabetua da feminismoa, hizkuntzaren erabilera gizonkoa salatzen duenean, kontzeptuei buruz hausnartzen duenean, argudiaketaren indarra kontraesanean jartzen duenean.

Euskal kulturaren kontzientzia diglosikoa zabaldua dagoen bezalaxe hedatu da feminismoarekin hizkuntzaren mespretxuzko erabilera-kontzientzia ere¹⁵¹. Euskal emakume idazle batzuentzat genero-menperakuntza eta hizkuntza-menperakuntza, menperakuntza berberaren alderdiak dira.

Hizkuntzaren beraren balioen hausnarketa hedatzea izan daiteke euskal literaturan emakumezkoek burutu beharreko beste eraldaketa-bide bat.

¹⁴⁹ Donostia: Ediciones Vascas, 1979, 19. or.

¹⁵⁰ "Nullam eloquentem esse casta" RIUS GATELL; Rosa "Isotta Nogarola: una voz inquieta del Renacimiento" in Birulés, Fina. aip. ob., 65-91.

¹⁵¹ AGIRRE, Lorea; ESKISABEL Idurre *Trikua esnatu da* Donostia: Lisipe.2019.

V. kapitulua

EUSKAL

LETRAK



Egun, literatura liburugintzatik bereizi bezala egin da. Literaturari fikzionaltasuna (bakarrik) onartzeko joera dago, beharbada ingelesez erabili den terminologia medio¹⁵². Egun, orokorrean, literaturaz ari garenean, fikziozko prosaz eta, azken batean, genero narratiboaz ari gara.

Emakumezkoek euskal letretara egindako ekarpenez eta ekarpen horren ikusgarritasuna eta sustapena bultzatzeko orduan, emakumezkoek idatzita utzi duten genero oro kontuan hartzeko ikuspuntua aldarrikatzen du *euskal letren* kontzeptuak.

Literatura zentzu zabalenean hartzeaz bat, modu sistematikoan ere aztertu behar da, biderik itxi gabe euskarazko edozein azterkizuni: ez filosofiari, ez filologiari, ez etnografiari eta ezta saiakera teknologikoari ere.

Euskal letretako emakumezkoek landutako genero batzuk ez dira euskal kanon literarioarako askietsiak izan. Adibide bat jartzearen: Mariasun Landa izango da euskaratik beste hizkuntzetara itzulien izan den egileetako bat. Hala ere, Haur eta Gazte Literaturako sailoetan ageri ez delarik, ez da literatura-historietan oso erraz sartu. Horrekin, Mariasun Landaren eredu arrakastatsua aintzat ez hartzeaz gain, ez zaio erreparatu euskal liburugintzan hain pisu handia duen sektoreari (irakaskuntzari lotuari).

Baina gauza berbera gertatzen da liburugintzako beste arlo batzuetan. Eta euskal kanonean ere literatura idazten duten emakumezkoen hausnarketa ez-literarioak ez dira asko hauspotu: Amaia Lasak *Zeruko Argian* idazten zituen artikulu politiko eta ekonomikoak; A. Urretabizkaia¹⁵³ itzuli zuen hainbat saiakera-politiko; Itxaro Bordak 1983rako argitaratu zuen bere *Emakumeak idazle*¹⁵⁴ edo urtetan idatzi dituen prentsa zutabe eta artikuluak, beste hainbatek bezala (Karmele Jaio, Miren Amuriza, Ana Urkiza...)

Bitartean, euskal prentsan emakumezkoen kolaborazioek gora egin dutela nabarmen eta **Hegats, Jakin** eta beste hainbat aldizkaritan emakumezkoen elkarrizketa ugaritu egin

dela. Hala ere, bere ibilbide literarioa egin arte ez dute jo saiakera bidez bere bizipenen berri ematera. Mariasun Landa, Arantxa Urretabizkaia... hasi dira azken urteetan.

Baina XXI. mendean saiakerarako joerak gora egin du eta emakumezko idazleen saiakera ildo unibertitatean gauzatzen ari da.

Modu horretan posible izango da aztertzea nola parte hartu dugun emakumezkoek euskal letren sisteman. Eta sistematikoki aztertzea ezinbestekoa izan daiteke, emakumezkoen sorkuntza-lanen eta emakumezkoen estilo aniztasuna azalertzeko.

5.1. EUSKAL LETREN SISTEMA

Azken hamarkadetan euskal liburugintzaren osaketa argiago geratu da, sistematikoki burututako hainbat azterketaren ondorioz (Juan Mari Torrealdai eta Juan Luis Zabalarenak, batez ere). Azterketa horiek eta emakumezko idazleek idatzi eta esandakoaren ezagutzak adierazten du azken urteetan emakumezko gehiagok diharduela euskal letren sisteman: idazten, argialetxeetan, sariketetako epaimahaietan, literatura erakusten, komunikabideetako zuzendaritzan... Sortzaile gisa idazten ez ezik euskal letren sistemaren beste gune batzuetan ere parte hartuz, baldintzak baldintza, erraztasun eta emankortasun handiagoz, **eta sisteman bertan eragiteko kontzientzia osoz**, inolaz ere.

Ikuspegi sistemikoa aplikatuz euskal letren sisteman sormen edo produkzioa, bitartekaritza, harrera eta birsorkuntza nola antolatzen den aztertzen da ikerketa askotan (Mari Jose Olaziregik¹⁵⁵ edo Ana Gandara Sorrairenek¹⁵⁶, besteak beste). Mari Jose Olaziregik, euskal sistema literarioaz ari zelarik ere, bereizi zituen a) **sormena edo produkzioa**,¹⁵⁷ b) **bitartekaritza** d) **harrera** eta e) **birsorkuntza**, kritika edo iruzkin bidez. Gauza berbera egin liteke euskal emakumezkoek euskal letrei eta euskal kulturari buruz ikuspegi sistemikoa

¹⁵² "Fiction broadly refers to any narrative that is derived from the imagination—in other words, not based strictly on history or fact" (Wikipedia)

¹⁵³ Frantz Fanonek *Afrika iraultzaren alde*, Ibon Sarasolarekin batera eta *Mendebaleko Ekonomiaren Historia* Sarasolarekin eta Ramon Saizarbitoriarekin. M. Dobben Sozialismoaren frogantzak eta A. Otazuren *Euskal Berdintasuna*

¹⁵⁴ Txertoa, 1984

¹⁵⁵ *Euskal Eleberraren historia. Santiago Oinandia Ikerketa* beka, 1999. 14. or.

¹⁵⁶ "Euskal literatur sistema aztergai" *Egan* 2012 1-2, 5-19. *Euskal ondare kulturalaren moldatzea: egungo kultur sistemaren oinarri. Baliabide eta forma sinbolikoak* Tesia. EHU. 2015 <https://addi.ehu.es/handle/10810/15791>

¹⁵⁷ Sortzailearen ikuspegia aintzat hartuta, sormena eta ekoizpena bereiztea garrantzizkoa da.

aplikatuz ¹⁵⁸; izan ere, ia beti euskal letren sistema aipatu orduko euskal letren industria etortzen zaigu burura.

Euskal letren sisteman emakumezkoek batez bestekoan irabazten ari diren posizioa garrantzizkoa izanik ere, emakumezkoen sorkuntza-lanak bistaratzeko sustapen-politikari eragin beharko litzaioke, emakumezko idazleen sustapenari adina. Euskal emakumezko idazleok egoera diglosikoan sortutako lanen irakurketak berak duen berezko konplexutasunari arreta eskaintzea da euskal letren sistema eraldatzeko eta euskal emakumezkoen sorkuntza-lanak birsortzeko lehen urratsa. Horretarako ikasita geratzen da euskal literaturan ere zein garrantzia handikoa den, marko teorikoan azpimarratu den bezala, euskal emakumezkoek idatzitakoari, gizonezkoek idatzitakoaren adinako arreta eskaintzea. Horretantxe baitatza hain zuzen ere **emakumezkoek idatzitakoa birsortzeko eta sustatzeko oinarriak jartzea**.

5.2. IDAZTEAZ: SORTZEKO BALDINTZAK ETA TESTUINGURUA

Idazketa, prozesu indibiduala izan arren, testuinguru eta tradizio kolektibo bati erantzuten dio etengabe, eta emakumezko idazlearentzat oso erraza da konturatu gabe P. Bourdieuk aipatutako esentzialismoaren falazia¹⁵⁹ onartzea, eta suposatzea euskal literatura ere halaberrez dela den bezalakoa.

Euskal letren sisteman sortzailearen ikuspegia landuko bada, emakumezko sortzaileari ziurtasuna eskuratzeko behar duen askatasuna onartu behar zaio oraindik. Gaur egun, oraindik, euskal letren historia emakumezkoen presentziaren eta absentziaren ikuspegitik sistematikoki arakatu ezean, zaila da ondorioztatzea ezinbestekoa izan dela eta dela emakumezko idazleen lana euskal letren tradizioa sortzeko. Horregatik, egun, zabaldu egin behar dira geure emakumezko idazleen tradizio ezaren arrazoibideak, bai idazleen artean, bai irakurleen artean eta baita Euskal Letren Sisteman parte hartzen duten eragile guztien artean ere. Baina batez ere, emakumezko idazleei dagokie lehenik hausnarketa horretan parte hartzea,

gaiak, generoak, estiloak erabakitzeke orduan, idazteaz bat gerta bailiteke emakumezkoen buruzko aurreiritziek eragin diezazkiguketean zentsuraz askatu beharra ere.

5.2.1. Saiakeraren ausazko eraginaz

Literaturaren joko zelairako lehen urratsak emateko orduan, normalean idazleek nobela jartzen dute azken mailan, euskal letretan ere. Besteak beste, idazleriaren arabera, denborarik eta tentsiorik handiena behar duen genero literariotzat hartzen delako, eta edozein liburu apalategitan ere batez ere nobela delako nagusi. Hemen ere, bistan da, aurreiritziek muga ditzaketela emakumezkoen hautuak, idazten hasi aurretik ere: zein literatura-genero erabili, zein estilotan idatzi...

Baina bada emakumezko askok darabilten genero bat, saiakera, euskal letren sisteman kasik ikusiezin bihurtzen dena, sarri, euskal letra sisteman nagusi den argialetxe-arkitekturatik kanpo sortzen delako, hain zuzen ere, unibertitate inguruan. Eta arrazoi hori medio emakumezkoek idazten duten saiakera, adibidez, ikusezina da, gehienetan, ohiko banaketa bideetatik kanpo geratu izan delako, eta itxura batera, idazketak, banaketak eta irakurketak sistema paraleloak osatzen dituztelako.

Hala ere, beste alde batetik, esan behar da euskal unibertitateetan ez dagoela ez euskal letrei eta ezta generoari buruzko saiakera bilduma berezirik, eta horrek ere, zaildu egiten duela emakumezkoek euskaraz idatzitako saiakeraren jarraipena egitea. Labur-motzean arituz azpimarra daiteke, momentuan, EHUko eta NUPeko argitalpen zerbitzuetako buruak, oraingoz, emakumezko direla¹⁶⁰, eta horrek asmo jakinik balu, eragin dezakeela hainbat puntutan. Oraingoz, euskaraz idatzi direlako EHU-UEUren argitalpen politikari esker liburu gisara argitaratzen badira ere, esan behar da EHUk eta NUPak, adibidez, ez dutela emakumezkoen buruzko ikasketak argitaratzeko sail berezirik, beste hainbat unibertitate askotan ohikoa izan arren, eta beraz euskaraz diharduten emakumezkoek bilduma baten babes gabe argitaratzen dituztela, besteak beste, generoari buruzko lanak ¹⁶¹.

¹⁵⁸ "En los inicios del siglo XXI, son bien conocidos los vínculos existentes entre la noción de sistema de Niklas Luhmann, la Teoría de los Polisistemas iniciada por Even-Zohar, la Semiótica de la Cultura de Lotman, los estudios sobre el campo literario de Bourdieu y la Teoría Empírica de la Literatura de S. J. Schmidt." in SOBRINO VEGAS, A. L. "Las revistas literarias una aproximación sistémica" in UNED. *Revista Signa*, 2014, 23. zenb., 828. or.

¹⁵⁹ "La cuestión del sentido y el valor de la obra de arte, como la cuestión de la especificidad del juicio estético, sólo se puede resolver dentro de una historia social del campo asociada a una sociología de las condiciones de la constitución de la disposición estética particular que suscita cada uno de sus estados" *Las reglas del arte*, aip. ob. 426. or.

¹⁶⁰ *UNe libros*, 37. 2018, 22. or.

¹⁶¹ "Monografías sobre género fuera de colección"(selección). *UNe libros*, 37. 2018, 21. or.

Argitaratzeaz gain, baina, sorkuntza-lanak ezagutarazteko ezagutu beharreko bitartekaritzen artean txertatu behar dira liburu eta testuei buruz beste batzuk egiten dituzten aipamenak, kritikak, iruzkin laburrak eta erreferentziak, orain gutxi arte, euskaraz idatzi duten emakumezkoek jaso ez duten harrera ziurtatu ahal izateko.

Izan ere, XX. mendearen amaierara bitarte euskal emakumezko idazleek idatzi dutenak ez du jaso ezta irakurketa filologikoaren interesik ere, eta ezta Auspoa argialetxean argitaratzen zuten noizbehinkako idazle gizonezkoen tokia ere, ez ahozkotasunaren ikuspegitik eta ezta ikuspegi soziologiko eta historiko baten ikuspegitik jaso zezaketen arreta ere. Jo dezagun Mayi Ariztiaren *Amattoren uzta*¹⁶². *La Moisson de Grand'mère* izeneko liburua. Aita Donostiak aipatu zuen bere fitxategiko bibliografiari. Garai hartan euskal kultura suspertzen eta indartzen ari zen pertsona garrantzizkoa zen Aita Donostia, folklore-biltzaile eta konpositorea. Hiztegi gintzan aritu zirenek, ordea, ez zuten erabili; Azkuek, esate batera, ez du aipatzen, momentu hartan liburu gisa emakumezko batek euskaraz argitaratutako bakarra izan arren. Baina ezta, mimetikoki, ondoren Retanak eta Mitxelenak ere. Nahiz eta Retana eta Mitxelenaren iturriak batez ere bibliografikoak izan eta euskaraz idatzitako emakumerik apenas agertu garai hartara bitarteko euskal literaturaren historian.

Beste alde batetik, oso aldizkari espezifikotan argitaratzen diren lanak sorkuntza-lantzat ez hartzeko joera oso errota egon da, XXI. mende hasierara bitartean¹⁶³. Batik bat ikerketa-eredu zurrunk jarraituz idatziak izan direlako, eta duten helburu zientifiko eta instituzionala kontuan izanda, originaltasunari erreparo handia jartzen zaiolako.

Hala ere, esan behar da egun euskal emakumezko ikertzaileek darabiltzaten gaiak oso gaur eguneko ikuspuntua dutela eta, askotan, genero-ikuspuntua ere badarabiltzela. Horrek, liburu gisara eta komunikabideei begira ere asko erraztu lezake emakumezko ikertzaile hauen iritzia hedatzea, azken aldiaren nabarmentzen ari den bezala euskal prentsan eta dibulgazio aldizkarietan.

Orain arte aintzat hartu ez izanak ez du esan nahi, hala ere,

egokiera berezi batean egonik¹⁶⁴ (...), baldintza ezin hobeak ez dagoenik euskal letretan bai euskal emakumezkoen presentzia historikoa aztertzeko eta ulertzeko bideak jartzeko, eta baita Bourdieuk aipatutako esentzialismoaren falaziarekin hausteko. Funtsean, emakumezkoek idazten dutena arretaz irakurtzeko sistema sortzea, lotuta baitago zuzen-zuzenean, emakumezkoak eta emakumezkoek idatzitako sorkuntza-lanak ardatz izango dituen lanketa planifikatzeko.

Saiakeran diharduten emakumezko idazle hauen gaitasunaz gain, egoera aldaketa honetan, emakumezko idazleek erabiltzen dituzten gaien gaurkotasanak ez ezik, lagunduko du euskal letra-sisteman prentsak eta hainbat aldizkariaren eraldaketak hartu duen indarrak ere. Euskal letretan garrantzia duten aldizkari batzuetan (*Hegats, Jakin*) emakumezkoek erredakzio-kontseiluan daude, edo baita Argian edota Berrian genero-parekotasuna lortzeko bere buruen auto-ebaluazioa egin egina dute. Bi komunikabide hauek onartzen dute parekide direla, iritzi-emaile eta idazleen % 40 emakumezko delako bi argitalpenetan, nahiz eta bakoitzak aitortu oraindik baduela zer hobetu. Ez da ahaztu behar hainbat kultur elkartetan emakumezkoak direla lehendakari azken urteetan (EIE, EIZIE) eta argialetxeetan ere emakumezkoen presentzia eta irakurle-taldeena ere eraldatzen ari dela, poliki antzean izanagatik (Susa, Maiatz, Denon artean, Txakur gorria, EHU eta Nafar Unibertsitateko argitalpen zerbitzuak).

Emakumezkoen nortasunak, askatasunak eta ikuspegiak ekarri beharko luke beste genero batzuetan bezala saiakeran ere formen eta edukien originaltasuna, eta originaltasun hori eraldatzailea izan liteke aurrerantzean.

Emakumezkoen begiradak eraberritu behar luke euskal letren sistema, emakumezkoen sorkuntza-lanari so egiteko orduan, birsortzeko orduan, originaltasun hori aintzat hartuz gero, eta autozentsuratik ihes egitea zilegi dela onartuz gero.

Baina, saiakerak idazten literatura-sistematik kanpo dabilen emakumezko idazle kopurua ikusita, garbi dago, ikerketa eta dibulgazio-liburugintza eta euskal letren industriaren artean

¹⁶² 1934an argitaratua izan zen Baionan, eta 1982an argitaratu zuen berriro Elkarrek.

¹⁶³ Gaur egun ere, euskal literatura erakusten denean ez dago euskal emakumezko idazleak aintzat hartzeko irizpidea garatuta Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzan, Idoia Rodríguez Mondragonek egindako ikerketaren arabera, irizpide hauen arabera hautatzen dituzte irakasleek irakurketa: saritua izana, famatua, lantzen diren gaiak, ikaslearen interesa, helburuak, aktualitatea, beste "Iparraldeko bigarren mailako euskarazko klaseetan lantzen den literatura-autorearen profila" *Iker gazte*, 2019. 27-36.

¹⁶⁴ Hiru baldintza hauek batera ez dira oraintsu arte eman: euskal emakumezko ikertzaileen kopurua ere historia guztian handiena da, eta emakumezko idazle askok formakuntza ez ezik, zeresana eta erabakimena du bere lantokietan; euskal emakumezko idazle eta ikertzaile asko ahaldundua sentitzen da, komunikabideetan eta erakundeetan emakumezkoak bistaratzeko premiak badu bere tokia.

dagoela erretenik zabalena, eta industriak erabat asetzen ez badu ere, hortik kanpo ere ez dagoela euskal emakumezko idazle-ikertzaileentzat antolatutako inolako argitalpen-zerbitzu zerbitzurik.

5.3. SORTZAILEAK EUSKAL LETREN SISTEMA BERA DU LEHEN BITARTEKARI

Euskararen eta Euskal Herriaren bilakaera politikoak ez du euskal letren balizko sistemen jarraipenik bermatu, eta are gutxiago, euskal emakumezkoen presentziari edo absentsiari behar adinako arreta paratzeko adinakorik. Euskaldunen artean normaltzat hartu daitekeen gutxieneko egituraketa honek, beregain diren literatura-sistema autonomoekiko alde horrek, alegia, oraindik bide normaldua ez duen hizkuntza batean idazteak berak, baldintza dezake idazle batentzat garrantzizkoa den hautatua: idazteaz gain argitaratu nahi izatera daramana.

Euskararen batasuna erdietsi arte (azken berrogeita hamar urteetan) euskararen beraren egoerak baldintzatu du hizkuntzaren bitartekaritza ere, euskara hautatu zuten idazle gehienek, hasieran, ez baitzuten euskaraz ikasi eta irakurri, eta gainera, ezagutzen zuten hizkuntzaren iturri bibliografiko asko aski zaharkituak baitzeuden.

Hizkuntzaren ikuspegitik, behin euskara batua eta gramatikaltasunaren auziak gaudituz ondoren, eta euskal literaturan mende batean historia osoan eragin den eguneratze prozesu dinamikoan eragin ondoren ere, emakumezkoen presentzia euskal literaturaren historian bermatu gabe dago; **emakumezko idazleen ekoizpenaren oihartzuna ez da iritsi ez literatura-historietara eta ezta egile-hiztegi gintzara ere.** Horrek idazteko orduan eragiten du, erreferentzia eta iturri eskasiagatik, bereziki. Egoerak ziurgabetasuna bederen eragin dezake euskal emakumezko sortzailearen ikuspegitik.

Beste alde batetik, letren sistema askotan bezala, idaztetik argitaratzera liburuaren bitartekaritza pasatu dira orain arte idazlanak. Baina egun argitaletxeak ere krisian daude, eta, gero argitaratzaileak saldu egin behar duenez, horrek ez dio idazleari nahi duena idazteko bidea errazten.

Azkenik, euskal letretan ere bitartekaritza prozesu hau aldatu egin da XX. mende hasieratik hona. Espainiako gerraurrean prentsan lanak argitaratzeko abagunea galdu ondoren, almanakak galdu eta, azkenik, teknologia berriek¹⁶⁵ paperezko liburuaren presentziaren eskusibotasuna mugatu egin dute, eta kasu askotan, emakumezkoek IKTak eta sare sozialak argitaratzeko baliatu badituzte ere, desagertu bezala egin dira gazteen arteko aldizkari eta liburu kolektiboak. Liburua argitaratu aurretik, ordea, **aldizkarietatik** eta **liburu kolektibo** eta antologietatik egin ohi dute jauzia euskal idazle gazteek. Baita euskal prentsako zutabegintzatik eta webguneetatik¹⁶⁶, azken urteetan.

Azken hogeita hamar urteetako literaturari begiratuta hainbat aldizkari literario sortzen eta itzaltzen ikusi dugu (*Oh Euzkadi*, *Pott*, *Susa*, *Pamiela*, *Mazantini*, *Luma berrien eleak*). Hauek guztiak idazle talderen batek bultzatuak izan dira. Beste batzuek, ordea, bizirik jarraitzen dute: *Idatz&Mintz*, *Egan*, *Karmel*, *Hegats*, *Behinola*. Guzti horiek hainbat kasutan argitaletxeekin lotura izan arren, atzean, bultzatzen duen erakundea dute.

Edozein literatura-genero onartzen duen aldizkariaren artean azpimarratzekoa da *Maiatz*, *Idatz&Mintz* eta *Hatsaren poesien* lana, besteak beste. Azpimarragarria da bide luzea egin duten idazleez gain, ez zaiela inolako oztoporik jartzen idazle hasiberriei *Maiatzen*, *Hatsaren poesia*, *7kako* udako orrietan bezala ezta *Egan* aldizkarian ere orain artekoan.

Ahalegin hauei esker belaunaldi eta ikuspegi arras ezberdinetako testuak euskal literaturaren aniztasunaren erakustoki bilakatzen dira, eta lagungarri dira idazle berrien eboluzioa jarraitzeko. Baina, azpimarratu beharrekoa da emakumezko idazleek askoren abiapuntu bihurtu direla argitaratzen hasteko, zinez, oso gutxitan egin denez euskal emakumezko idazleen antologiarik, ez osotara eta ezta atalka ere.

Bestalde, euskal letretan, ez da Galiziako *Festa da palabra* moduko aldizkaririk sortu, ez eta emakumezkoek sortu eta kudeatutako aldizkaririk ere, emakumezkoak beti ibili izan diren arren euskal komunikabideen hastapenetan. Kontuan izan behar da aldizkari hauek lanak argitaratzea bezain egiteko garrantzizkoa dutela elkarren ezagutza, ideia-trukea, eta talde-zuzenketa kolaboratzaileak ahalbideratzeko aukera.

¹⁶⁵ Gai honetan luza ez gaitzkeen arren, garrantzizkoa iruditzen zait Cynthia Ozickentz testu hau: "La imprenta hizo posible por primera vez, el compromiso solitario de un individuo con un texto íntimo; la era de Gutenberg trasladando la conciencia humana desde lo colectivo hacia lo reflexivo. Los aparatos electrónicos promueven lo colectivo, la tan mentada "comunidad global" la muchedumbre otra vez" in *Metáfora y metonimia. Ensayos reunidos*. Madrid: Mar Dulce. 2016, 98.or.

¹⁶⁶ ARGIA eta BERRIA batez ere, baina baita gehigarri literarioetatik (Mugalarri, Ortzadar) edo webguneetatik (www.idazten.com, Hitzen uberan...)

Literatura beharrea ikerketa eta dibulgazioa lantzen duten hainbat erakundek (Aranzadi, unibertsitateak, Euskaltzaindiak...) badituzte beste ikerketa eta dibulgazio aldizkari batzuk, sona handikoak, gehienetan, eta bertan argitaratzen dituzte ikertzaileek beren lanak, tesi eta ikerketen laburpenak etab.

Hala ere, orain-oraingoz, generoaren ikuspegia aintzakotzat hartzen duten ikerketetan ez bada, ez dago ikertzaile/sortzaile ¹⁶⁷ arteko elkarreagin handirik. Apenas aurkitzen da elkarren lanen erreferentziarik euskaraz idazten duten emakumezkoen artean. Elkarri begira jarririk, euskal letrak indartzeko moduko ardatza osa liteke, hainbat aurreiritzi gaudituz: euskal emakumezko idazleek idatzi duten testuetan ere aurkitu ahal izango da hizkuntzalaritzarako, giza zientzietarako, ekonomiarentzako edota teknologiarentzako baliozko iturri eta erreferentziarik, irakurketa literario eta soziologikoaz gain. Eta emakumezko ikertzaileen saiakeretan ere topa ahal izango da sortzailea kitzika dezakeen ideiarik, mundua eraberritzen ari den teknologia eta teknologiari buruzko azalpenik, ikuspegi etikoak eta ideologikoak aldarazteko moduan.

Egoera hobetze aldera joango den itxura ere bada. Har dezagun UEUk antolatzen duen *Ikergazte* ekimena. III. *Ikergazte* topaketetan Gizarte Zientziak eta Zuzenbidea atalean argitara eman dira aurkeztu diren 102 txostenetatik 19. Hemerretzi txosten horiek 31 lagunen izenean aurkeztu izan dira; alegia, batzuk talde-lanean ekoitziak dira. Hala ere, Gizarte Zientziak eta Zuzenbidea ataleko 31 ikertzaile horietatik 18 emakumezkoak dira, % 58. Erditik gora, beraz. Baina azpimarratu behar da *Ikergazte*ko Batzorde Zientifiko eta teknikoan 86 ikertzaile eta irakasle euskaldun ari direla eta horietatik ere 48 emakumezko direla, alegia % 55,81. Horrek erakusten du emakumezkoen lidergoak eragiten duela eredu gisa idazle eta ikertzaileengan eta ordua dela berria den egoera honekin proiektio positiboak egiteko ¹⁶⁸.

5.3.1 Idazleak sortzaile eta eragile

Emakumezko idazleen ikuspegitik ikuskizun da antolatuta dagoen euskal letraren sisteman idazle gisara bakarrik hartuko den parte bertan, zertaraino utzi behar diren sorkuntza-lanak erabat beste

batzuen eskuetan, eta talde-harremanak, harreman-sareak zertaraino ez duten emakumezkoen bultzadaren beharrik.

Izan ere, gerraosteko literaturan hainbat emakumezko argitaletxeak sortzeko orduan parte hartu izana ukaezina izanagatik, emakumezkoen argitalpen-dinamikarik ez da oraindik gauzatu. Ikuskizun dago egun, euskal argitaletxeek beraien krisi-egoeraren aurrean industria gisa hartuko duten bidea.

Kontua da orain arte bezala, aldi berean, argitaletxe eta proiektu berriak ere sortzen ari direla, eta berriro hainbat komunitate ere sortzen ari da idazle gazte eta emakumezkoen lan gehiago argitaratzeko (Denon artean, Dejabu, Txakur gorria...). Sortzaileen bilgune bihurtzen dira, eta bitartekaritza horietan ere parte hartzeko aukerak zabaltzen dituzte.

Emakumezko idazleek beste hainbat alorretan (politikan, irakaskuntzan, euskal prentsan) egindako lanaren aldean, ez dugu emakumezkoek geure egitekotzat hartu geure liburuaren sustapena. Eta hein horretan, emakumezko idazleen lanaren gaia edozein dela ere, sorkuntza-lana baino gehiagotan azpimarratzen da emakumezko izatea. Idatzitakoak egiten gaitu, ordea, idazle eta emakumezkoek ere obrarekiko atxikimendua azpimarratzen hasiak dira, eta horretarako testuak bezala paratestuak (azal, kontrazal, irudiak...) eta aurkezpen inguruak ere aldatzen ari dira.

Aldi berean, garrantzikoa izan daiteke gerora geure liburuak irakurri behar dituztenentzat, nonbait emakumezko idazlearen poetika, ikuspegia, eta motibazioa azalazteko. Liburuaren paratestuetan eta liburuaz eman nahi den ikuspegiaren hausnartzea ere bada emakumezkoen sorkuntza-lanaz jabetzeko bidea.

5.4. OBRAREN HARRERA ETA IRAKURKERA¹⁶⁹

5.4.1. *Egan* aldizkaria eta emakumezkoen presentzia (1992-2017)

Ikusita 1992tik 2017ra askoz emakumezko idazle gehiago ageri dela *Egan*en, emakumezkoen presentzia izugarri areagotuko dela ondorioztatu beharko genuke. 1992-2017ko garapenari

¹⁶⁷ Ikertzailea unibertsitate eta ikerketa arloan ari denari deituz, eta sortzaile (ikerketak ere sorkuntzarekin zerikusia duen arren) literario jotzen diren generoak lantzen dituztenak (saiakera literarioa eta dibulgatzailea barne).

¹⁶⁸ III. *Ikergazte*. *Gizarte-zientziak eta zuzenbidea*. Baiona:UEU, 2019. 3-9.

¹⁶⁹ Obraren harrera eta irakurketa bereiztea komenigarria da, oraindik arrunta baita emakumezko baten sorkuntza-lanaz aritu beharrea emakumezko idazleari buruz aritzea, beraz ez doaz beti batera irakurketa eta promozio edo sustapena.

4. Taula. EMAKUMEZKOEN PRESENTZIA Egan ALDIZKARIAN (1992-2017)

EGANEKO ATALA	ARGITARATUTAKO ARTIKULU KOPURUA	EMAKUMEZKOA IZENBURUTIK AIPATZEN DUTENAK	EGILEAK	EMAKUMEZKO EGILEAK	EMAKUMEZKOAK AIPATZEN DITUZTEN EMAKUMEZKOEN LANAK
ADABAKIAK	164	0	63	10	1
Biltzarrak. Jardunaldiak	4	0	1	0	0
Hilberriak	13	0	13	2	0
Omenaldiak	42	3	34	4	3 (Karmele Esnal, M ^a Dolores Agirre, Jeanne Mari Malharin)
BIBLIOGRAFIA	42	Orokorrak dira	9	1	Orokorrak dira
AZTERKETA LITERARIOAK	304	6 (Itxaro Borda, Tsvietaieva, A. Urretavizkaia, euskal sorginak Hondarribin, M ^a D. Agirre, Izaskun Grazia)	132	35	2 (Itxaro Borda, M. Marina Tsvietaieva)
HAUR ETA GAZTE LITERATURA	46	8 (Horietatik 6 Iñaki Zubeldiak aipatuak (Miren Agur Meabe, Ana Urkiza, Jasone Osoro, Enkarni Genua, Alaitz Olaizola, Toti Martinez)	17	2	0
KRITIKAK ETA ERRESEINAK	188	14-15	38	13	7

erreparatuko diogu, eta horren ibilbide luzea duen aldizkari literario honen azterketaren datuak aski esanguratsuak dira, usteak uste direla frogatzeko orduan.

Epe laburrago batean gertatzen denarekin alderatzen badugu, nabarmen gertatzen da oraindik literatura-kritikan ari diren emakumezko idazleek ez dutela emakumezkoen letren unibertsoa begi-bistan, eta ziurrenera oraindik beldur izan gaitezkeela emakumezkoen buruzko gure iritzia plazaratzea, emakumezko izanik bihozpera garelako irudipena sustatzeko beldurrez. Horrelako zerbait antz ematen da, bederen, hiru urteetan ELAn argitaratu izan diren erreseinei buruzko informazioa gainbegirata.

5.4.2. Emakumezkoen Presentzia 2016-18ko liburugintzan, ELAren arabera

Nola egiten du euskal letren sistemak obren harrera eta irakurketa? Ez dira, noski, argitaratzen diren liburu guztiak aipatzen. Hala ere, modu aleatorioan egindako bi arakatzelantetatik nahiko datu esanguratsuak atera daitezke.

Alde batetik *Eganen* bilakaera aztertuko da. *Eganek* egin duen aurkibidean, 1992tik 2017ra erraz ikusten, errazago ikusten da, sailkaturik ageri baita, zenbat izan diren iruzkingileak, emakumezko ala gizonezko izan diren eta emakumezkoek iruzkinak egin dituztenean nola gizonezkoen liburuen iruzkinak egiten dituzten batez ere.

Euskal industriari buruzko ikerketak 2017ko liburugintza hartu du aintzat. Sortzailearen ikuspegiari izen-abizenak jartzeko, EHUKo ELAn jasotzen diren 2016, 2017 eta 2018ko iruzkinak aztertuz, ondorioztatzen da liburu-iruzkinak egiten dituzten artean gutxiago direla emakumezkoak gizonezkoak baino. EHUKo Euskal Liburuen apalategian kontuan hartzen dira bost-sei kritikari, eta horietatik kritikari bat edo bi izan ohi da kritikari. Ondo ikusten da urtez urte argitaratuta duten emakumezkoak % 30 inguruan dabilzala hiru urte horietan.

Eta emakumezkoek egiten dituzten iruzkinen artean ere gehiago direla gizonezkoen liburuen iruzkinak alderatuta, normala ere badena, gizonezkoek gehiago idazten dutenez.

5. Taula. EMAKUMEZKO IDAZLEEI EGINDAKO IRUZKINAK, GIZONEZKOEI EGINDAKO EKIN ALDERATUTA.

URTEA ¹⁷⁰	IDAZLEAK DENERA	EMAKUMEZKO IDAZLEA	BATEZ BESTEKOA	EMAKUMEZKOEN LIBURUEI EGINDAKO IRUZKINAK
2016	207	60	% 29	Egin diren kritiken % 21, emakumezkoen liburuei buruzkoak, eta %33,33 idatzi duten emakumezkoekiko.
2017	200	63	% 31	Egin diren kritiken % 37,5 emakumezkoen liburuei buruzkoak, eta %28,8 idatzi duten emakumezkoekiko.
2018	200	70	% 35	Egin diren kritiken % 33,3 emakumezkoen liburuei buruzkoak dira, eta idatzi duten emakumezkoekiko % 32,62.

Beste atal batean egin zaio errepaso labur bat euskal literaturaren historietan, emakumezko idazleen sorkuntza-lanei egindako irakurketaz. Euskal literaturaren historia askotan, lerrotan kontu daiteke, emakumezko guztioi, euskal literaturaren hasieratik XX. mende amaierara bitarte, eskaintzen zaien espazioa.

Emakumezko idazleen motibazioaz aritzea garrantzizkoa izanagatik, sorkuntza-lanen irakurketak aldatuko duen gurutze-bidea sorkuntza-lanei buruzko interpretazioak ugaltzetik etorriko da.

Bitartean, emakumezkoen parte-hartzea ezinbestekoa suertatzen ari da bitartekaritza bide berriak zabaltzeko, harrera eta irakurketa kolektiboetan tokia egiteko, ahaztu gabe, sortzelanaren eskakizun indibidualaz gain ere badela irakurketa, eta **argitaratze eta birsortze-prozesuetan partaidetza kolektiboaren asmoa edo intentzioa eta arreta ere ezinbestekoak direla.**

Miren Agur Meabek, Eider Rodriguezek *Idazleen gorputzak* lanerako egindako galdetegian "Ahizpatasunaren ideia" aipatzen du eta garatzen du¹⁷¹. Inolaz ere, emakumezko irakurri behar dugu beste emakumezkoek ere idatzi dutena. Baina zergatik, nola... Jakina da gizonezkoena ondo irakurri gabe ez dugula emakumezkoak, gehienetan, geure obra ez sortzen eta ez argitaratzen. **Oraindik geure ereduak orain arteko arauak baldintzatzen ditu**, alegia, literatura-kritikak eta kanonek emakume moderno garena eta egunean bizi garena ziurtatzera bultzatzen gaituzte.

Eta hori gertatzen da, neurri batean, emakumezko idazleen burmuinean ere **itsatsia dirudielako, beste emakumezkoek idazten dutena gutako edonork idatz dezakeela**, eta beraz, beste gabe, **ontzat emanez guztiok liburu bera idazten ari garen emakume, eme kolektibo garena.**

Aurreiritzi horiek aztertze eta alboratzeko, aldiz, emakumezkoen nortasun anitza aldarrikatzera jo behar da, oraindik xurgatu edo igarri ez duen horren bila ere: dela ideia, metafora, bizipen, poz edo edertasun. **Zergatik irakurri, beraz, beste emakumezkoek idatzi dutena?** Eta erantzunak izan behar du pertsonala, banakoa... baina partekatua. **Ziurrenera norberak idatzi ez duen horren bila, araututako ereduetan irakurri eta idatzi ez den horren bila** idatzi ohi du sortzaileak; funtsean, oraindik idazteko dagoena besteek idatzi ez izanaren motibazioak eraman dezake bat irakurtzera, eta ahizpatasun horrek igarrarazi dezake norbaitentzat, momentu jakin bateko *ni horrentzat* idatzitako mezurik badagoela euskal emakumezkoek idatzitako literaturan, **ulertua izateko intuizio eta intentzioaren zain.**

Norbere baitara ekarri nahi den mezu gorde horren bila egiten gara ahizpa eta anaia, bihur gaitezke gizarte irakurri ahala. Horixe da emakumezko idazleok irakurle gisa ere egin dezakegun ekarpena harrera eta irakurkera fase honetan, zeren eta, Andoni Eizagirre Eizagirrek ikerketa zientifikoetarako ikuspegi pragmatikoa azterkizun hartu

¹⁷⁰ Autore anitzen artean idatzitako liburuetan eta antologietan sartu gabe emakumezko edo gizonezkoen liburutzat har daitezkeenak.

¹⁷¹ *Idazleen Gorputzak. Egiletasuna ezbaian literaturaren joko zelaian*. Donostia: Susa. 2019

zuenean esan zuen bezala, zientzia “gizarteratzeak” ezaupide naturalaz eta ordena sozialaz hausnartzeko bidea ematen du¹⁷².

Idazketaren inguruan diharduten emakumezkoek elkarren lanen ezagutzan jartzea garrantzi handikoa da harrera egokia planteatzeko. Garbi dago emakumezko idazle eta ikertzaile asko ez direla berehalakoan hasten emakumezkoen letrak aztertzen, eta horretaz jabetzeko prozesuak zabaltzeko ardua hartzeak berak, euskal letren sistemarentzako eraldatzaile izan daiteke. Ez gara gizartean jabetzen, baina ez da ia inor harritzen gizonezkoek bere zaletasunen artean gizonezkoen sorkuntza-lanak hautatzen dituztenean (edozein alorretan); emakumezkoek, ordea, aurrena, gehienetan, erabilitako parametroak justifikatzera jotzen dute, batez ere, emakumezkoen sorkuntza-lanak hautatzen dituztenean.

Gai honetan sakontzeak mereziko luke, baina aski da ondorioa azpimarratzea, nabarmentzeko, nolako garrantzia duen euskal emakumezko idazleen sorkuntza-lanak birsortzeko, emakumezkoen sorkuntza-lanak irakurtzea merezi duten lantzat kontsideratzeak.

5.5. SORKUNTZA-LANA BIRSORTZEKO BIDEAK

Arreta, Arret!. *Arreta* edo geratzeko deia, geldiaraztean zerbaitekin asmatu ahal izango delakoan: Arret! Alto egiteko tokia. **Irakurketak arreta eskatzen du; norberaren denbora propio eta intimoa bitartekari bati eskaintzea. Hitzez sortu den errealtate batera iristeko denbora, tartea... artea.** Eta irakurtzeak ulertzeko saioa eska dezake, geure lan-errotetik geure kontzientzia osoa eskatzen duen denborara iristea, geure gorputzari bere baitara iristen laguntzea, geure gorputzari kanpo-mekanikatik irteten laguntzea.

Egia da, liburuaren industriaren ikuspegitik erostea kontsumo-ekimena dela. Emakumezkoek idatzitako liburuak sustatzeak ere kontsumo-politika eskatzen du, eta liburuaren industriak estrategia horiek ere behar ditu.

Eta bistan da egun, liburuak krisian badago ere, asko idazten eta argitaratzen dela eta emakumezkoek idatzitako literaturak apal asko hartzen dutela saltoki komertzialetan ere, nahiz eta gehienetan ez izan euskal emakumezko idazleenak, saltoki handietako Haur Hezkuntzako liburuen apaletan ikus daitekeenez.

Batzuetan liburuak irakurleak konkistatzen ditu, baina inork ez du liburuaren aipamenik egiten. Beste batzuetan, aurrena, iruzkingileak, literatura-kritikariak etab. konkistatu behar ditu. Eta ez da hala gertatzen beti.

Emakumezkoen sorkuntza-lanei buruz aritzeak ez du aurreikusten beti ondo epaitua izateak, noski; baina ez dugu onartu behar emakumezko garelako egiten zaigun kritikarik, ez onerako eta ez txarrerako. Helburua emakumezkoen sorkuntza-lanei ere irakurriak izateko merezimendua aitortzea da.

Esan liteke orokorrean liburuak badakartela argitaratuak izan aurretik irakurtzea merezi duten adierazi dezakeen jatorrizko zigilua¹⁷³. Argitaratzen diren liburuak irakurle talde batek edo ikertzaile talde batek onartu dituelako argitaratzen dira. Baina harrera kritikorik ez izateak apaletsi egiten du idazleen gogo gehienetan. Emakumezko anitzek aitortu dute horregatik aurkezten dituztela beren lanak sariketetara. Azken urte hauetan, gero eta emakume gehiago saritzen da, gehienetan idazle nor den ezagutu gabe, eta batzuetan, liburuak argitaratu ondoren, idazlea nor den jakinik.

Zer ondorio du, ordea, zigilu horrek? Literatura-sarien kasuan, askotxotan gertatu ohi da irabazlea emakumezkoa denean ez aintzat hartzea liburuaren ekarpena.

Emakumezkoek idatzia irakurtzeak merezi duela azpimarratzea da lehen urratsa. Eta batez ere irakurketa irakasleek, literatura-kritikariek, kazetariek eta kultur munduak eragiten duen birsortze-prozesu honek emakumezkoek idatzitako lanak aintzakotzat hartu ahal izateko, Pierre Bourdieuk zioen bezala, “irakurriak izatea merezi duten liburu” kontsiderazioa eman behar zaie¹⁷⁴ emakumezkoen liburuari ere.

¹⁷² “La razón científica es producto histórico y colectivo; los estilos de razonamiento, los principios (teóricos, sociales y pragmáticos) que guían la actividad científica, los modos de vida (estructuras de producción, redes socio-institucionales, políticas de la ciencia) que producen y condicionan nuestros conocimientos y las dimensiones epistemológicas de nuestras realidades naturales y sociales” in “Un enfoque pragmático para los estudios de ciencia: los sujetos epistémicos, prácticas científicas y representación de posibilidades (no deseadas)” in J. Arpal, I. Mendiola (ed) *Estudios sobre cuerpo, tecnología y cultura*, 49.or.

¹⁷³ Ez dezagun ahaztu, euskal letratan, oraindik ere, bere garaian Bizenta Mogelek atsoen ipuinaz zioen bezala, sarri antzematen dela emakumezkoen elkarriketetan elkarren ezezagutza ere azpimarratzen, idazle bezala identifikatua izateko emakume ez idazle gisa identifikatzeko premia, beste emakumezko batzuetatik bereizteko premia.

¹⁷⁴ “Sólo se puede salir del círculo encantado de las leyendas produciendo el *modus legendi* que las reproduce como tales, es decir, como objetos merecedores de ser leídos, y leídos como objetos intemporales de un deleite meramente estético. [...] El análisis del discurso crítico sobre las obras es en efecto a la vez un requisito crítico previo a la ciencia de las obras y una contribución a la ciencia de la producción de las obras como objeto de creencia” *Las reglas del arte*, 445.or.



VI. kapitulua
EUSKAL EMAKUMEZKO
IDAZLEAK XXI. MENDEAN
NOR GARA

6.1. ZENBAT EUSKAL EMAKUMEZKO IDAZLE XXI. MENDEAN?

Euskal letrak emakumezko sortzaileen ikuspegitikerreparatzen hasiz gero, emakumezko idazle andana azaleratzen da. Euskal literaturaren historian idazle gisa tratatzeko erabili diren parametroak erabili hutsarekin, industriaren sektoreak aintzat hartzen ez dituen emakumezko asko ekar liteke zerrendetara.

Horretaz jabetuta proposatu da euskal letren esparrua, euskal literaturaren esparrua baino zabalagoa delako. Emakumezko idazleek idatzitako lanei atea irekitzean euskal literaturaren kontzeptua bera eraldatu egiten du alde batetik, eta aldi berean euskal letrak sistema gisa definitzen jarraitzeko aukera zabaldu egiten du.

Normalean, idazle elkarteetan bazkidezeko aski izaten da liburu bat edo prentsan hamabi lan argitaratzea. Irizpide horietatik aldendu gabe zerrendatu ditut hainbat alorretan argitaratu duten emakumezkoen sorkuntza-lanak. EIEk (Euskal Idazleen Elkarteak) eta Euskal Pen Clubak ere irizpide berberak darabiltzate. Zenbat dira/gara euskaraz idazten ari garen emakumezkoak?

Urte hauetako ibilbideari begirada bat emateko, 2011n jar genezake gertuko mugari bat. Orduan Euskal Pen-Clubak 100 emakumezko idazleko kartela aurkeztu zuen lehenengoz. Gaurko egunetik gertuago, 2016, 2017, 2018. urteetan EHUKo Euskal Liburuaren Apalean [ELA] aurkezten diren datuak ere izan daitezke beste mugari bat. ELAko datuen arabera, 60, 63 edo 70 emakumezko idazleen liburu berriak argitaratu dira, gutxienez, aipatutako urteetan.

Euskal literatura osoa kontuan hartu eta XXI. mendera bitarteko ikuspegi hori kontuan izanda, ikerketa honetako zerrendaketak hasi aurretik erraza zen euskal literaturan **gutxienez 150 emakumezko** ari zela aurreikustea. *EIE* (Euskal Idazleen Elkarteak) eta *Literatur zubitegiko* zerrendei gainbegiraturia emanda garai guztietako emakumezko 170 idazle zerrendatuta ageri da 2019 hasieran egindako azterketan. Beste iturri batzuk (hainbat testu-antologia, blog, webgune kontuan izanda), 150 oso datu ziurtzat hartu izan da euskal literaturarako.

Baina argialetxe literarioak albora utzi eta unibertsitate eta ikerketa eremuetako idazlanak eta idazleak zerrendatzen hastean, beste errealitate bat hautematen da: Euskal literaturaren esparrutik kanpo ere emakumezko idazle andana

ari da lanean, eta, baita zeharka, euskal literaturan eragiten ere, batik bat azken hamarkadan, generoaren ikuspegitik. Zerrendatze lanak erakutsi du emakumezko ikertzaileen lanak aintzat hartzean berregin daitekeela euskal letren sistema, eta ondorioz, euskal emakumezko idatzien sustapen-plana.

Horiek horrela, **euskal letren sistema berrosatzeko, beste genero eta alor hauek aztertu dira**, zehaztasun¹⁷⁵ osoz aritu ez arren:

- **Ikertzaile eta saiogileak.** Ikertzaile eta saiakeragile emakumezkoak garrantzi handikoak dira emakumezkoen obraren berrirakurketarako. Gai hau ez da zehaztasun osoz aztertu ahal izan. Batez ere, euskal literaturaren sistemarekin zerikusia duten alorrak aztertu dira (hizkuntza, literatura, generoa...) eta horretarako *Eganen* historian zehar parte hartu duten emakumezkoen zerrendaz gain, EHUKo irakasleen zerrenda eta INGUMA eta DIALNETeko datu-baseekin erkatu dira, alde batera utzi gabe hainbat ikerketatik ezagun zitzaizkidan emakumezko ikertzaileak. Ikertzaile gisa zerrenda horretan sartutako 135 horietatik, askok, liburuak ere argitaratu dituzte eta baita dibulgazio-lanak egin ere. Zerrendatzea hortxe itxi da, bere helburua euskal letren sisteman eragiteko moduko azpialderik badagoela ziurtatu ondoren.
- **Liburuak argitaratu ez dituzten arren, hainbat ikerketa eta idatzitako argitaratu dutenak**, bai paperean eta baita sare sozialetan edo euskarri birtualean ere. Batez ere, idazle-gaiak liburuak argitaratu aurretik ematen dituzten urratsak aztertzea ere garrantzizkoa da, emakumezkoak euskal literaturaren sisteman betetzen ditugun espazioak eta bete ditzakegunak aztertzeko.

Zerrendatu gabe eta bistara ekarri gabe geratu dira, lanaren helburua gainditzen zutelako:

- **Prentsa idatzian eta komunikabideetan** ari diren emakumezkoak (elkarrizketatzaile, zutabegile, zuzendaritza-talde...). Osa liteke zerrenda luze-zabala XX. mende hasieran prentsa idatzian hasi ziren emakumezko idazleak (Perpetua Saragueta, Sorne Unzueta, Pilar Leku-ona...) eta gaur egunekoak lotuz. Historia hori aztertzea oso da interesgarria, besteak beste, oraindik gerraurreko

¹⁷⁵ Batez ere, denbora ezak garalazi du zehaztapen-maila, Horren denbora gutxian egindako proiektuak proiektzioa eskaini behar du, azken helburura iritsi ahal izateko. Ikus daitezke: <http://www.tereirastortza.com/index.php/emakume-idazleak/zerrendak>

emakumezkoen informazioa ez dagoelako behar bezain zehazki bildua. Ez dira zerrendatu prentsan diharduten emakumezko idazleak, ez bada libururen bat argitaratu dituelako edo EIEk bere elkartearen idazle gisa onartu izan dituelako. Hala ere, profesionaltasunaren ikuspegitik, funtsean, idazle profesionaletan profesionalenak dira.

- **Itzultzaileak.** Ez dira zerrendaratu libururen bat idatzi ezean, beraien ikuspegia aztertu arren, eta profesionaltze-bideak oso jorratuak dituzten taldeak osatu arren.

Alor guztiok kontuan hartuz definitu da, beraz, euskal letren sistema, horretarako saiakeragile eta ikertzaileak ere aintzat hartuz.

Ikerketa honetarako datu-bilketan emakumezkoen parte-hartzearen batez bestekoaz gain, idazleak zerrendatzeari garrantzia eman zaio. Hala, fikzio idazketaz gain, ikerketa eta unibertsitateetako tesiak eta dibulgazio eta testu-lanak idatzitakoak kontuan hartuta, zerrendak osatu aurreko lehen hipotesiak aurreikusten zen **300 emakumezko idazle paseak** ariko zirela momentu honetan **euskal letretan**.

Datu-irakurketa amaitzerakoan eta hain denbora laburrean egindako ikerketaren ondorioz euskal letretan idatzi duten **700 emakumezko idazle baino gehiago** dituen zerrenda osatu da, **XX. mendetik aurrera unibertsitateetako ikerketa eta tesi, testu-lanak eta sorkuntza-lanak idatzitakoak kontuan hartuta, eta prentsa idatzitakoak alde batera utzita**. Beraz, esango genuke, **momentu honetan bizirik, gutxienez, 500 emakumezko ari direla liburuak eta artikulua espezializatuak idazten**. Emakumezko horien artean ez dira XX. eta XXI. mendeetan hildako emakumezkoak sartzen, ez eta, libururik edo artikulua espezializatu aski ezean, kazetaritzan eta itzultzaile gisa aritu direnak¹⁷⁶.

Baina badira, **gutxienez beste ehun emakumezko multzoa oraindik liburu argitaratu ez arren bere ibilbidea osatzen ari dena euskal letretan liburu kolektibo, proiektu eta sari bidez**, beraz, **600 euskal emakumezko idazle bizirik eta idazten ari direnak XXI. mendeko lehen hogeitau urteotan**. Beste hamabosten bat idazletzat kontsidera daitezke ilustratzaile izateaz gain nobela grafiko, fanzine eta komikietan XXI. mendean bidea egin dutenak.

Emakumezko idazle gehiegi? Denak sentitzen ote dira idazle? Idatzi arren guztiak helburu eta motibazio berberaz ari al dira euskal letren sisteman? Zerk eteten du emakumezko idazle gazte baten ibilbidea letretan? Idazle adina galdera izan daiteke, baina ez dezagun ahantzi gehiago ere sar zitezkeela zerrenda horretan Urruzunotarren segidan ageri diren 325 emakumezko sartu izan balira¹⁷⁷, edo eskola-antzerkia idazten eta zuzentzen ageri den emakumezko saila kontuan izanez gero¹⁷⁸.

Ikerketa honetarako erabilitako zerrenda bidez ere ezin ausartu zehatz-mehatz euskal letretan zenbat emakumezko ari den argitaratzen 2019ko urtarrilean. Besteak beste ez baita berdina epe zabala hartutako historia zerrendatzea eta ezta momentu batean isilduak dauden idazleek berriz idatziko duten argitzea.

Baina eta zer aldatu da 1997an Torrealdaik euskal liburugintza idatzi zuenetik hona? Arestian esanda bezala, zaila da horren alor ezberdinetatik lortutako datuak elkarrekin alderatzea. Juan Mari Torrealdaik, 1997an, idazleen artean, euskaraz gehienez 400 idazle eta gutxienez 150 idazle ari zitezkeela kontsideratuz, 284 idazleko kopurua finkatu zuen. Eta "Egungo emakume idazleen egungo unibertsoan 30 bat idazle kontsideratu dugu. Idazleen populazio osoaren ia % 11"¹⁷⁹. Baina 1986ko liburugintzan parte hartu zuten emakumezkoak baziren, ordurako, 80tik gora. Modu profesionalean ari ziren idazle gehienek, emakumezkoak barne, lotura estua zuten testugintzarekin eta baita ikastetxeetara bideratutako liburugintzarekin ere.

¹⁷⁶ GARCIA LOPEZ, Ane *Poesia itzulpena: jarduera periferiko baten analisisa. Gradu amaierako lana* "Lan honetako 4. puntu sakonago landuko dugun arren, gure laginean bildu ditugun idazle eta itzultzaileen generoari buruz mintzatuko gara azkenik. Bildutako datuen arabera, 133 lanetatik 15ek baino ez dute jatorrizko egile emakumea. Horiez gain, 2 antologiatan ere ageri dira emakumeak, eta 2 lanen kasuan ezin izan dut zehaztu emakumerik ba ote den egileen artean, informazio falta dela medio. Horrek esan nahi du, antologiak kontuan hartu gabe, monografia forman argitaratutako lanen % 11,3 direla emakumeek idatzitakoak. Kopuru urria, inondik inora. [...] Itzultzaileei erreparatuta, egiaztatzen dugu egoera ez dela hobea; aitzitik, emakumeen presentzia oso urria da hainbat eremutan, poesia itzulpena barne. 84 itzultzailetik 4 dira emakumeak. Ez da % Sera iristen". 11. or. [https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/21398/GRAL_GarciaLopez%2CA.pdf?sequence=2&isAllowed=y]

¹⁷⁷ 1986-2018 bitarteko 32 urteetan, 474 idazle gazteren lanak argitaratuak izan dira Urruzunotarren urteroko antologietan, horietatik 325 emakumezkoak dira, eta horiek ez daude, beste gabe, zerrenda horretan sartuta.

¹⁷⁸ *Euskal antzerkia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak. Urtez urteko argitalpena.

¹⁷⁹ Aip. ob. 393.or.

Emakumezkoek gizonezkoekiko duten aldea, batez bestekoan planteatuta, funtsean mende askotan eta azken hamarkadetan ere **nagusiki gizonzkoen artean eraikitako euskal letren sistema** baten ikuspegitik egiten da. Zehatzago esanda, euskal literaturaren ikuspegi jakin batetik abiatuta, ikuspegi horretan, industriaren alorrak du garrantzi handiena, liburu-argitalpenetik abiatzen denez. Hor ez dira, beti, autoedizioak aintzat hartzen, ez eta liburu kolektiboetan parte hartzen duten idazle berriak ez eta eskola-antzerkia bezalako generoak, zeinetan emakumezko antzerkigileen parte hartzea handia den. Irakasleak eta ikasleak ere izan ohi dira antzerki sortzaile.

Euskal emakumezko idazle profesionalak ere aintzakotzat hartzeko garrantzizkoa da *amateur* deitu ohi den eremuetan idazten diharduten emakumezkoen berri jasotzea. Eta idazle profesionalaren ikuspegiak gain, baita idatzi ahala bizi den eta bizi ahala idazten duen euskal emakumezko idazleen ibilbideak aztertzeko metodologia sustatzea, zeinetan, ehunekoen azterketaz gain, zerrendak ematen duten azterketa askotarako abiapuntua (Urruzunotarren zerrenda, idazle gazteen corpusa osatu eta ibilbidea jorrazteko; ahozko kulturatik ekarpenak egin dituzten informatzaileen zerrenda presentzia gabeko emakumezkoak euskal letren eta euskal kulturaren sistematan txertatzeko...)

6.2. EMAKUMEZKO IDAZLEEN BIZIMODUA ETA IDAZKETA

Ikuspegi hau erabiltzea lehen urratsa da, besteak beste euskal letren sistema bere zehaztasun osoan aztertzeko

Iragana oraingo begiradarekin epaitu ordez, bere testuinguruan ulertzea garrantzizkoa da. Ezin da esan emakumezkoak gune pribatura zokoratuak izaten direnetan, borondategabe bizi izan zirenik eta direnik. Sarri beraien borondate horrek eusten dio kulturari.

Eta emakumezkoek XX. mendean irakaskuntzari egin dioten ekarpena ezinbestekoa izan da, orain beste emakumezko belaunaldi batzuk gune publikoago batzuetan beste ekarpen batzuek egiteko. Are gehiago, ez dut uste irakaskuntzari

eskaini diotena bere burua beste ezertan aritu ez zitezkeelako zenik, baizik eta irakaskuntzaren bidez eragin dutela gizartean beren sareak errazago heda zitezkeelako. Eta Elbira Zipitria, Errose Bustintza edo Sorne Unzueta dira lehen adibide batzuk¹⁸⁰, Linda Whitek 121 emakumezko aipatzen ditu¹⁸¹, baina ondoren etorri zirenak (Marijane Minaberri, Patxika Maria Erramuzpe, Maddi Pelot, Mariasun Landa, Amaia Lasa...) ere hortik abiatu ziren, eta ondoren emakumezkoak berriz hasi ziren prentsan Pilar Iparragire, Lurdes Auzmendi, Elixabete Garmendia, Arantxa Urretabizkaia, besteak beste.

Kanpoko zokoratze batez gain ere aitortu behar zaie aurrekari izan diren euskal emakumezko idazleei, idazteaz gain, bizitzan eta gizartean parte hartzeko borondate, jarrera eta praktikotasuna erakutsi dutelako. Eta uste dut molde bertsuan gertatu dela alor askotan.

6.3. IDAZLE PROFESIONALAK

Emakumezko idazleen presentzia honek berriro garamatza idazle profesionaleri buruz hausnartzera, eta profesionaltasunari begirada bat ematera. 1977rako gaia aztertua zuen Juan Mari Torrealdai bere Euskal Kultura gaur, Liburuaren munduan hamar orri eskainiz¹⁸². Torrealdai dionez, idazlea profesionaltzat hartu ohi da bere sarrearen % 50 autore-eskubide gisa jasotzen duena. Hogeita bi urte pasatu dira euskal idazle profesional izateari eta egile eskubideen ordainketari buruzko galdeketa egin eta lehenengo ondorioak atera zirenetik. Laburrean adierazteko, 1997an idazle-lanengatik jasotzen zuena huskeria zela zeritzotenak gehiago ziren (% 69,6), idazle eskubideak-eta osagarri inportanteak zirela ziotenak % 87, eta idazle-lanetik osoki bizi zirenak % 6¹⁸³, hamazazpi lagun.

Euskal liburugintzaren parametro berdin-berdinak erabiltzen ari ez garenez, ezin dira zehatz-mehatz erkatu orduko datuak era oraingoak, baina bistan da emakumezko idazleen kopurua asko handitu dela, batez ere, ikerketan eta sorkuntzan ari den emakumezko idazle kopurua ere handitu dela.

¹⁸⁰ ETXEBERRIA, Igone "Euskal pizkundeko euskal emakume idazleak" in <http://www.euskonews.eus/0628zkb/gaia62802eu.html>

¹⁸¹ "Discovering the Basque woman writer: Her contributions prior to the Spanish Civil War" *Letras peninsulares*, 12, 2000-2001, 677-694 "Escritoras vascas del siglo XX: aproximación histórica" in Zavala, Iris M. *Breve historia feminista de la literatura española (en lengua catalana, gallega y vasca)*, 2000, 265-283. Espainiako gerraurrean 43 kontatu ditu, eta gerraostean 78. Haren kalkuluen arabera, idazle kopuru osoaren % 32.

¹⁸² Aip. ob. 416-426.

¹⁸³ Aip. ob. 421.or.

Hala ere, orokorrean, esan liteke, euskal letretan azken urteetan ere, profesionaltasunera jo nahi duen idazleak kontsideratu behar dituela euskal letren sistemak idazleentzat *Idazleak eskoletan* programak edota irakurketa klubek profesionalizatzeke eskaintzen dituzten aukerak. Eta, beraz, haur eta gazte literatura edota narrazioa hautatu behar dituztela euskal letra-sisteman tokia hartuko badute. Azken urteetan ikusten denaren arabera, ordea, gero eta gehiago dira bere lanbidea unibertsitatean edo ikerketan duten emakumezko ikertzaileak eta idazketa sortzaileari ekingo diotenak. Ezagun diren izen batzuk aipatzearren, hona: Mariasun Landa, Laura Mintegi, Lourdes Oñederra, Amaia Iturbide, Eider Rodriguez, Mari Luz Esteban, Ixiar Rozas...

Galdera izan daiteke, ea gaur egunean jabetgo intelektualak bermatzen dituen egile-eskubideak al diren egile-eskubide guztiak, eta idatzi ahal izateko egile eskubide horien baitan geratzea erabaki ez duten idazleak ezin ote diren idazle kontsideratu. Hein batean, elite-kirolean egiten den galdera bera ere bada, eta funtsean planteatzen duena da jardun bererako ez dugula kontzeptualizazio berbera.

Egun, lanbidez idazle diren emakumezkoak ere ugaritzen ari dira, profesionalki ari ez direnak ere idazle dira, geure literatura-historien parametroetatik begiratuta edota EIEk eta Idazle Elkarteek darabiltzaten parametroetatik begiratuta.

Egunetik egunera ugaritzen ari dira euskal emakumezko idazleak, batzuen ibilbidea oraindik laburra izan arren.

Profesionaltasunaren eta ohiko idazlearen arteko auzirako ere irtenbide bat izan daiteke, beti ere arbitrarioa, baina zenbakitara ekartzeko modukoa egun euskal idazletzat hartzeko zenbat liburu behar dituen argitaratuak emakumezko batek. Adibidez, zenbat euskal emakumezko idazle dagoen orain gure artean, sei-hamar liburu baino gehiago idatzi dutenak. Arbitrarioa izanik ere baliagarri izan litekeen azterketa da euskal emakumezko idazleen ibilbidea neurtzeko. Baina hau ez da auzi nagusia kasu honetan.

Gainbegirada batean hamar liburu baino gehiago idatzi duten emakumezkoen zerrenda eginez gero, **23-25 emakumezko badago dagoeneko, eta bost-hamar liburu bitarte idatzi dituztenen artean, 33-35 emakume idazle gutxienez.** Horien artean, azpimarragarria da 2005etik aurrera argitaratzen hasi diren idazle askok urtean liburu bat

argitaratzen dutela, eta anitz direla 10 berrargitalpenetara iritsi diren liburuak. Inoiz ez bezalako emakumezko idazle-multzorik emankorrena, inolaz ere.

Finean garrantzizkoa da ezagutzea zein garen emakumezko idazleak, eta zein toki hartzen dugun eta har genezakeen euskal letren sisteman. Horretarako, aintzat hartu behar da eta zerrendatu **autoekoizpenaz eta autoedizioaz** baliatzen diren emakumezkoak, **talde-lana edota diziplinartekotasuna** hautatzen duten **emakumezkoen plataformak (Sareinak, Dejabu...), paperera iristen ez diren letren eta ideien ibilbideak.**

6.4. EMAKUMEZKOON PRESENTZIA ANTOLOGIETAN, LIBURU KOLEKTIBOETAN ETA SAREAN

6.4.1. Behingo hartan: emakumezkoak antologia eta liburu kolektiboetan

Obra oso egonkortua duten idazleen ibilbidea aztertzen denean bere obrarik garrantzizkoenak aipatzen eta famatzen dira, batez ere. Ordurako, bere obra sustatzea baino garrantzizkoagoa bihurtua da bere sorkuntza-lana interpretatzea, bere ausazko eredugarritasunaz aritzea, bere originaltasunaz edo garaikide izateaz jardutea, edo baita lan hori itzultzeko aukeraz.

Idazle eta obra horiek, baina, ez ziratekeen ezer asko izango, ziurrenera, norbaitek (argialetxeren batek, irakurleren batek, irakasleren batek, elkarteren batek...) noizbait bestelako lan xumeagoren bat argitaratzeko apustua egin izan ez balu, dela aldizkariren batean, dela almanakaren bateko orri batean, antologia batean edo plataforma birtualen batean.

Egia da, bestalde, behingo batean, halako batean, bere obrarekin letren plazara irten den idazle askok ez duela berriz argitaratu bere obra propioa, eta, hala ere, euskal letretan bere tokia hartu izan dutela irakurle adimentsu gisara edo erreseina-egile, irakasle edo ikertzaile gisara.


Esan liteke, bada, emakumezko idazle askok ez duela bere obra egonkortu, eta hala ere euskal letretan eraginkor izan dela bere neurrian. Burura datozkit, adibidez, behin bakarrik jokatzeko

idatzi diren eskola-antzerkiko testuak. Azpimarragarria da, adibidez, nola galtzen diren eskola-antzerkiko egileen izenak¹⁸⁴. Har dezagun 2005eko alea: atzean agertuko dira urte urte argitaratu diren antzezlan guztien izenburuak, baina ez bere egileena. Gainbegirada bat emateko 1998, 1999 eta 2005eko liburuen aurkibideetan, **hogeita hamaika emakumezko idazleren izenak aurkitu daitezke**. Baina, antza denez, eskola-antzerkia idazteak ez du idazle kategoriarik ematen, eta aurkibide orokorretan idazleen izenak ez agertzeaz gain, hainbat kasutan ikasle-irakasle gisa sinatzen diren lan gehienak emakumezkoenak izatea ez da harrigarri gertatuko. Hala ere, bistarazi beharrekoa da alde batetik, euskal letren ikuspegi oso bat izateko, eta bestetik, egoera honek erakusten duelako hainbat emakumezko idazlek ez duela bere lana egonkortzeko modurik aurkitu, euskal emakumezko idazleen sorkuntzan lanen kalitateari buruz euskal literaturaren historian egon diren aurreiritziak medio.

Egundainoko euskal emakumezko idazleen ibilbidea aztertzeke eta antologiak arakatzuz ikus daitekeenaren arabera, esan liteke, XX. mende hasieratik 70eko hamarkadara bitarteko ibilbidea nahiko geldia eta zaila izan dela.

Testuinguru zail batean (gerrak, gerraosteak, atzerriratzeak...), emakumezko gehienentzat eguneroko bizimoduari aurre egiteaz gain, sare sozioekonomikoak antolatzeak izan du lehentasuna, eta gerraurretik talde-lanean aritu zen. Euskal emakumezko idazleen lana ez da profesionala izan, gehienetan, emakumezkoen sareak, irakaskuntza, helduen alfabetatzea, norbere lanbidez kanpo antolatu behar izan direnez.

Emakumezkoak talde-lan hauetan izan dira aurrelari ere kultura mailan, Elbira Zipitria¹⁸⁵ izan zen bezala irakaskuntzan edota Lourdes Iriondo kantagintzan¹⁸⁶ edo Mayi Pelot¹⁸⁷ zientzia-fikzioan eta liburu ilustratuak argitaratzen. Hala ere, emakumezkoaren arrakasta publikoa ez da automatikoki onartzen euskal letren sistema eta ez eta bere sorkuntzan lanaren originaltasuna ere, ondoren hainbat antologia eta liburu kolektiboren errepasoa egiterakoan ikus daitekeenez. 1970etik aurrera egin diren poesia eta testu-antologietatik ikus dezakegu zenbat emakumezko agertzen diren bilduma horietan. ELERako egindako zerrendak laguntzen du emakumezkoen presentziaren eta onarpenerako bidea egiten. Hona gerraostetik XX. mende amaiera bitarteko hainbat antologia aztertzeak ematen dituen datuak:



¹⁸⁴ Ez dira urte guztietakoak aztertu, arestian aipatutako urteetakoak baizik. *Eskola Antzerkia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 1998, 1999, 2005. Ez dira txertatu gaur egun idazten ari diren emakumezkoen artean.

¹⁸⁵ *Ira* ezizenez sinatzen zituen bere idatziak.

¹⁸⁶ 1964an ateratu zuen Mikel Laboak bere lehen disko txikia eta 1967an Julien Lekuona eta Lourdes Iriondok. Lertxundik eta Letek 1968an argitaratu zituzten eta 1969an Oskarbik. Ikus ARISTI, Pako *Euskal kantagintza berria. 1961-1985*. Donostia: Erein, 1985, 38. or.

¹⁸⁷ Maiatzan argitaratu zuen 1984an Biharko oroitzapenak eta 1987an *Teleamarauna*, Marie Thérèse Peillenen irudiekin. Liburuaren kontrazalean idatzita agertu zuen: "Euskarari eremu berriak hunki erazten zizkion. Hemen ere, euskara hitz berri askoren eraikuntzara plegatzen da, ez den, baina susma genezakeen mundu baten azalgarri..."

6. Taula. EMAKUMEZKOEN PRESENTZIA TESTU-ANTOLOGIETAN

TESTU ANTOLIGIAK	ARGITARATZE DATA	IDAZLEAK DENERA	EMAKUMEZKOAK	%	ETA IZENAK
<i>Fantasia y realidad. Antología literaria vasca</i> ¹⁸⁸	1964		0	% 0	
SAN MARTIN, Juan <i>Uhin berri</i> 1964-1969	1969	25	2	% 8	Patxike Erramuzpe, Amaia Lasa
DIAZ PLAJA, Guillermo <i>Literatura vasca</i>	1972	90	2/3 ¹⁸⁹	% 2,22 - % 3,33	Bizenta Mogel, Sor Miserikordia, Juliana Azpeitia.
<i>Euskal literatura 72.</i>	1972	9	1	% 11,11	Arantxa Urretabizkaia
ONAINDIA, S. <i>Las 100 mejores poesías de Amor de la Literatura Vasca</i> ¹⁹⁰	1975	39	1	% 2,57	Robustiana Mujika
<i>21. Hordago</i>	1978	23 ¹⁹¹	1	% 4,38	Amaia Lasa
<i>Euskal poetak eta artistak G. ARESTIren omenez</i>	1978	47	2	% 4,25	Balendine Albizu, Amaia Lasa
ONAINDIA, S. <i>Gaurko olerkarien euskal lan aukeratuak</i>	1981	58	2	% 3,44	Amaia Lasa, Patxika Erramuzpe
<i>Trotromorto-ren ipurdikoak. Kontrantologia poetikoa. Anales de Trotromorto</i>	1981	21	2	% 9,52	Blanca Gil (gazteleraz) Tere Irastortza (euskaraz)
<i>Euskal poesia Kultoaren Bilduma I (1880-1963)</i>	1982	16	0	% 0	Amaia Lasa, Arantxa Urretabizkaia, Tere Irastortza
<i>Euskal poesia Kultoaren Bilduma II</i>		39	3	% 7,69	
<i>Gerraondoko poesiaren historia</i>	1982	12	0	% 0	Hala ere aipatzen da 2 aldiz Amaia Lasa, eta beste bi aldiz (luzeago, Arantxa Urretabizkaia)
EUSKALTZALEAK. <i>Eusko Olerkiak (1930-1934). Lore jokoan inguruan</i>	1985	16	1	% 6,25	1933an Errobustiane Muxika, «Tene». Bestela % 0
<i>Lore KONTU. Kontu LORE</i>	1986	13	2	% 15,38	Maria Angeles Angoitia, Ana Urkiza
<i>Irakaskuntza ertainetako Urruzuno Literatur lehiaketa. Lan sarituen bilduma</i> ¹⁹²	1986	15	12	% 80	Nekane Aztiria Etxeberria, Ainhoa Basterra Fdez., Jaione Garmendia Etxabe, Ester Zabaleta Umerez, Antziñe Agirre Larrea, Amagoia Gurrutxaga Uranga, Inge Mitxelena Albisu, Nora Pikaza Irigoien, Karmele Altuna Jauregi, Mirari Arrizabalaga Linaza, Gotzone Olarra Allika, Arantzazu Olazabal Elorza

<i>Oraiko olerki sorta bat</i>	1988	49	8	% 16,32	A. Urretabizkaia, Mayi Pelot, Amaia Lasa, Itxaro Boda, Tere Irastortza, Amaia Iturbide, Gotzone Sestorain, Henriette Aire
<i>Barre-zirika.</i>	1991	5	2	% 40	Lurdes Bassterretxea, Ana Urkiza
URKIZU, <i>Patri Antología de la literatura vasca</i> ¹⁹³	1992	40	0	% 0	
HITS&FITS BAND Hutsalak. <i>Gaurko poesia ezezagunaren Antologia bat. Una antología de poesía desconocida de hoy</i>	1996	12/ euskaraz 7	2 eta euskaraz	% 16,66 eta euskararekiko % 28,57	Araitz Padron, Antxiñe Mendizabal
<i>A ponte das palabras. Hitzezko zubia 1900-2000</i>	2000	20	4	% 20	Castillo Suarez, Miren Agur Meabe, Aurelia Arkotxa, Isabel Diez, Miren Garcia de Cortazar
<i>Hatsaren poesia 1999-2018</i>	1999tik aurrera	372	120	% 35,2	2018an 33 emakumezko, % 33,33 2019an 57 emakumezko, % 45,96
<i>Beste bat apalerako</i>	2001	11	3/4 ?	% 27,27	A. Gojenola?, Garazi Urdanpilleta, Miren Salaberria eta sei ilustratzaile
<i>Ametsen baratza Sorgintxulo gaztetxean ereindako berbak</i>	2005		10	% 40	Itxaro Borda, Karmele Jaio, Tere Irastortza, Uxue Alberdi, Goizalde Landabaso, M. Lujanbio, I. Rozas, Miren Agur Meabe, Castillo Suarez, Eider Rodriguez
<i>Lauaxeta. Idazleek idazleari. Omenaldia</i>	2005	17	4	% 23,59	Hitzaurre eta epiloogoak kenduta
<i>39 idazle nafar</i>	2017	39	10	% 25,64	Ane Ablanado, Leire Alonso, Aurelia Arkotxa, Tania Arriaga, Itxaro Borda, Miren Epalza, Inma Errea, Izaskun Etxeberria, Ana Jaka, Marikita Tambourin.
EGAN aldizkaria (1993-2017)	-	362	74	% 20,4	-

188 Antologia elebiduna. Emakumezko idazlerik ez

189 Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca. 1975. Ez da Aresti sartzen, adibidez. Aurrekoak dira, batez ere.

190 Sor Luisa de la Miserikordia, artean ez zen kontsideratzen goitizena zenik.

191 Antologia elebiduna. Emakumezko idazle bakarra, eta hura euskalduna

192 1986an irabazle izandako emakumezkoen zerrenda bakarrik ageri da. Urruznotarren zerrenda osoa ikus liteke <http://tereirastortza.com/index.php/emakume-idazleak/zerrendak/420-1996-2018-urrunzuno-literatura-saria-irabazi-duten-neska-gazteak>

193 Kurioski, hautatutako 40 lanen izenburutatik 15etan emakumezkoen buruzkoak direla ageri da, emakumezko idazleak agertu ez arren.

Antologietan parte hartzeak, normalean, egilearen adostasuna eskatzen du, baina onspen sozialaren aztarna ere bistan uzten du, antologia egileak hautatzen duenez antologian nor sartu edo ez bere irizpide literarioz erabakitzen duenez. Zentzu horretan antologia batetik bestera errepikatzen diren egileekiko kanpoko begirada batetik eman dezake zer pentsatua antologatutako idazleek literatura-sisteman duten onspenez, originaltasunaz, kanona osatzeko desiraz. Lehen ikuskatze hutsez, antzematen da, beraz, antologia egileak buruan ibili izan dituen irizpideak eta baita aurreiritziak. Hona batzuk:

- Antologiek hartzen duten urte tartekak eta aldiak asko aldarazten dute aintzat hartzen diren emakumezko idazleen hautapena. Aldi historikoa zabalitzen den heinean, emakumezko idazleen ehunekoak behera egin ohi du. Garbi geratzen da azken hiru hamarkadetan % 30etik

gora egin duela emakumezko idazleen presentziak. Hautaketa zehazten den neurrian, berriz, alegia, editore batek edo koordinatzaile batek egiten duenean hautapena (zortzi, hamar, berrogeita hamar idazle...) edo ukitu historiko-zientifikoa eman nahi zaienean, emakumezko idazleen multzoak eta batez bestekoak behera eginen du arras, batez ere, literatura-jakinduriaren erpinean edozein sistemak jartzen dituen literaturaren historietan.

- Oraindik asko falta da emakumezkoak kanonean sartzeko, eta ez da ezer asko egin emakumezko idazleen kanona sortzeko. Mariasun Landarena da kasu esanguratsua, hain zuzen ere, batez ere, haur eta gazte literaturan ari delako. Eta orokorrean hainbat genero (poesia, haur eta gazte literatura, antzerkia...) ez dira oraindik letren eta literaturaren historien munduan txertatzen.

7. Taula. EMAKUMEZKO IDAZLEEN PRESENTZIA WEBGUNEETAN

WEBGUNEAK - 2019ko martxotik maiatzera kontsultatuak	DENERA IDAZLEAK	EMAKUMEZKOAK	%	IZENAK
https://eu.wikibooks.org/wiki/Euskal_literatura/50_idazle	50 (46)	3	% 6 - 6,52	Jasone Osoro Igartua, Amaia Lasa Alegria, Ixiar Rozas Elizalde, Enkarni Genua Espinosa, Mariasun Landa Etxebeste, Marijane Minaberri -«Andereño»-
2015-03-05ean azken berrikuntza - Azken urteetako Haur eta Gazte Literatura	11	3	% 27,27	
https://www.ehu.eus/ehg/literatura/idazlea?page_id=3 Idazleak	191	15	% 7,85	Aurelia Arkotxa, Yolanda Arrieta, Itxaro Borda, Arantxa Iturbe, Tere Irastortza, Amaia Iturbide, M.J. Kerexeta, Mariasun Landa, Amaia Lasa, Miren Agur Meabe, Laura Mintegi, Bizenta Mogel ¹⁹⁴ , Lourdes Oñederra, Jasone Osoro ¹⁹⁵ , Ixiar Rozas, Arantxa Urretabizkaia.
Liburuak		15		
Liburuen erreseina-egile emakumezkoak	32	10	% 31,25	Axun Aierbe, Miren Billelabeitia, Lourdes Otaegi, Iratxe Retolaza, Idurre Alonso, Maialen Arnedo, Garazi Rota, Miren Ibarluzea, Amaia Serrano, Iratxe Martin.
https://zubitegia.armiarma.eus/?a=z	972	143	% 14,71	-
https://www.idazleak.eus/euskara/idazleak/	461	99	% 21,47	Literaturaren zubitegian agertzen ez diren 30 idazle ageri dira.
www.idazten.com	125	77	% 61,6	
https://eu.wikipedia.org/wiki/Euskal_literatura Idazle garaikideak	37	6	% 16,21	

6.4.2. EMAKUMEZKOEN PRESENTZIA, SARE BIRTUALETAN

Euskal letren sisteman sare birtualek indar handia hartu arren, nahiko fenomeno berria da. Abantaila berriak eskaintzen dituzte liburu gisa argitaratzeko zail diren generoak argitaratzeko aukera, irakurketa eta deskargak modu publikoan kontrolatzeko aukera, metadatuak txertatzeko aukerak, testuak beste diziplina artistiko batzuekin batera osatzeko aukera, informazioa partekatzeko erraztasuna...

6.4.3 EMAKUMEZKO IDAZLEEN IBILBIDEA

Hainbat argitaletxeren eta bildumen garapen historikoak ere lagun dezake emakumezkoen ikusgarritasunaren garapena aztertzen. Gero argitaletxeak, adibidez, sail guztiak kontuan izanda, 1975etik 1992ra bitarte, 167 izenburuen artean emakumezkoek idatzitako hiru eman zituen argitara, bi Lourdes Iriondorenak ziren, eta hirugarrena Rosa Miren Pagola ikertzaile eta unibertsitate irakaslearena. Beste alde batetik, *Maiatz* argitaletxeak, 1983tik 1987ra bitarte, 13 liburu eman zituen argitara eta horien artean bost emakumezko idazleren lanak, Itxaro Bordarena, Mayi Peloten bi lan, Gotzone Sestorainena eta Marisa Gutierrezena. Garbi ikusten da, bi argitaletxeren arteko ikuspegi ezberdintasuna.

Beranduago sortu zen *Txalaparta* argitaletxeak Amaiur bilduman euskaraz argitaratutako 33 liburuetatik 5 ziren emakumezkoenak (horietako bat emakumezko idazleen antologia bat, *Gutiziak* izenekoa, 24 emakumezkoren lanak plazaratu zituena, eta garrantzi handikoa izan zena, 2000. urtean) eta bi liburu egile bakarrarenak.

Maiatz bezalako argitaletxe txikiak gai honetan izan duten sentsibiltateak eragin du emakumezkoen presentzia handitzea. Eta emakumezko idazle berriek argitaratu ahala, lehendik argitaratu zuten batzuk ere hasi ziren idazten XX. mende amaieran. Horietako batzuk hilik dira. **XXI. mendean zendu dira** gerraurreko azken euskal emakumezko idazleak (Extefana Irastortza, Anita Larrea...) ikasketa handiegirik ez, eta euren bakardadetik, beren eta aurrekoen bizitzaren berri idatzi nahi izan dutenak, pixka bat lehenago Mari Trekuk, Perpetua Saraguetak edota Mikela Elizegik egin zuten bezala —hiru hauek, bertsolaritza-familietako emazte eta alaba, eta bere obra laburra bere azken urteetan idatzi dutenak— eta beharbada, XX. mendean frankismoan hezi eta bere azken urteetan beren bizipenak idazten ari diren emakumezkoentzako ere

bidea irekiko dietenak. Azken urteotan bere bizipenen lekukotasuna ematen ari da hainbat emakume, aldi berean, autobiografia eredu eraldatuz (Arantza Urretabizkaia, Mariasun Landa, Miren Agur Meabe, Maite Gonzalez... eta gazteleraz Idoia Estornes bat, adibidez).

Azpimarratu behar da **Auspoa** saila izan dela nekazari-giroko kulturaren erakusleku nabarmena, eta bertan argitaratu ezean, idazle euskaldun askok ez zutela sekula argitaratuko. Baina maila horretan Auspoak ez die toki handirik eskaini emakumezko idazleei, gizonezkoek eskaini izan dien bezala. Gaur egun, 1940ko hamarkadan jaiotako idazleez gain, 60ko hamarkadan jaiotako emakumezko idazle hazkunderari 1990eko hamarkadan jaiotako idazle kopurua gehitu behar zaio.

Eta bidea anitza eta arrakastatsua gertatzen ari da, nabarmenki. 40ko hamarkadan jaiotakoek (Amaia Lasak, Arantxa Urretabizkaia, Mariasun Landak...) idazten eta argitaratzen jarraitzen dute, eta bide luzea egin dute. Arantxa Urretabizkaia eta Mariasun Landak, batez ere, hasiera-hasieratik jaso dute onarpena eta ibilbide luzea dute. Hasieratik, literatura sozialaren garaiarekiko beren tarte hartu zuten, eta erlijioarekiko hartu zuten tarte handiagoa izan zen gizonezkoena baino. Emakumezko pertsonaia anitz eta konplexuak sortu dituzte bai poesian, narrazioan eta baita haur eta gazte literaturan ere.

1980ko hamarkada inguruan idazten hasitako emakumezko gehienek ere bide luzea egin dute literaturan (Itxaro Borda, Arantxa Iturbe, Amaia Iturbide, T. Irastortza, Laura Mintegi, Miren Agur Meabe...) eta horien onarpena geldiagoa izan den arren, bide luzea egin dute, garaikide izan zen tropelaren ibilbidearen parekoa, bide paraleloak hartuz izan bada ere hainbatetan.



Horrenbestez, 2006an Ana Urkizak *Zortzi unibertso*. *Zortzi idazle*¹⁹⁶ liburua euskal emakumezkoen ikur gisara argitaratutako garaia atzean geratu dira. 2006an gutxi ziren hamar liburu idatzi zuten emakumezkoak: Mariasun Landa, Itxaro Borda, eta itzulpenak sartuta Arantxa Urretabizkaia. Neurri handi batean, idazteaz gain beste hainbat proiektu abiarazteko garaiak ere izan zirelako: (argialetxegintza Arantxa Urretabizkaia eta Itxaro Bordak), itzulpengintza, gidoigintza, UEU... Baina ordurako Jasone Osoro Igartuak, lehen liburua 1998an argitaratu zuenak, edota Castillo Suarezek, lehen liburua 1999an argitaratu zuenak, zortzina liburu zituzten argitaratuta. Argitalpen **abiada bizkortu dute hamarkada batean** euskal emakumezkoek, **argitaratzen hasi eta etenik gabe jardunez**.

Eta hauek hartutako bideari lotu zitzaizkion 2008 inguruan euskaraz argitaratzen hasi ziren emakume asko. Hamarkada bakarrean hamar liburu idatzi duen emakumezko idazle asko dago: Katixa Agirre, Yolanda Arrieta (1963an jaioa izanagatik garai horretan argitaratzen hasi zena), Uxue Alberdi Estibaritz, Antxiñe Mendizabal Aranburu, Leire Bilbao Barruetabeña. **Bere obra egonkortu duen emakumezko talde bati, denbora gutxian obra luzea argitaratu duen euskal emakumezko taldea gehitu zaio**, berretsiz Juan Mari Torrealdaik 1994 argitara emandako txostenean zioena, alegia, sexua bereiziz gero, emakumezko idazleen emankortasuna askoz handiagoa zela. Emakumezkoak urte horretako % 12 izanik, emakumezkoen produkzioa % 26koa baitzen, 58 idazlan, alegia¹⁹⁷. Zifrak alderatzeko moduan ez gaude, ikerketaren baldintzak ezberdinak izan direnez.

XXI. mendean, hainbatek argitaratzen hasi orduko liburu-andana argitaratu du urte gutxian, horien artean, Alaine Agirre Garmendia, Katixa Agirre. Aipagarria da, antzerkigintzan gertatzen delako, isilago pasatzen den Alaitz Olaizolak argitaratutako eta zuzendutako antzerki-lan kopurua ere. Horiekin batera, aldi berean, urte gutxian emakumezko idazle asko euskaraz argitaratzeko argialetxeetatik kanpo aritu dira autoedizioaz baliatuz (Maider Agirre Gurrutxaga, Itxaro Mendizabal...), eta hori ere azpimarratu beharrekoa da emakumezko idazleen hazkundea halako politika errukibera batekin lotzen delako hainbatetan, esanez emakumezko izateak erraztu egiten duela argitaratzea.

Guztiarekin, nabarmentzekoa da, badugula, lehenengo aldiz, bide luzea egin duen euskal emakumezko idazle kopuru ederra. Gaztetan idazten hasi eta helduaroan idazteari utzi ez dion euskal emakumezko-soka, aurreku-atzesku plazan ari dena. Eta adierazgarria izan daiteke **gerraurretik sortu zen euskal emakumezko idazleek ondorengoko emakumezkoekin lotura egitea nahiko nekeza izan zen arren, gerraosteko euskal emakumezko idazleen soka ez dela eten**.

Beste alde batetik, hasieran oso emakumezko gutxi egin bazuten modu profesionalean idazle gisara aritzeko apustua, XX. mendeko azken laurdenean hasitako emakumezkoek idazle profesional gisa aritzeko bide berriak urratu behar izan zituzten (prentsan, irakaskuntzan, gidoigintzan arituz) **eta euskal letren sistema zabaltzeko orduan aukera berriak sortzen ere trebeak izan dira** (txotxongilo, ipuin-kontalari, gidoigile, esatari, komikilari, hizlari...). Beste alde batetik, emakumezko gehienek, idaztetik bakarrik bizitzea erabaki ordez, nahiago izan dute idazteko oztoporik eragingo ez dieten lanbideak hautatzea. Honek ekarri duela, aldi berean, euskal emakumezko idazleen obraren oparotasuna. Beste batzuek, idazle profesional izateko urratsak eman dituzte, batzuetan, lehenik bere idazle izateari buruzko errekonozimendua lortu ondoren (Miren Agur Meabe, kasu).

Arestian aipatutako Urruzunotar idazleen bideari jarraipena eginez gero, ikusten da egun idazle gisa obra idazten ari diren batzuk jasoa zutela Urruzuno lehiaketan sari bat baino gehiago, Alaine Agirre, kasu. Horrekin batera ere esan behar da asko luzatu dela emakumezko idazleen zerrenda. *Bergarako Idazle Eskolako* eta *Hatsa Elkarte* artean, azken hamabost urteetan 75-85 emakumezko berri iritsi da euskal letretara. Horietatik, 43-45 dira, oraingoz, libururik idatzi ez dutenak, nahiz eta horietako batzuk paperezko euskarririk pasa izan diren baita gidoigintzara, ipuin-kontaketara, *performance*etara... **Alegia, talde-lanean ohitutako idazleen % 50 iritsi dela, dagoeneko, liburuak idaztera**.

¹⁹⁶ Donostia: Alberdania.

¹⁹⁷ Aip. ob. 393

Denon artean edo Txakur gorria bezalako argitaletxeek edota hainbat liburu-dendek taldea eta diziplinartekotasuna bultzatzen dute.

Saiakera eta ikerketa. Idazten ari den euskal emakumezko askok prentsa edota unibertsitate-karrera hautatu du. Euskal prentsan bertako erredakzioek azken hamar urtean emakumezkoen presentzia bermatu eta bultzatu dute¹⁹⁸.

Argia eta Berriako erredakzioan egindako genero-azterketek adierazten dute, iritsiak direla emakumezkoen %40 bermatzera erredakzioan. Tokiko komunikabideetan ageri diren datuak esanguratsuak dira. Dirudienez, euskarazko prentsan emakumezkoen ahotsa indartsuagoa da:

“Iritzi emaileei dagokionez tokiko hamaika aldizkari aztertu dituzte –tartean ostiraletako Goiena aldizkaria–. Aztertutako 410 iritzietatik 160 (% 39) emakumeek sinaturikoak dira, 202 aldiz gizonezkoek idatzitakoak (% 49,3). Beste % 11,7 sailkatu gabekak dira (talde edo elkarleen izenean idatzitakoak). Tokikoen datuok Berria egunkariaren antzerakoak (% 33) direla nabarmendu dute ikerlariak; ehunekoia zertxobait txikiagoa da Gara-ren kasuan (% 29). Beste muturrean daude Noticias de Alava (% 16,5) eta Diario de Navarra (% 10). Goienari dagokionez, ia % 50 dira emakumeek idatzitako iritzi artikulua, % 49,28 zehazki. Era berean, ikerlariak nabarmendu dute “emakume gazteen iritziek badutela lekua tokiko aldizkarietan”, horien artean Goiena¹⁹⁹.”

XX. mendeko 80ko hamarkadan idazleen eta ikertzaileen arteko bideak gaur egun baino bereziagoak zeuden. Unibertsitateko lan-mundura sartutako euskal emakumezko idazleen bizia luzatu ahala, gero eta emakumezko gehiago ari da unibertsitateko irakaskuntza eta ikerketa karrera egiten, eta ikertzaile, dibulgatzaile eta idazle bideak bateratzen.

6.5. ONDORIO BILA, BIDE BILA

6.5.1. Emakumezkoen sorkuntza-lanak literatura-generoen arabera

EHUko *Euskal liburuaren apalategia*²⁰⁰ plataforma urtez urte antolatuta dagoenez, oso baliagarria izan daiteke urtez urteko azterketa egiteko. Bertan argitaratutako liburuak literatura-generoen arabera sailkatzen dira, eta hainbat literatura-erreseina ere jasotzen da. Egileen ikuspegitik zehatza ez den arren, baliagarria da literatura-genero sailkapen moduan ere.

Ez dira aintzat hartu antologiak eta liburu kolektiboak (izenak garbi agertu ez direnean salbu), eta ezta aldizkarietako informazioa ere. Baina liburuaren industriari buruzko azterketa 2017ko datuetan oinarritu denez, datu hauek emakumezko idazleek argitaratzen dituzten liburuak literatura-generoak aztertzeak lagundu dezake irudikatzen zein norabide eman diezaiotegun emakumezkoen liburuak sustatzeko aukerari.

Hona azken urteetako datuak (2016, 2017, 2018) finkatutako eta homologatutako sailkapen baten arabera. EHUko ELAn ageri diren liburuak digitalki aurki daitezke, eta ondorengo urteetan modu erraz batean aztertzen jarraitzeko aukera eskaintzen dute.



¹⁹⁸ GUTIERREZ PAZ, Arantza, FERNANDEZ ASTOBIZA, Itxaso «Emakumeen presentzia eta ahotsa tokiko euskal prentsa iritzi-foroetan: artikulua-motak, sinatzaileen soslai eta gaiak» SARALEGI URIZAR, Xabier «Euskal Herriko prentsa digitalean emakumezkoek zenbateko presentzia duten kuantifikatzen testuen meatzaritza baliatuta» <http://beategia.eus/euskal-hedabideen-urtekaria-2018/>

¹⁹⁹ LARRAÑAGA, Itziar “Euskarazko hedabideetan emakumeek duten presentzia aztertu dute Behategiko kideek” 2019-4-30 <https://goiena.eus/debagoiena/1556623995228-euskarazko-hedabideak-aztergai-gaur-aurkeztu-duten-2018ko-urtekarian>

²⁰⁰ <http://ehu.eus/ehg/apalategia/?z=1>

8. Taula. EMAKUMEZKOEN SORKUNTZA-LANAK LITERATURA-GENEROEN ARABERA

2016	NOBELA	IPUINAK	POESIA	SAIAKERA ²⁰¹	DISKO-LIB	EUSKAL DUNTZE ²⁰²	KOMIKI ²⁰³	ANTZERKI	BERTSOA	HGN ²⁰⁴	HGP ²⁰⁵	DENERA
DENERA	28	7	27	85	2	3	8	5	2	36	4	207
EMAK. ²⁰⁶	3	1	6	26	0	1	3	1	0	18	1	60
%	10,71	14,28	22,22	30,58	0	33,33	37,5	20	0	50	25	29

2017	NOBELA	IPUINAK	POESIA	SAIAKERA	EUSKAL DUNTZE	KOMIKI I	ANTZERKI	BERTSOA	HGN	HGP	HGB K	KOMIKIA	IGAR ²⁰⁷	DENERA
DENERA	21	15	18	84	1	14 ²⁰⁸	4	3	36	2	2	3	2	200
EMAK.	8	8	4 ²⁰⁹	20	1	4/5 ²¹⁰	2	0	19,5 ²¹¹	0	1	1	1	62,5
%	38,09	53,33	27,77	23,80	100	35,71	50	0	54,16	0	50	33,33	50	31,25

2018	NOBELA	IPUINAK	POESIA	SAIAKERA	EUSKAL DUNTZE	KOMIKI I	ANTZERKI	BERTSOA	HGN	HGP	HGB K	KOMIKIA	IGAR	DENERA
DENERA	28	12	26	71	4	10	4	1	39	1	2	1	-	200
EMAK.	8	2	11	17,5	2	2	0	0	22 ²¹²	0	2	0	-	70,5
%	28,57	16,66	42,30	24,64	50	20	0	0	56,41	% 0	100	0		35,25

201 Taula hauetan: Saiakera, kazetaritza eta beste

202 Taula hauetan: Euskalduntzeko liburuak

203 Taula hauetan: Komiki liburuak eta nobela grafikoa

204 Taula hauetan: Haur eta Gazte narratiba

205 Taula hauetan: Haur eta Gazte poesia

206 Taula hauetan: EMAKUMEZKOAK

207 Igarkizun eta beste.

208 TXAKUR GORRIAKO ARGITALPENAK emakumezkoen lan kolektiboak dira, batez ere, 3 kontatu dira.

209 Txoriak dira bederatzi poema liburu gisara sartu da, eta Saiakera bilduman argitaratu zenez eta aintzat hartua izan zenez ez da kontuan izan. Beatriz Chivitek 2 liburu argitaratu ditu, baina egileak kontaktzen ari garenez, 1 kontatu da.

210 Beste batekin erdibana.

211 28 liburu. Emakumezko egile askok liburu bat baino gehiago.

212 Talde-lan askotan emakumezkoak bakarrik. 28 liburu. Emakumezko egile askok liburu bat baino gehiago.

Narrazioa eta poesia genero klasikoak alde batera utzita, garbi ikusten da **Haur eta Gazte literaturan nabarmentzen dela oraingoz emakumezkoen presentzia**. Narrazioan eta nobelan ageri den pisua aldakorragoa da, baina azpimarragarria da, aldi berean, **saiakeran eta dibulgazioan, eta euskalduntzeko liburugintzan ere, emakumezkoa nagusi** dela.

Ikerketa sakonagoak egiteari utzi gabe, **ematen du idazleek, profesionalizatzeko prozesuan, haur eta gazte literaturara eta dibulgaziora jotzeko joera dutela**. Esan liteke, ikasketa unibertsitarioak amaitu ondoren, emakume askok hartzen duela ikerlitzailerik bidea edota unibertsitate karrerakoa. Eta horretan, oraindik irakaskuntzan aritu arren, beste jauzi bat dago, Euskal Herriko eraldaketaren lekukotasuna ere ematen duena.

Bestalde, fikzioan diharduten emakumezko idazleen ondoan, saiakeran ere trebatuta dagoen emakumezko andana aurkitzea ere garrantzizkoa izan daiteke, emakumezkoen lana bistartzeko orduan. Unibertsitatean diharduten emakumeek sorkuntza-lanaren bertsio berriak bermatzeko aukera hobekak dituzte, eta haur eta gazte literaturaz gain, helduen irakurzaletasunean eragin handia izan dezakete, eta fikziozkoa ez den irakurlearengana iristeko aukera ematen dute.

Bi urtez behin UEU antolatzen dituzten Ikerlitzak jardunaldi-etan, berriz, esan liteke parekotasunera iritsi direla Batzorde zientifikoak eta teknikoak, eta baita txostenak aurkezten dituzten gazteak ere ²¹³.

Badirudi, EHUko irakasleen batez bestekoa ikusita, Unibertsitateko lan-ibilbidea hautatu duela euskal emakumezko agitzek. 2000. urteaz geroztik zabaldu egin da emakumezko irakasleen presentzia ikasketa maila guztietan, unibertsitatean barne. Ibilbide profesional luzeak direnez, garbi dago, unibertsitateetan karrera horien goien graduatara iritsi diren emakumezkoak ez direla oraindik berdintasunera iritsi.

9. Taula. EMAKUMEZKOEN PRESENTZIA BATZORDE ZIENTIFIKOETAN. ETA TXOSTEN EGILEEN ARTEAN GIZA ZIENTZIAN

	Batzordekide zientifikoak eta teknikoak	Ikertzaile eta txosten egileak giza zientzietan
Ikerlitzak I	25/ 13 emakumezko	-
Ikerlitzak II	51/ 24 emakumezko	40/22 emakumezko
Ikerlitzak III	86/48 emakumezko	31/18 emakumezko

kopuruetan, EHUko errektorea emakumezkoa izan arren. EHUko ELAN ikusten den gisan, saiakeran eta dibulgazioan emakumezkoen ehunekoa % 30 inguruan dabil azken urteetan. Ziurrenera, bai unibertsitatean, ikerketa-karreran eta baita prentsan ere emakumezko gazteak ari direlako, batez ere.

Espainiar estatuan argitaratu berri diren datuek lagundu dezakete hurrengo urteetako euskal emakumezko ikertzaileen ibilbideak egonkortzen²¹⁴ eta baita, ziurrenera, saiakerak hobeto zabaltzen ere. Beraz, pentsa liteke ikertzen ari den emakumezkoen proportzioa ere aintzat hartzekoa dela.

Liteke lehenik **euskal emakumezko idazleen aniztasuna adierazten duten** hainbat ezaugarri:

- Emakumezko idazleen presentzia nabarmena da talde-lanean antolatzen diren ekintzetan (Hatsaren poesia, ilunabar literarioak, irakurle klubak, Ikerlitzak bezalako topaketetan).
- Emakumezko asko idazten hasten da talde-plataformak erabiliz (Idazle eskola, Hatsaren poesia, argitalpen txikiak, album ilustratuak...).
- Ohiko generoez gain beti saiatu dira emakumezkoak genero berriak edo egoera berriak lantzen edo bultzatzen: aldizkariak eta euskal prentsa (*Ttu-ttua*, *Maiatz*, *Kandela*, *Gerediaga elkarteko hasierako buletina*, *Punto y Hora*, *Egin*, *Argia*, *Berria*...), ipuin kontaketa eta txotxongiloak (Enkarni Genua, Lupe Lekuona, Isabel Millet), hainbat kantu-letra (Kontxi Aizarna, Pantxika Erramuzpe).

²¹³ Argitaratzeko moduaren aldaketak eta izenen erreferentziak emateko moduan aldaketak izan direnez, giza-zientzietako txosten egileak bakarrik erkatu ahal izan dira, baina datuak esanguratsuak dira.

²¹⁴ *Científicas en cifras 2017. Estadísticas e indicadores de la (des)igualdad de género en la formación y profesión científica*. Madril: Ministerio de Ciencias, Educación y Universidades, 2019



- Generoak berritzeko saioetan ere parte hartu dute emakumezkoek (album ilustratuak, nobela grafikoak, fanzineak). Gaur egungo batzuk aipatzeagatik: Daniela Albizua Castelao, Ainara Azpiazu, Maite Gurrutxaga, Nekane Fernandez, Leire Salaberria, Goñi Liebana, Ana Toledo, Maddi Pelot (euskal zientzia-fikziozko lehen ordezkaria). Arte-ederretako formakuntza duen euskal emakumezko idazle asko Haur eta Gazte literaturan sartzen ari da.
- Garrantzizkoak dira sariketak eta ikerketa-bekak emakumezkoen lanak argitaratzeko.
- Autoediziora ere jotzen dute euskal emakumezko idazleek, gero eta gehiagotan (Maidier Agirre, Gema Ces Alkorta, Maria Basterretxea Urrusolo, Oskia Karrera, Itxaro Mendizabal, Idoia Larrañaga Fachado, Irene Urruzola, Joana Ziganda...).

Azpitarratzekoa izan daiteke, egungo euskal literaturari begira, *Literatur zubitegian* ageri ez diren 30 emakumezko agertzea EIEko idazleen plataforman. EIE hautatu duten 30 emakumezko horien profilek euskal literaturaren sisteman ageri ohi ez den hainbat ezaugarri adierazten dute; alegia, euskal letren sistemaren kontzientzia erakuts dezakete. Alde batetik, sare sozialekin eta ilustrazioarekin lotura duten egileak dira, sarri talde-lanean ohituak (ilustratzaile-idazle), EIEk antolatzen dituen hainbat ekimenetan parte hartzen duten idazleak (ipuin kontalariak, txotxongilo egileak...), literatura-kritikan ari diren emakumezkoak, auto-ekoizpenetik datozen emakumezkoak.



Azpitarratzekoa da emakumezko kritikariek eragin dezaketen mugimendua ere. *Euskal Unibertsitateko Liburuaren Apalategian (ELA)* ageri diren erreseina batzuk baizik ez dira aztertu lan honetan. Datu horien arabera, euskal emakumezkoek argitaratutako liburuaren % 30 inguru iristen da erreseina bat jasotzera. Arestian esan bezala, zenbat eta liburuari buruzko azalpenak zientifikoagotzat hartu (literatura-historiak, adibidez) orduan eta presentzia gutxiago dute gainera.

Euskal industriaren antolaketa neurri txikikoa izan arren, momentu honetan euskal letren sisteman seiehun emakumezko idazle baino gehiago aritzeak justifikatzen du emakume-talde hori euskal letren sisteman txertatzeko planteamendua. Eta hori kontuan hartuta antolatu da lan honen segidan euskal emakumezkoen liburuak sustatzeko plangintza.





**VII. kapitulua
KANONA,
HELMUGA
ETA OZTOPO**



Bikaintasun berezia duten hainbat obrek osatzen dute kanona, Harold Bloomentzat; beste batzuentzat, kanona eraikuntza-ideologiko jakin baten ondorioa besterik ez den bitartean.

Inolaz ere, luzaz irakurria izan den hainbat idazleren obra-multzo bati deritzo kanona. Eta idazle eta irakurle askok, hain jo dituzte eredugarri, non bidelagun hartu dituzten eta buruz ere ikasi dituzten, beren idazle eta irakurketarako eredu gisa. Alegia, kanonean sartzen da eredugarri jotzen den sorkuntza-lana.

7.1. EMAKUMEZKORIK BAI KANONEAN?

Gaur-gaurkoetan, onartua da kanona ikuspegi ideologiko eta sozio-politiko jakin batek eragindako eredu dela, eta, hain zuzen ere, gizon zuri itxuraz heterosexuala ordezkatzeko duena. Kanon unibertsaltzat dugun horrek apenas du emakumezkoen lanik ereduaren artean. Eta, oraindik ere, eragin handia du hainbat kultura-politika definitzean eredu horrek. Oso urrutira joan gabe, Euskal Herrian ere EHUko orriaren agertzen diren pentsalari-filosofoen itzulpenen artean²¹⁵. Koska ederra ateratzen dio EIZIEren Literatura Unibertsala²¹⁶ bildumak. Eta, hala ere, ez da iristen ehuneko hamalaura. Berdin, Euskal Klasikoen bildumak ere: 1545etik 1930erako euskal literaturaren ikuspegi ofiziala jartzen du mahai gainean. Egoera hobetu egin zen XX. mendeko poesia-kaierekin.

10. Taula. EMAKUMEZKOAK KLASIKO BILDUMETAN

KLASIKOAK EUSKARAZ	DENERA	EMAKU- MEZKOAK	%
EHU Klasikoak. Itzulpenak	175	3	1,71
EIZIE Literatura unibertsala	175	24	
EEE. Euskal klasikoak ²¹⁷	1-75	1	1,33
XX. mendeko poesia kaierak ²¹⁸	40	4	19

²¹⁵ <http://www.ehu.eus/ehg/klasikoak/>

²¹⁶ https://eizie.eus/eu/argitalpenak/literatura_unibertsala/orainarte

²¹⁷ http://www.euskara.euskadi.eus/r59-738/eu/contenidos/informacion/euskal_idazle_klasikoak/eu_6198/eus_idazle_klasikoak_e.html.

²¹⁸ <http://susa-literatura.eus/bildumak/kaierak/>

²¹⁹ *Poesia itzulpena: jarduera periferiko baten analisisa*. 11. or <https://addi.ehu.es/handle/10810/21398>.

²²⁰ Aip. ob. 11. or

²²¹ GARCIA BERRIO, A.; HUERTA CALVO, J. *Los géneros literarios: sistema e historia*. Madril: Cátedra.

Ana Garcia Lopezek itzulpengintza eta kanona aztertuz oso ondo laburtu duena ekarri nahi dut orri hauetara:

“Genero-ikuspegitik begiratuta, datu horiek baloratzen orduan, ez bairik gabe esan dezakegu euskaratutako poesiak kanonaren (eta gizartearen) joera “klasikoak” imitatu dituela: izan ere, emakumeen presentzia eskasa izan da kanonari egiten zaion kritika nagusietako bat”²¹⁹.

Ana Garcia Lopezek jarraitzen du:

“Hala izan da euskal literatura-kanonaren kasuan ere: “% 15 inguru gara emakumeak euskal literaturan, ezta hamarretik bi ere.” (Jimenez, 2011) edo “«emakumeen literaturaren booma» delako mitoarekin irudi faltsua zabaldu da, hau da, emakume idazle asko dagoela eta nolabaiteko parekotasunera heldu dela.” (Ubeda, 2014) bezalako esaldiek agerian uzten dute zein den egoera gurean”²²⁰.

Eta emakumezko idazlerik eza justifikatzeko hainbat arrazoi aipatu izan da, horien artean, emakumezkoen bizipenen partikularitasuna, eta emozioen pribatutasuna; hain partikular eta pribatu, non ez diren eta ez diren izango publiko egitekoak, zeren eta dagoeneko inork ez baitu ukatzen kanona ere alda daitekeela, literatura-generoak²²¹ ere aldatzen diren bezalaxe.

Egun, oraindano, eta beste zentzu batean bada ere, argudiaketa hori lotzen zaio maila intelektuari eta generoari ere. Pentsalari izeneko askok, arte eta zientziaren kanonak deskribatzean, emakumezkoen gaitasuna edo idatzi dutenaren interesgarritasuna gutxietsiz ere justifikatu izan dute emakumezkoek eza zientzia eta kultura alorretan; ez genero-bereizketan, baizik eta sexu bereizketan, oraindik ere.

Azken hogeitun urteotan joerak aldatzen ari diren arren, esan liteke aldaezin kontsideratzen duten ordena eta arau baten defentsa itxi eta itsuan dihardutenek, ahaztu egiten dutela literaturak berak ere baduela ordena hori ulertzeko, ezagutzeko eta eraldatzeko indarra. Izan ere, literatura bera ere gizartearen

jokatzen da: “Or, *parallèlement à ces études que la science consacre à l’organisation des textes littéraires, la littérature elle-même se pratique comme une recherche des lois de sa propre organisation*”²²².

Emakumezko idazleen kasuan, eta ez gutxiago edozein euskaldunen kasuan, balirudike orain arte literatura-kanonean²²³ edo klasikoan artean hain emakumezko gutxi sartu izan delako, inolako emakumezkoren liburuek ez dutela aukera izango berriz ere kanon horretan, goi-mailako literatura gisa irakurriak izateko; eta, beraz, ikuspegi horretatik idaztea alferrikakoa izan daitekeela, euskal gizonezko idazle izanda ere, aukerak hutsaren hurrengoak izan arren.

Katixa Agirre Miguelezek esaldi bat famatu berri du: “Idazle onak, egiaz, gizon nahi luke²²⁴.” Hala ere, emakumezkoen kanona sortu asmoz ari da emakumezko andana²²⁵; izan ere, emakumezkoen presentzia handitzeak ez baitu ekarri berarekin, oraindik, emakumezkoen sorkuntza-lanari begirada propioarekin begiratzeko tresnarik.

Orain artekoan, arrazoiak arrazoi, emakumezko sortzailerik ezari egozten zitzaion emakumezkoen lanik kanon horretara ez iristeko kausa. Juan Mari Torrealdaik 1997an egindako aurreikuspenen artean, ordea, ordurako, ikusten zen emakumezko asko sar zitekeela euskal letretan. Urte batzuen ikuspegia eman dezakeen Urruzuno literatura-sariketatoko datuek erakusten dute uhin handi baten bultzada espero zitekeela. 1986tik 2018ra Urruzuno sariketan²²⁶ irabazle izan diren egile gazteen zerrenda aztertuta, batxilergoa amaitzeko garaian, 474 idazle gazte euskal letren atea jotzen ari zitezkeen, prosan eta poesian bakarrik. Eta horietatik gehienak, neskak: **325** neska gazte, % **68,56**ko batekin.

Gorakada ez da, emakumezko askoren usteen, hainbestekoa izan (Garbiñe Ubeda, Irati Jimenez...). Baina 2000. urteaz geroztik, aurreikus zitekeen hainbeste gazte eta emakumezkoren txandak sortu du aztoramendurik euskal letretan. Polemikatan sartu gabe, gizonezkoen joera aldaketa ere arrazoitu izan da. Honela dio Xabier Mendigurenek²²⁷ emakumezko idazleen presentzia indartsua nabarmentzeko

orduan: “Gaur egun, emakumeen presentzia ez da kuota bat betetzeko, baizik eta esango nuke ekarpenik berritzaileenak eta interesgarrienak emakumezkoek egindakoak direla”. Argitaratzailearen iritzian ez da moda kontua, egonkortzen ari den errealitatea baino. Eta, hala ere, egoera berri hori naturala ez bailitzan, berriro araubideak gizonezkoen gain jar dezake azentua. Eta jarraitzen du: “Nire beldurra da –baina hipotesia da, ez daukat frogarik– aldaketa hori ez ote den gertatu literaturak kulturaren barruan, oro har, duen presentziaren eta prestigioaren galtzarekin batera, ez bakarrik euskal literaturan, baizik eta, oro har, Europako mendebaldean. Gizonezkoek ez diote utzi zinea egiteari, ez diote utzi musika egiteari, baina badirudi utzi diotela literatura idazteari”.

Datuak egia izanik ere, eta, hala balitz, gizonezkoek literatura egin beharrean beste egiteko edo diziplina batera joan izanak, esan nahi al du datuak diotena baino zerbait gehiago? Izan ere, letren goien mailan (kanonean, adibidez) emakume gehiago egoteak kanon horren bikaintasuna apaldu egingo ote luke? Edo gizonezko gehiagok egiten badute musika, futbola, politika, zinema... horrek, berez, hobetu egingo al du arlo horietan goi mailan ari direnen maila eta emaitza? Kanona gizonezkoen obrez baizik osatzen ez denean, kaosera itzuliko ote gara?

Ez dirudi honek euskal letren ajerik larriena. Beste alde batetik, emakumezko eta euskaldunentzat mendebaldeko kanonera iristea horren zaila izanda, zinez, beharrezkoa al dugu euskal emakumezko idazleok kanonari buruzko hausnarketarik?

Honenbestez, garbi da kanonaren bidez idazleok ikas genezakeela obrak nola idatziak izan diren, nola irakurriak izan diren, eta geure irizpidea osatzeko modu oso egokia izan daitekeela; jakin arren, inor gutxik irakurri dituela kanon batean zerrendatutako liburu gutziak.

Eta kanonari buruzko eztabaidan ezereen muinera iristea zaila izango bada ere, aipatzen ez diren eredu batzuetan pentsatzeak norantza-aldaketak ere ekar ditzake.

²²² *Le langage, cet inconnu*. Paris: Point, 1981, 290.

²²³ BLOOM, Harold *El canon occidental*. Bartzelona: Anagrama, 1994 PINO OJERDA, Waloska “*Literatura de mujeres, mercado y canon: una conversación con Elena Poniatowska*”. *Revista chilena de literatura*, 53. zenb, 1998, 145-156.

²²⁴ *Emakumeek ez dute*. Elkar. 2018

²²⁵ TOLARETXIPI; Eli “*El canon de la poesía escrita en lengua vasca*. Kanona emakumeek euskaraz idatzitako poesia” in AAVV *La poesía escrita por mujeres y el canon*. III. *encuentro de mujeres poetas*. Lanzarote. 1998, 153-175.

²²⁶ “Urruzunotarrak 1986-2018” in *Irakaskuntza ertainetako Urruzunotarrak gehituz Literatura-ekimena 2018. Lan sarituen bilduma*. Eusko Jaurlaritza, 2018, 185-211.

²²⁷ <https://www.jakin.eus/gogoeta/elkarrizketak/xabier-mendiguren-elizegi/141>

Bada kanonean emakumezkorik ez agertzea, emakumezkoen lidergo edo eredugarritasun gabeziarekin lotzen duenik ere. Emakumezkoen maisutasuna bera ere auzitan jartzen da. George Steiner eta Cécile Ladjaliren arteko elkarrizketa batean honela erantzuten zion Steinerrek elkarrizketaileari: *“Otra pregunta que me hago, y le ruego que no se incomode, es si una mujer puede ser maestra de algo, porque no estoy muy seguro de ello. Conocí a Hannah Arendt, pero nunca he tenido la oportunidad de hablar con Simone Weil; ninguna de las dos ha tenido discípulas”*²²⁸.

Kanona bera osatzeko derrigorrezkoak diren hainbat baldintza kontuan hartu gabe, jakintsuek lerro artean adierazten dutena zera da, elkarrizketa irakurtzen ez dioten emakumezkoen sorkuntzalanak nola interesatuko zaizkion jendeari (gizonezkoiei, alegia). Unibertsaltasunaren auzi bera da: euskaldunei euskaraz idazten dena interesatu ezean, interesatu behar al zaio beste inori?

Asaldagarria dirudiena, hala ere, izan daiteke emakumezko sortzaile askok ez bilatzea eredurik beste emakumezkoen artean. Eta hala balitz, garbi da, badagoela geure baitan zer zuzendua, zeren eta funtsean, geure buruak dagoenean onartzen dugun kultur sistema batean kokatzen ari garela onartzea ekar lezake, ez garela ekarpenik egiten ari.

Bestalde, euskal kanonik osa daitekeela ere pentsatzen al da euskal letretan, ala geure ereduak dira arras heteronomo?

Beharbada, ordua da birpentsatzeko zerk defini dezakeen kanona, zergatik izan daitekeen baliagarri sortzaileentzat eta irakurleentzat. Kanonaz hausnartzeko idazleengan baino obretan jarri beharko litatzeke ardura. Eta denbora luzez eta oso irakurriak izan diren lanez gain, lan horien **irakurketa libreak eragindako irakurketaren aniztasunak** definitu beharko luke, eta hein **horretan beste obra batzuen abiapuntu izan diren eta diren obrak**, hain zuzen ere, estiloa eta idazketa bera eraldatu dutenak.

Har dezagun dagoeneko onarpen handia jaso duen emakumezko baten eredia. Virginia Woolfen bost obra: *Uhinak*, *Farorantz*, *Mrs. Dalloway*, *Norbere gela eta Hiru penike*. Egile klasiko bihurtu eta, azkenean, hainbat kanonetan onartua izan da. Obra horien artean, irakurrienak, inondik ere, *Norbere gela eta Hiru penike* izango dira. Baina egiten diren irakurketa

gehienak norabide bakarrekoak dira, bere esanahia lehen edo bigarren irakurketan ez da gehiegi aldatzen. *Uhinak* liburuak, aldiz, etengabe behartzen gaitu Virginia Woolfen mundu sinbolikoaren eraikuntzan erabili zituen baliabideak eta metaforak aztertzeraz, eta, aztertu orduko, plazer handiagoz irakurtzeraz eta ulertzeraz.

Hein horretan, esan genezake sortzaileok eta irakurleok kanonean irudikatzen ditugula, eredugarri jotzen ditugula, **geure eredu propioak bilatzen laguntzen diguten liburuak, liburu baten amaieran beste zerbait hasten dela sentiarazten digutenak**.

Izan ere, **ez dugu hutsetik sortzen**. Zerbait antzemanda, zerbait ulertu nahirik, oraindik esan ez den esaldiaren bila, oraindik heldu ez den kontzeptu edo irudiaren bila sortzen dugu.

Literatura-generoak, formak, gaiak, pertsonaien arteko korapiloak egituratuta daude, idazten hasi aurretik. Eta obra batzuk, hala ere, bere baitan beste liburu eta egile askoren iturri dira, eredugarri bezain imitaezin. Geureganatzeak denbora eskatzen du, eta eska lezakeen denbora horrek aska lezake gure luma. Irakurketa arretatsu horrek arin lezake gure idazketa.

7.2. ARRETAZ IDAZTEA ETA IRAKURTZEA: DENBORA-SORGAILUAK²²⁹

Idaztea bada gauzak geldiago esateko eta beste baten isiltasunean eragiteko modua. Bitarteko baten bidez komunikatzen da idazlea bere irakurlearekin, artea orokorrean bezala. Ez da pertsonen arteko aurrez aurreko komunikazioa. Liburuak ezartzen duen erritmora moldatzen da irakurlea. Hori partekatzen du artearekin, hitzaren bidez, espresioaz harantzagoko komunikazio eta narratibotasun edo argudiaketa gutxienekoak behar izan arren.

Liburuak ez dio eusten ihes egiten duen denborari; zabalik dagoen bitartean, esku artean, begietatik eskura doan tartean errun dezake denbora geldiago bat. Isila, ezinbestean. Zabalik dagoen bitartean, gerta liteke geure bizipenak lerro artean kokatzea, idazleak bere bizipenak isilune eta esan gabekoan artean utzi duen espazioan.

²²⁸ *Elogio de la transmisión. Maestro y alumno* Madril, 2007, 134.


²²⁹ Karmele Igartuak *Denbora enaren hegaletan* liburuan jarri zuen indarrean denbora-sortzailea. <http://www.idazten.com/emakumeak/index.php/eu/idazlanak-mainmenu-476/poesia-66203/1467-poesia-99226442>

Hamaika idazlek irakurtzeari buruz idatzi duten testu askotan nabarmen ikusten da idazketak eta irakurketak uste gabeko bideetara eraman dituela idazleak. Mariasun Landaren hitzetan: "irakurgaiekin garena baino gehiago izatea bilatzen dugu. Beste begi batzuekin ikusi, beste irudimen batzuekin irudikatu, beste bihotz batzuekin sentitu"²³⁰.

Adi egotea, arreta paratzea, ezinbestekoak ditu idazteak bezala irakurtzeak. Eta gogoratu nahi nuke G. Mounineri irakurri niona:

"Estos efectos son los que imponen al descodificador la forma de pensar de codificador, obligar al lector a prestar atención. Esta atención exigida y obtenida por el texto, se debe al impedimento que tiene el lector de utilizar la forma acostumbrada de la descodificación mínima, a la obligación que se le impone de seguir una descodificación retardada (o diferente)"²³¹.

Emakumezkook geure gela propioaz gain, geure estilo propioa bilatu ezean, geure konplexuei aurre egiten pasatzen dugun denbora sorkuntza-lanak duen berezko zailtasunei aurre egiteko bide propioak eskaintzen ez badiogu, ez dugu eman dezakegun onena emango ²³².



²³⁰ Irakurri. Meettok. Donostia: 2018. 133. or.

²³¹ La literatura y sus tecnocracias, aip. ob. 78. or.

²³² Amaitu nahi nuen, beraz, kanonari eta letren sistema arautuari buruzko atal hau, berriro, G.Mouninen hitzak aipatuz eta azpimarratuz "¿Cómo se obtiene este retardamiento? Gracias a que el mensaje lleva una carga muy elevada de cierto tipo de información, ya que utiliza elementos o una estructura de muy baja probabilidad, y, en última instancia, debido a que emplea estructuras que no es posible sustituir. ¿Y por qué el emisor quiere imponer al receptor, en estos mensajes específicos, su modo de pensar? Porque está tratando de transmitir con su mensaje un tipo de información muy especial; no sólo información lingüística, sino también la huella de su propia personalidad, en relación con el referente de dicho mensaje; sus vivencias más íntimas, sus connotaciones más cercanas a lo inefable, o a lo jamás dicho por el lenguaje: esto es lo que obliga a funcionar siempre en los límites del código, a dar la impresión de estar casi siempre tratando de violar el código, con todos los riesgos de esoterismo y hermetismo que implica una tentativa de este tipo. Cuando el lector percibe, reconoce y, por último, acepta esta expresión como la expresión de una vivencia muy cercana a la suya, se da la comunicación poética estética). En este momento, como dice Martinet, "cultura es compartir las connotaciones" Aip. ob. 220. or.

II. Atala

EUSKAL EMAKUME
IDAZLEEN SUSTAPENA
EUSKAL LETREN
SISTEMAN

**Irakurriz sustatu,
ezagutuz birgaitu**

I. kapitulua
SARRERA:
NONDIK ABIATU
ETA NORA JO

SARRERA: NONDIK ABIATU ETA NORA JO ¹

XX. mende hasieratik euskal emakumezko idazleen kopuruak gora egin du etengabe. Gainera, XX. mendearen hondarretik hasita emakumezko idazleen mugimenduek eragindako elkarteratzeak medio, lortzen ari da egungo emakumezko idazleen arteko harreman-sareak egitea, gehienetan maila pertsonalean bada ere, bai euskaldunen artean eta baita euskaldun eta erdaldunen artean ere, izan euskal hiritarrak edo kanpokoak.

1980az geroztik azterketa anitzen jomugan egon da emakumezkoon eta emakumezko idazle euskaldunon gaia. Hausnarketa-ildo batzuk ere sortzen ari dira azkenaldian. Baina, labur esateko:

- 1 Euskal emakumezko idazleen segidaren errelatoa dispertsoa eta fragmentarioa da aldi berean. Orain arte, asko jota, aipatu egin dira emakumezkoak, baina ez dira orokorrean ondo kokatu euskal letren testuinguru historikoan, soziologikoan edota kulturean, eta oso gutxitan aztertu izan dira elkarren arteko harreman eta eraginaren ikuspegitik.

Emakumezko idazle garaikideei buruz egin diren hurbilketa askotan, marko teoriko nagusia genero-ikuspegia izan da, batzuetan beste hizkuntza batzuetan egiten omen denarekin alderatuz euskal emakumezko idazleak edota beren lanak.

Aurrerapauso handia da, emakumezko idatzi duguna aintzat hartzen den heinean, baina kasu horietan emakumezko idazleak edota gure lanak, ikerketa edo ikuspegi orokorrako bateko aldagai bihurtzen gara.

Neurri batean alderatu daiteke ikuspuntu hau euskal literatura klasikoak hamarkada askotan izan duen interes filologiko eta gramatikalaren ikuspegiarekin. Euskara aztertzeko balio zuten obrek, baina apenas aztertzen zen

esaten zutena, nahiz eta Euskal Herriko historia, polita edo soziologia aztertzeko baliagarri ez ezik ezinbesteko dokumentuak izan, euskaldunonak.

Euskal emakumezko idazleoi buruz egiten diren azterketa anitzetan nabaritzen da falta zaiela biografien eta bibliografiaren irakurketa espezifiko aintzat har dezakeen marko kontzeptual hurbilagoa.

- 2 Euskal emakumezkoek idatzitako liburugintzaren historian oraindik ez dago elkarreaginez ondutako segidarik, apenas dagoelako elkarren ezagutarik. Puntu honetan antzeko egoeran gaude euskal literaturan, orokorrean.
- 3 Idazleek elkarriketetan aipatzen dituzten irakurketak kontuan izanda, oraindik ezin da esan gaur egungo euskal emakumezko idazleek gizonen lortu duten arrakasta soziala lortu dutenik, eta ezta emakumezkoak elkar irakurri elikatu direnik ere, gutxitan aipatzen baitute euskal sortzaileek emakumezko aurrekari euskaldunik.
- 4 Toki askotan barreiatuta dago emakumezkoen buruzko informazioa. Sarri informazio berbera errepikatzen da egileek idatzi duten horretan arakatu gabe, eta beraz, esan genezake, oraingoan, nagusi dela emakumezko ikerketa-objektu gisa hartu izan den saiakera.

Emakumezkoen arteko elkarreaginak edo emakumezkoen harreman-sareak eta gizarte harremanak ere aztergai izateak, emakumezko sortzaileok ere hausnarketaren subjektu aritzen lagun dezake.

Bestalde, ikerketei begira ere, ikerketen planteamendu zirkularra diseinatu behar da, zeinetan hainbat emakumezko idazle bere bizipen eta hausnarketatik abiatu eta, ondoren, talde irakurketan ere parte hartu ahal izan dezan.

¹ HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK Kultura sustatzeko zuzendaritzaren helburua da, lan honen amaierarako, hobekuntza proposamenak eragitea. Azken fase honetara iristerako Industriako lanketaren ondorioek euskal literaturaren egoera sistematikoaren ikuspegi zabal eta zehatzagoa emana izango dute, eta gure hobekuntza proposamenek aintzat hartu beharko dute diagnostia.

1.1. EMAKUMEZKO IDAZLEAK EUSKAL LETREN SISTEMAREN ALOR GUZTIETAN SORTZAILE

Emakumezko idatzitako liburugintza eta idazketa sustatzeko planak, zehatza eta epe jakin batera mugatu beharrekoa behar du.

Baina, aldi berean, emakumezko idazleak idazketa sustatzeko helburua ere badu, bada beste zerbaiten hasiera ere. Hein horretan, oinarri-oinarrizko marko teoriko bat planteatzea eta bide berriei bidea emateko helburua ere badu, eta kontzeptualizatuegi egon daitezkeen ereduaren katebegiez gain, oinarriko ideia batzuk lantzeko libertatea eskaintzea.

Epe ertaineko helburua behar du euskal emakumezko idazleek euskal letretan eta gizartean jokatu eta jokatzen duten paperaren azterketa; zehatza eta diakronikoa, hainbat urratsetan planifika daitekeena.

EUSKAL LETREN AZTERKETA

- Egoeraren azterketa diakronikoa (euskal literaturaren ezaugarri bakan batzuk bostehun urteotan) eta sistemikoa.
- Emakumezko idazleen presentzia euskal literaturan, eta XIX. mendeaz geroztikako eboluzio kuantitatiboaren arrazoiketa posibleak.
- Emakumezkoen artean gehien jorratu diren generoak eta arrazoiketa posibleak.

EMAKUMEZKOAK EUSKAL LETRETAN

- Emakumezkoak euskal letretan agertzearen edo ez agertzearen arrazoi posibleak.
- Emakumezkoak euskal letretan noiz eta nola agertu diren deskribatzea (informatzaile gisa, kolaboratzaile gisa, izengoitiak, idazle gisa...).
- Emakumezkoek sortutako obrak: ahoz emanak, idatziak, beste bitartekaritza batzuk: antzerkia, gidoigintza, IKTak...).
- Emakumezkoek sortutako obra guztien bibliografia eta erreferentzia bildumak.
- Emakumezko idazleen obra irakurketa informatzailea: laburpena, literatura-generoa, hitz-gakoak...
- Emakumezko idazleen obra jakinen irakurketa sakona.
- Obra jakin horien lekukoa emakumezko idazleen obran, garaian, euskal literaturaren historian, emakumezko idazleen artean...



2. Irudia. EUSKAL EMAKUMEZKOAK LETRETAN: SORTZAILEON IKUSPEGIA AZALERATZEN

- Idatzi dutenenak
- Beste idazle batzuen iturri edo laguntzaileenak
- Argitaratu dutenenak
- Aipamen biografikoak eta erreferentzialak

- Argitaratu diren lanenak (eta noren izenean)
- Argitaratze datak
- Lanen aipamen bibliografiko zehatzak
- Lanen laburpen-fitxak, hitz-gakoak, generoak...
- Informazio paratestuala



- Hautatutako obren irakurketa egile osoaren obra kokatzea
- Egilearen biografiarekin lotzea
- Egilearen eta obraren testuingurua

- Argitaratze eta idazte artean egon daitekeen aldea eta zergatiak
- Zenbat argitalpen izan dituen
- Zein harrera izan duen (debekuak, goraipamenak...)
- Norentzat idatzia izan den

II. kapitulua
EUSKAL
EMAKUMEZKO
IDAZLEEN
SUSTAPENA


Kulturaren sustapen Plan honetan ageri diren neurri gehienak beharrezkoak eta zentzuzkoak dira sortzaileen ikuspegitik, eta aurretik egindako azterketa soziologikoetan ondo oinarrituak.

Proposamen honetan, euskal letren sisteman eta emakumezko sortzailearen ikuspegitik egindako azterketaren ondorioz, proposamen gutxi eta zabal batzuk aurkezten dira. Guzti horiek abian jartzeko, erakundeen borondatea eta euskal emakumezko idazleen partaidetza beharrezkoak direnez, partaidetza hori lantzeko eta sustapen neurriak hartzeko plangintza eta kronograma planteatzen dira.

Plangintza hori zehazteak eta proposatzen diren neurriek azterketa berezitua eskatuko lukete. Proposatzen diren proiektuak ez daude jarraian kokatuta, helburuaren garrantziaren edo eraginaren arabera; baizik eta, emakumezkook idatzi dugunaren ikusgarritasuna hedatzeko material horren ezagutza, zabalkundea eta emakumezko sortzaileen partaidetza erraztuko dituen kronogramari baten arabera iradokiak.

Alde batetik, dakiguna eta erraz bil daitekeena zabaltzea izango da lehen urratsa; eta amaieran, emakumezko sortzaileen bilgunea planteatzen da, zer egin daitekeen aztertzeko. Antolaketa horrek berak dakar, hasieran modu eraginkorragoan eman daitezkeen urratsak sakonago aztertzea, eta amaierakoak modu lausoagoan iradokitzea.

**III. kapitulua
EMAKUMEZKOOK
IDATZI DUGUNA
EZAGUTARAZTEN:
AURREZ AURRE**



Marko teorikoan adierazitakoaren arabera, *Euskal letren* kontzeptuak -emakumezkoek euskal letratar egindako ekarpena eta ekarpen horren ikusgarritasuna eta sustapena bultzatzeko orduan- emakumezkoek **idatzita utzi duten literatura-genero oro** kontuan hartzeko helburua aldarrikatzen du.

Euskal letren kontzeptuaz jardutea literatura zentzu zabalenean hartzea da, eta euskal letrak **modu sistematikoan arakatu beharra eskatzen du**. Alegia, ez zaio biderik itxi nahi inolako azterkizun-gairi: ez filosofia eta pentsamenduari, ez filologiari, ez etnografiari eta ezta saiakera teknologikoari ere.

Euskal letren azterketa modu sistematikoan egiteko, egokia da *euskal sistema literarioaz* ari garenean erabiltzen diren oinarrietatik abiatzea eta bereiztea **sormena edo produktzioa, bitartekaritza** eta **harrera**, eta, azkenik, harrera horretan **irakurriari balioa emanez** bat eragiten den **birsorkuntza**, dela kritika, azterketa edo iruzkin bidez. Hau dena kontuan hartuta, **emakumezkoek idatzitakoaren ikusgarritasuna eta irakurgarritasuna lotzen ditu** sustapen-lan eredu honek, emakumezkoen ikusgarritasuna bultzatzeko, sorkuntza-lanaren bidez emakumezkoek esan eta adierazi dutenaren berri emanez.

Euskal emakumezko idazleei **argitaratzeko aukera ematea**, idazketarako eta zuzenketarako **formakuntza** ematea, haurdun daudenean edo haurrondoan idazten jarraitzeko **bekak eta egonaldiak eskaintzea**, edota, idazteaz gain, profesionalizatzea erraztuko dien egitasmoak sortzeak (irakurketa klubak, kultura erakundeetan eta elkarteetan proiektuak lan egitea, argitaletxeetako harremanetarako prestatzea...) euskal emakumezko idazleei bideak irekitzen lagundu dezake.

Euskal emakumezko sortzaileen **antologiak** eginez, **urtekariak** paratuz, **entziklopediak** argitaratuz edo/eta webguneak sortuz jar daiteke irakurleen eskura emakumezkook idatzitakoa.

Eta hori egin behar dute, batez ere, irakurketa Irakasleek, literatura-kritikariek, kazetariek eta kulturaren munduak eragiten duen birgaitze-prozesu honek emakumezkook idatzitako lanak aintzakotzat hartu ahal izateko, Pierre Bourdieuk zioen bezala, “irakurriak izatea merezi duten liburu” kontsiderazioa emanez.

Horrek guztiak eragina izango du, azkenean, euskal emakumezko idazleen jabego intelektualari buruzko hausnarketan eta irakurketa gizarteratzeko eginkizun amankomunean.

3.1. EMAKUMEZKO IDAZLEAK SORTZEN

3.1.1. Formakuntza eta dibulgazioa

Gaur egungo euskal emakumezko idazle gehienek ikasketa unibertsitarioak dituzte. Idazketa literarioa helburu zutenek irakas-kuntzarekin, filologiarekin ala kazetaritzarekin lotuak. Hainbatek gidoigintza eta literatura-kritika ere ikasi izana aipatzen du elkarrizketetan.

Baina euskaraz idazten duten emakumezkoen artean tesiak eta saiakerak kontuan izanez gero, anitz dira leterekin zerikusia izan ez duten idazleak ere.

Araututako unibertsitate-sistemak ez du idazten erakusten, eta graduondoko gisara planteatzeak ematen du aukera, dagoeneko, adin batera iritsi den ikasleria batengana iristeko. Aukera hori ematen du Bergarako UNEDek tutelatzen duen **IDAZLE ESKOLA** titulu propioak², kreditu ofizialik eman ez arren, irakasleen formakuntza gisara homologatua dagoenak. Ez da emakumezkoentzako idazle-eskola, baina emakumezkoak gehiengo dira ia ikasturero. Bertan ikasleak idazten, zuzentzen eta irakurtzen ikasten du, idazle diren irakasleekin, eta tutoretza pertsonalaz baliatzen dira bi urtez.

Aipatu izan dira idazleen formakuntzarako hainbat unibertsitate-takoko graduondoko ere, baina bertan idazleek ere parte hartu arren, ez dute idazketa formakuntzarik eskaintzen³.

² <https://ieskola.asmoz.org/>. Eta ikasleek idatzitako lanak argitaratzen dituen <http://www.idazten.com/index.php/eu/>

³ <https://www.mondragon.edu/cursos/eu/gaiak/kultura-gizartea/euskal-kulturgintzaren-transmisioan-aditu-titulua>.

Egia da euskal unibertitateetan ere eragin behar dela, baina mundu akademikoaren dinamikak beste araubide batzuk ditu.

Idazle Eskolatik sortu diren emakumezko idazleen zerrrenda ez da laburra. Liburuak idatzi, antzerkiak edo gidoiak bideratu... Ikasleen webgunean argitaratu duten 125 ikasleen artetik 77 emakumezko idazlegai daude, % 67, beraz. Kontua da emakumezko idazlegai hauetatik % 43-47 artean idazletzat har litezkeela, eta ari direla euskal letretan, idazle, gehienak, baina baita itzultzaile, gidoigile, antzerkigile ere.

Euskal Herrian ez dago idazle eskola sarerik bertso eskolak dauden eran, nahiz eta azken urteetan ari diren zabalzten izen honekin beste eskola batzuk ere. Antzerki eskoletan ere ez da beti euskarazko irakaskuntza bermatzen, eta kasu hauetan, interpretazioa izan ohi da ikasgai nagusi. Baina ez dugu atal hau hemen azalduko, antzerkiak bere ikerketa propioa duenez.⁴

Skolastika eskolak ere planteatzen du emakumezkoen formakuntza, baina batez ere irakurketa eta ikerketara bideratua dago. Euskal letrekin lotura izanagatik, batez ere gaztelaraz ari da.⁵ 2003an sortu zen.

Epe laburrean, eta egoerak asko aldatu gabe IDAZLE ESKOLA izan daiteke idazle formakuntza eta emakumei buruzko irakurketak bideratzeko eredu, azken kasu honetan, *Skolastikarekin* batera.

Nafarroako IPESeko Dokumentazio zentroa izango da gai honetan tradizio handiena duena, baina batez ere dokumentazio zentro gisara ari da. Bere formakuntza-esperezia ere aintzakotzat hartzeko modukoa da alor batzuetan, batez ere, ikuspuntu feministaren alorrean.

Gasteizko Irakasle Eskolan ere lantzen da genero-ikuspegia, eta Berdintasunerako Zuzendaritzak 2015ean abian jarri zituen EHUko genero ikuspegia txertatzen duten Gradu Amaierako Lanak ikusarazteko I. Jardunaldiak⁶, eta 2019an AKADEMERen bidez ere abian jarri dute Emakume akademikoaren lidergo trebetasunak⁷ hobetzeko eta laguntza sare batean parte hartzea sustatzeko formakuntza.

Hala ere, esan liteke formakuntza hauek idazketa sortzailea baino lanbide akademikoak hartzen dutela helburu, eta, orokorrean, EHUk beste unibertitate batzuekin alderatuta ez duela emakumezkoari zuzendutako liburu- sail jakinik, nahiz eta emakumezkoa jomugan duten emakumezko askok egin dituzten beren tesiak, eta emakumezkoa bisibilizatzeko aldagaia txertatua dagoen tesi hauetako askotan.

Unibertitateen ekarpena garrantzizkoa izan daiteke euskal emakumezkoak letretan aztertzeke orduan, eta orain arte, graduei buruz egindako ikerketen bidean.

EHUren kasuan, generoaren ikuspegia txertatzen duen webgune interesgarria izanik ere, ez daude eskura, adibidez, euskaraz euskal emakumezkoek idatzi dituzten tesiak, edota euskal emakumezko ikertzaileen bibliografia osoa, eta hein horretan, emakumezkoen egoerari buruzko ikuspegia hedatzen da, hedatu behar den bezala, bestalde, baina ez sortzaileon ikuspegitik, eta ez dago emakumezko subjektu anitz gisara ikusgarri bihur gaitzakeen euskal emakumezko ikertzaile zerrendarik.

3.1.1.1. Idazleak irakurleekin: irakurketa klubetarako irakurketa-gidak.

Euskal idazleek irakurleekin harreman zuzena dute Irakurketa klub bidez, eta baita Idazleak Eskoletan programa bidez ere. EIEk bideratzen du hainbat irakurle klub momentu honetan, eta emakumezkoek gidatuak dira batzuk.

Harreman zuzen hori garrantzizkoa da idazle guztientzat, eta baita emakumezko idazleentzat ere. Interesgarria da taldearen interesari erantzutea, baina baita irakurketa-gida batzuk antolatzea ere, eta irakurketa-gida horietan, generoaren ikuspegia txertatzea ere egokia izan daiteke.⁸

Euskal emakumezko idazleei buruzko txosten bat, euskal emakumezko idazleen eta beren obren zerrrendak, testuinguru politikoari buruzko zertzeladak eta euskal emakumezko

4 Antzerki eskola: Zurriola Ikastola: Lanbide Heziketa. BAI, Bizkaiko Antzerki Ikastegia: http://bai-bai.net/bai/?page_id=151&lang=eu Escuela Navarra de teatro (gaztelaraz bakarrik) <http://www.laescueladeteatro.com/es/> Nafar Gobernuak Hezikuntza sailak onartua <https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/escuela-navarra-de-teatro> Teatrolari, Antzerki Eskola <http://www.findglocal.com/ES/Pamplona/690762280969565>.

5 <http://skolastika.net/euskeraz/>

6 <https://www.ehu.es/eu/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/arabako-genero-ikuspegia-txertatzen-duten-gradu-amaierako-lanak-ikusarazteko-i-jardunaldia>.

7 *Mapa de los grados: Incorporación de la perspectiva de género en los grados de la UPV/EHU.*

8 CENTRO DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES- INFORME GENET " Género y Políticas públicas: Claves para la agenda política" 11-14. <https://www.ehu.es/documentos/2007376/0/Informe-Genero-y-Politiclas-Publicas-ASOCIACION-GENET.pdf/d624045a-7180-4839-ba79-2ce910a6af43>

idazleok idatzitako lanen aniztasuna azpimarratuko duen txostena beharko lirateke.

Eskuragarri egon daiteke emakumezko idazleei buruzko balizko webgunean, edo argitaratua izan daiteke. Baina Gema Lasarte eta Pilar Aristizabalek⁹ nabarmendu duten bezala, obra bat irakurri aurretik egileari buruz izan dezakegun informazioa garrantzizkoa da. Azpimarragarria da Mariasun Landa bezain egile ezagun baten obraren aurrean nolako aldea gertatu zen. Informazio falta hori emakumeei buruzko obretan sistemikoa denez, esan liteke emakumezko idazleei buruzko dibulgazio-lan sistemiko eta orokorra garrantzizkoa dela, eta dibulgazio horretan izenaz gain, literatura-generoak, obra zerrrendak eta egile zerrrendak ere agertzea komeniko litzatekeela.

Gida horrek praktikoa izan behar du, emakumezko idazleei buruzko hainbat galdera ere planteatu litezkeelarik; horien artean, zein emakumezko idazlek edo sortzailek eragin duen idazleengan, adibidez; eta, beharbada, hainbat galderaren erantzunak jaso daitezke inkesta gisa.

3.1.1.2. Zuzenketa edota tutoretza

Sorkuntza-lanak bezala lan intelektualak behar izaten du gidaritzatza, irakurle adituaren figura.

Tesiak egiteko orduan zuzendariek egiten duten bezala, editoreek egin ohi dute lan hori. Egile gazte eta berriek askotan eskatzen dute beren lehen lana bideratzeko tutoretza.

Hainbat emakumezko izan ohi du erreparorik inori erakutsi gabe testuak argitaletxeetara bidaltzeko, eta idazle askok horregatik estimatzen ditu sariketak, irakurle-talde batek emandako iritzi adostua helarazten duelako, molderen batean, sariak. Sarietako epaimahaikideen artean edo EIEko edo Galtzagorriko kideen artean egin daitezke hainbat inkesta funtzio hori betetzeko prest daudenen izenak emateko, garrantzizkoa baita sortzaileak izatea sortzailearen bidelagun.

Tutoretza lan hori lortzea ez da erraza. Ordaindu egin behar da. Garrantzizkoa izan ohi da idazle-tutorea, zuzenketa

eta bideratzea burutzen dutenen arteko harremana konfiantzazkoa izatea. IDAZLE ESKOLAKo esperientzian aurrez aurreko hiru saio eskaintzen dira, hogeita hamar-berrogei orriko lanetarako.¹⁰

3.2. NORBERE GELAK ETA EGONALDIAK

EIEk bideratzen ditu Hendaian Nekatonean eta Pasaian Hugo Etxeko egonaldiak. Gaur egun Tabakalerak ere eskaintzen ditu idazleentzako egonaldiak.

Emakumezko idazle askok haurdunaldia eta haurrak hiru urte bete bitarteko aldietan familia izatea eta idazteko tartea hartzeko bidea antolatu ezina adierazten du.

Egoera honi erantzuteko proposamen egokia izan daiteke **hogeita hamar urte baino gutxiago duten emakumezkoentzat edota hiru urtez beherako haurrak dituzten emakumezkoentzat antolatzea Euskal Herriko hainbat herritan egonaldi luzeagoak, hiru-sei hilabete-koak, haur eskolak dituzten herrietan**. Oraindik ibilbide profesionala osatu ez duten emakumezko askorentzat aukera ederra izan daiteke.

Modu horretan, haurrak egokitu eta emakumezkoei beren lana burutzeko edo garrantzizko bultzada emateko aukera ematen zaie. Bestalde, profesionalki idazteko hautua egin duten emakumezko askorentzat ez da erraza lanik ez egin eta kontziliazioa bermatzea, eta horien kasuan ere, hainbat lan burutzeko aukera eskaini lezakete horrelako egonaldiek.

Udalerrien ekarpena bizilekua eta haur eskolako kuotak ordaintzea izan daiteke. Eta, hainbat udalerriri prest izanez gero, kulturalki programazio-eredu batzuk parteka ditzaketen udalerrri-sareak ere sor daitezke.

Egonaldi horietan parte hartzen duten emakumezkoen kargu utz daiteke, adibidez, tarte horietan euskal emakumezko idazle batzuen irakurketa bideratzea, irakurle klubak edo antzeko lan batzuk sustatzea. Baina baita **Literatura-Tailerrak emateko aukera bere gain hartzen duen idazlea ere**.

⁹ "Leyendo el género: Mariasun Landa" *Ocnos*, 12, 2014, 149-169. https://revista.uclm.es/index.php/ocnos/article/view/ocnos_2014.12.08/pdf_1

¹⁰ <https://ieskola.asmoz.org/informazioa/>

3.2.1 BIBLIOBUS IBILTARI MOREA

1980ko hamarkadan bazen Gipuzkoako Foru Aldundiak herriz herri ibiltzen zuen bibliobusa. Hiru astez behin etortzen zen herrietara eta bertako irakurleak asetzen gintuen.

Euskal emakumezko idazleen bibliobus ibiltariak berma lezake euskaraz idazten dugun emakumezkoen lanak bertan aurkitu ahal izatea, eta, beharbada, baliagarria izan daiteke aldika-aldika herri horietan irakurketa klubak sortzeko ere.

Bibliobus ibiltari hori izan daiteke emakumezko idazleentzako egonaldiak eskaintzen dituzten udalerrietarako kultura programazioaren alderdi bat, irakurle klubekin koordina daitekeena, eta, gidaz gain, liburuak bertatik bertara ikusteko eta kontsultatzeko aukera eman dezakeena, edo irakurketa klub horretarako idazle bisitariak aurkez ditzakeena, emakumezko idazleen zerrendatutako liburuak bertatik eskaintzen dituen, eta irakurleen irakurketa-plan pertsonalizuak lot ditzakeena.

3.3. EUSKAL EMAKUMEZKO IDAZLEEN LIBURUTEGI ETA GORDAILUA

Euskal letrak liburuetan argitaratutako lanez gain, hainbat euskarritan hedatu diren edo ez diren emakumezko idazleen lanak bildu behar dituen arren, fisikoki euskal emakumezkoen liburutegi bat osatzea garrantzi handikoa da, baita emakumezkoen interpretazio eta hausnarketa gune gisa ere.

Euskal Herri osoan emakumezkoek idatzi dituzten lanekin hasi eta euskal emakumezko idazleei buruzko erreferentziak gordetzen dituzten lanez hornitzeaz gain, euskaraz idatzitako literaturaren historiak, antologiak, etab. jaso beharko lituzke.

Errazena euskal liburutegi sareko liburutegietatik abiatzea izan badaiteke ere, garrantzizkoa da emakumezkoen presentzia aipatua eta ikusgarria izango den toki eta **erakunde jakin eta nagusi** bat ere egokitzea.

Azkenik, liburutegi hori Euskal Herriko emakumei buruzko dokumentazio-zentro ere bilaka daiteke, baina garrantzi handikoa da euskararen presentzia bermatuta geratzea.

Izan ere, Euskal Herrian badira emakumezkoen liburutegiak dituzten taldeak: IPES (13.500 libururekin) Skolastika... Baina horiek batez ere emakumezkoari buruzko dokumentazio zentroak dira, eta euskal emakumezko idazle eta sortzaileen presentzia ez da sistematikoa, eta euskal emakumezko idazleen ikuspegitik anekdotikoa ere izan daiteke, euskal emakumezko idazleen ikerketa-gune gisa.

Liburutegi horrek aukera eskaini beharko luke modu presentzian bertatik lan egiteko eta baita dagoeneko euskal liburutegi-sarearekin komunikaturik on-line lan egiteko ere.

Hezkuntza unibertsitarioarekin eta irakaskuntzarekin, eta ikerketan diharduten elkarteekin ere lotura izatea garrantzizkoa da. Ikerketa koordinatzeko gune interesgarria ere izan daiteke, eta Euskal Herri osoan erreferentzia izan dadin garrantzizkoa da Nafarroa eta Iparraldeko liburutegi sareekin, diasporako erakunde eta kultur elkarteekin eta, oro har, ETXEPARE institutuaren sarearekin harremanak sustatzea ere.

Azpimarragarria da IPES Nafarroakoak emakumezkoen bilakaera historikoari buruz egin duen digitalizazio lana¹¹.

3.3.1. EUSKAL EMAKUMEZKO IDAZLEEN IZKRIBU-GORDAILUA

Emakumezkoen liburutegiak biltegi eta dokumentazio gune garrantzizko izaten dira, baina horietan emakumezkoen ikuspegi orokor bateko aldagai da.

Emakumezko sortzaileen liburutegiaren antolaketa **euskal letren sistemaren ikuspegitik** egin beharrekoa da. Bertan emakumezkoek idatzitakoa eta emakumezko idazleoi buruz idatzitakoa jaso behar da, noski.

Baina, sortzailearen ikuspegitik, beste urrats batzuk egin behar dira emakumezkoaren ikusgarritasuna gal ez dadin aurrerantzean ere. Beraz, gordailu lan bat egitea dagokio aurrera begira, bertan, emakumezkoek idatzi eta jasotako eguneroko, gutun, irudi, ilustrazio... testu eta liburuen zuzenketa eta inprenta-probak, argitaletxeekin izandako kontratuak, etab. gordetzeko bidea aztertuz.

¹¹ <http://www.ipesmujeres.org/biblioteca/documentacion> Emakumezkoen kultura ondarea eta ondare historikoa digitalizatzen ari delarik.

3.3.2. SORTZAILE ALA SORGIN, EUSKAL EMAKUMEZKOEN BASOA: IRAKURKETARAKO ESPAZIOAK ETA NATURA

Modu sinbolikoan, euskal emakumezko idazleek lagatako izkribu eta dokumentazioaren ikusgarritasuna bultzatzeko, liburutegiaren inguruan baso edo lorategi bat... eta bertako mahaietan emakumezkoen izena eramango luketen mahaiak edo eserleku bereziak basoan eta liburutegian bertan.

Alderdi sinboliko horri begirada sortzailea eman behar zaio.

Durango izan daiteke horrelako liburutegi bat antolatzeko toki egokietako bat.

- 1 Emakumezkoek ez idazteko arrazoi objektiboen artean zentsura delako bat. Eta euskal emakumezkoen eta euskal liburugintzaren aurka Inkisizioak eragin handiena izan zuen tokietako bat da Durango. Kontuan izan behar da zenbat sorgin hil zituen Inkisizioak¹².
- 2 Euskal mitologiaren ikuspuntutik Anbotok eta Anbotoko damak edo Marik duten erreferentzialtasunagatik.
- 3 Euskal literatura modernoa sustatzeko Gerediaga elkarrekin eman duen bultzadarengatik. Ez dezagun ahantz Durangon Gerediaga elkarrekin sortu zuten hamabi lagunaren artean izan zirela Maria Concepción Astola¹³, Gerediaga aldizkariko zuzendaria eta berarekin batera M. Rosario Astola, Arrate Salazar eta Carmen Miranda. Sortzaileen % 30.

Literatura-ibilaldiak ere egin daitezke antzeko beste kultura elkarrekin eta erakundeekin harremanetan. **Sara** eta **Zugarramurdi** ere ibilbide horretan kokatuz, adibidez.

3.4. LABURTUZ: IKUSGARRITASUN FISIKO ETA SOZIALA

Fisikoki euskal emakumezkoen bisibilizazioa bermatzen den udalerrri eta espazio sare horrekin batera planteatu liteke, udalerrrietako kultura eta euskara teknikarien artean, emakumezko sortzaileen ikusgarritasuna bermatzeko formakuntzarik ere, epe luzeago batean.

Baina bistan da tokietan ikusgarri izateak egiten gaituela kontziente, eta erakundeen eta kultur elkarrekin ikuspegitik espazio fisiko horien sareak ehundu egin behar dira.


Izan ere, espazio fisikoak doitzeak proiektuen egonkortasuna eta iraupena bermatzen duela adierazten du, eta euskal emakumezko idazleak ez gaude presente euskaldunon herrian.

Arestian aipatutako neurrietako asko eta asko sinpleak eta eginerrazak dira, eta hala behar dute, eraginkor bihurtuko badira. Hala ere, antolaketa honen alderdi fisikoa osatzeak epe luzeagoa, eta ikusmira eta erabaki politiko sakona eskatzen ditu.

Alde horretatik, emakumezkoen ikusgarritasun soziala bermatzeko, ezinbestekoa da IKTeen eta sare sozialen laguntza aintzakotzat hartzea.

¹² BAZAN DIAZ, Iñaki. *Los herejes de Durango y la búsqueda de la Edad del Espíritu Santo en el siglo XV*. Durango: Arte eta Historia Museoa. 2007.

¹³ TORREALDAI, Juan Mari. *Euskal kultura gaur liburuaren mundua*. Oñati: Jakin. 1997, 143.or

The background is a solid olive green color. It features three vertical lines of a slightly darker shade of green. There are four diamond shapes (rhombuses) of the same darker shade, positioned at the top-left, middle-left, middle-right, and bottom-right corners.

IV. kapitulua
EMAKUMEZKOOK
IDATZI DUGUNA
EZAGUTARAZTEN:
SARE SOZIALAK

4.1. NORBERE GELATIK WEBGUNE PROPIORA: emakumezkoak idazten

Modu **sistematikoan eta antolatuan** edota **plazer hutsez, bilatzaileen erabilera bizkor-arinaz** irakurtzea ahalbidetuko duen webgune gisa defini daiteke egitasmoa. Izan ere, webgune honetan bilaketak azkar egin daitezke, idazleka nahiz literatura-generoka. Eta grafikoa ikus daitekeen bezala, euskal letren sistema osoa dinamizatzeko xedea lortzeko baliabide aproposa izan daiteke¹⁴:

3. Irudia: WEBGUNE PROPOSAMENAREN FUNTZIOEN DINAMIKA

- Idazleen soslaia (argazkia, poetika, motibazioa), biografia eta harremanen datuak eta testuez gain multimedia aintzat hartuko duena



- Fikziozko ez diren testuak ere jasoko dituen, eta paratestuen edizioa eta azterketa bultzatuko dituen

- Emakumezkoek emandako formakuntzak, mintegiak, agendak eguneratuko dituen

- Debateak, irakurketa kualitatiboak bultzatuko dituen, diziplinartekotasuna sustatuko duena

¹⁴ Modu grafikoagoan ikusi ahal izateko, ausazko eredu bat proposatzen da hemen: <http://www.idazten.com/emakumeak/index.php/eu/> erabilerari buruzko oharra. Webgune eredu honetan ageri diren lanak ELETAN KULTUR ELKARTEAK IDAZLE ESKOLArentzat egindakoetatik abiatu dira.

4.2. WEBGUNE-EREDU BATEN EZAUGARRIAK ETA EGITEKOAK

Webgune honek irakurketan oinarritzen ditu bere helburu guztiak, eta bete-betean bat egiten du Eusko Jaurlaritzaren euskal emakumezkoek idatzitakoa sustatzeko plana egituratzeko tresna gisa.

- Edozein tokitatik irakurtzeko aukera eman dezake.
- Euskal emakumezko guztiak idatzi dutenaren berri modu zehatzean eta metodikoan eman dezake.
- Irakurzaletasuna susta dezake.
- Eta datuez gain datuen irakurketa globala egiteko aukera zabaldu dezake.

Hori bai, garbi dago, aldi berean, metadatu antolaketa bati ere ireki behar zaiola bidea, ulermenak eta interpretazioak funts zientifikoa izan dezaten¹⁵. Oraingo ez da arakatze lan sistematizaturik burutu Euskal Herrian, ikuspuntu akademikotik ez dela. Baina, aldi berean, ez da hain zaila idatzita dagoena eta eskura dagoena biltzea.

Webgune proiektu honek eskatzen du, noski, aurreko lanketa bat, euskal emakumezkoek idatzi dugunari buruzko eta euskal emakumezkoen buruzko bilteta sakona egitea, eta metadatu ikuspegia ere aintzat hartzea, lanak bildu ahala azaleko iritzietatik ikuspegi sakonagoetara bideratzeko metodologia egokiak proposatuz.

Horretarako ezinbestekoa izango da Euskal Herrian ikerketan eta irakaskuntzan diharduten eragileekin elkarlanean aritzea, eta elkarlan horretarako marko teorikoa adostea.

Datu guztien bilketak egin ondoren, euskal emakumezko idazleen gizarteratze sareen azterketa egin daiteke, eta baita emakumezkoen idatzietako paratestuena ere.

Emakumezkoak idazten webguneak bere xedeen artean aintzat har ditzake:

- Euskal letren hasieratik dauden emakumezko idazleen erreferentziak eta testuak jasotzea, emakumezkoek sortuak bezala.
- XVI. mendetik hona euskaraz idatzi eta argitaratu duten emakumeen buruzko informazioa dokumentatzea.
- Emakumezko sortzaileak nor izan ziren eta diren.
- Emakumezko sortzaileak zein maila sozialetakoak izan ziren eta diren.
- Emakumezko sortzaileak non bizi izan ziren eta diren.
- Emakumezko sortzaileek non idatzi zuten eta duten.
- Emakumezko sortzaileek zenbat idatzi eta irakurri zuten eta duten.
- Emakumezko sortzaileak zein motatako lanak idatzi zituzten eta dituzten.
- Emakumezko sortzaileen lanak nola zabaldu edo debekatuak izan ziren eta diren.
- Emakumezko sortzaileen lanak nork irakurri zituen eta dituen.
- Emakumezko sortzaileen lanak nola argitaratuak izan ziren eta diren.

Horretarako, azken hamarkadetan, batez ere, euskal emakumezko idazleei eta **emakumeen buruz idatzi eta argitaratu diren azterketen bibliografiaren corpusa bildu, osatu eta ordenatu** behar da, hortik abiatzen diren ikerketek kalitatezko ikuspegiak gain ikuspegi osoa izan dezaten. Eta, hori egin ahala, webgunea diseinatu, irakurketa eta ikerketa esanguratsuen oinarria izan daitezen.

¹⁵ Eredue interesgarria izan daiteke, besteak beste, BIESES izeneko Datu basea, Espainia mailan gauzatzen ari dena. <https://www.bieses.net/que-es-bieses/>

4.2.1. WEBGUNEAREN ATALAK

4.2.1.1. IDAZLEAK

IDAZLEAK. Erakusleihen gisa 82 idazle sartu dira, ikuspegi orokorra emateko. Horietako gehienak Idazle Eskolako ikasle ohiak dira. Obra laburra dute eta emakumeen gaien aniztasuna adierazten dute. Horregatik, oraingoz, gehienek literatura idatzi dute.

Dagoeneko zerrendatuta dauden 567 idazleetatik, 300 idazleren jarraipena egin daiteke hiru urteren buruan.

- Zerrenda alfabetikoa.
- Idazleak bilatzeko aukera.
- Idazle bakoitzaren kasuan soslai, alegia, biografia txiki bat, bertan motibazioa edo poetika agertzen dela.

Idazle berriak, oraindik idazten ari diren emakumezko idazleak eta historian zehar idatzi duten emakumezkoen testuak txerta daitezke.

Alde batetik, **idazle berriak**

- Idazle berriek argitaratutako lan hauek webgunera ekarrita emakumezko idazleek darabilten genero eta gai aniztasuna erakutsiz.
- Euskal emakumezko idazleen gaztetasunarekin irakurleria gazteak erabiliko duen orria bultzatuz.
- Euskal emakumezkoen genero eta gai aniztasuna erakutsiz.
- Gerora ezagunago izan daitezkeen idazleen lehen urratsak erakutsiz (Maribel Aiertza, Karmele Igartua, Ione Gorostazu...).
- Testu laburren erabilgarritasuna bermatuz, irakaskuntzarako adibidez, edo euskaraz irakurtzen ohituta ez dagoen irakurleriarentzat.

- Irakurleek iritzia emateko edo sare sozialetan banatzeko ohitura sustatuz, eta horrekin baita irakurleen sustapen-ahalmena bultzatuz.

Historian zehar idatzi duten emakumezkoen testuak

- Idazle hauen testuak irakurtzeko orduan irakurleen hizkuntza-kontzientzia piztuz (erabiltzen duten euskara...).
- Euskal letren historian ezagutu daitezkeen egileen lanak bertatik bertara irakurri ahal izateko.
- Euskal emakumezkoek esandako istorio eta pasadizoen egiletza errebindikatuz, testuen biltzailea gizonetzkoa izan arren (R.M. Azkue, adibidez).

Egun ezagun diren emakumezkoen testuak

- Gaur egun idazten ari diren testuak irakurriz eta belaunaldi ezberdinetako emakumezkoen erreferentziak eskainiz.
- Ibilbide laburra eta luzea izan duten euskal emakumezkoen erreferentziak eskainiz.

4.2.1.2. SOSLAIK

Idazle bakoitzaren zertzelada biografikoak, bere idazteko motibazioa edota elkarrizketetan edo paratestuetan (hitzaurreak...) egindako adierazpenak eta webgune honetan argitaratuta aurki daitezkeen lanak ikusi ahal izango dira.

SOSLAIRAKO biografia apur bat, eta idazlearen poetikarekin edo idazteko motibazioarekin lotutako hainbat aipamen txertatuko dira (paratestuak). Egileak idatzitako obrak eta berari buruzko bibliografia ere bertan sartuko dira.

Gainera, *Artikuluak* izeneko atalean, webgune honetan argitaratutako lanak txertatuko dira, izenburuaren eta generoaren berri emanez.

4. Irudia: WEBGUNE EREDU BATEN IRUDIAK, INFORMAZIO ANTOLAKETA



Articles 5 Kontaktuak Soslaia

Biografia:

Bizenta Antonia Mogel Elgezabal (Azkoltia, Gipuzkoa, 1782ko ekainaren 6a – Abando, Bizkaia, 1854ko irailaren 29a) euskal idazlea izan zen. Osaba Joan Antonio Mogelek ikasketak eman zizkion etxean. Horri esker, garai hartako emakume batentzat erabat ohiz kanpokoak zen hezkuntza akademikoa lortu zuen. Ipui onak izenburuko alegia-bilduma idatzi zuen, eta 1804an argitaratu.


[Hizkuntza Politikarako Sailordetza PDF](#)

Bibliografia:

- Mari Jose Olazeregi "Bizenta Mogel (1782-1854), edo Euskal Tradizio Literario Androzentrikoa pitzatu zenekoa"

Article	Category
IGARTUA BENGEO, Karmele "Mari Anbotoko edo Txindokiari, mugetatik at, edozein egumetan "(Narrazioak)	NARRAZIOAK
IGARTUA BENGEO, Karmele "Arruko Martin Aranbururi" (Narrazioak)	NARRAZIOAK
IGARTUA BENGEO, Karmele "Ehunduz igual" (Narrazioak)	NARRAZIOAK
